

Zu hemen zaude.

goiena



ANGIOZARTARREN ETORKIZUNA GARANTIZATZEKO PLANAREN ZAIN

Bailarako herritarrek erakundeei eskatzen diete bertako enbizi-beharrei erantzuteko / 44

Angiozar Bailarako Batzarreko kideak, herrigunea eta San Migel eliza atzean dituztela. JOKIN BEREZIARTUA

Oñatiko San Migel kooperatibak 100 urte beteko ditu, eta gaur egun 2.000 bazkide ditu / 50

Ekitaldiz josita dator Bergararen 750. urteurrena gogora ekartzeko antolatutako egitaraua / 43

Herrian batutako errefusaren erdia bestelako hondakina dela egiaztatu du Elgetako Udalak / 47

Puntaik Punta jaialdia Aretxabaletan asteburuan, musika eta mendia ikur hartuta / 56



ARRASATEKO JAIK / 23

puntua Nerabeak eta drogen kontsumoa, erreportajea

Arantzazu Ugarte, etxeko ospitalizazio zerbitzuaz

SINADURAK

 AITOR BIAIN BIDARTE / 8	 MANEX APRIOLABENGOA / 16
 ENERITZ URRUTIA / 12	 AINTZANE OIARBIDE / 64

T-ROC BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoen etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



ALKIDEBA
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKATURAKO ETA INDUSTRIARAKO

Maltzaga - Soraluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pablioa
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net

Saskibaloi taldearen babeslea

OINTXE!





Ezkerrean, Mexikon, 1945ean, erbesteko Jaurilaritzarekin; eskuman, 1977ko Ibilaldian Bergarara heltzen. 'TELESFORO MONZON' LIBURUA

Familia aberats batean jaioa, erabateko langilea

'Telesforo Monzon, aristokrata abertzalea' izeneko liburua argitaratu du Pako Sudupe idazle azkoitiarrak; idazle eta politikari bergararraren biografia lantzen du liburuak; jaiotetxean, Olaso dorretxean, aurkeztuko dute, ekainaren 21ean, 19:00etan

Eneko Azurmendi BERGARA

"Pertsonaia ezaguna dugu Telesforo Monzon, izen ezaguna, baina material gutxi dago bere inguruan, ez dago bere biografirik". Hori dela eta, Pako Sudupe idazleak bergararraren biografia idaztea erabaki du, eta komunikabideen aurrean aurkeztu ondoren, datorren egunean aurkeztuko die herritarrei, Monzonen jaiotetxean, Olaso etxean.

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik sartu zion Suduperi harra Monzoni buruz idazteko. "Berak esan zidan abertzale handi bat izan zela, eredu-garria", dio liburuaren idazleak.

Olaso dorretxean, Euskadiko Artxibo Historikoan, Sabino

Arana fundazioan, Tolosako Artxibo Probintzian, Irujo artxiboan, eta abarretan arakatu du Sudupek, eta hainbat elkarriketa egin ditu. Horren ostean, berretsi du "Monzon gizon handia" izan zela, "euskal abertzaleletasunak eta, oro har, Euskal Herriko politikak XX. mendean izan duten bilakaera ulertzeko pertsona ezinbestekoetako bat".

Aristokrata abertzalea

Telesforo Monzon Bergaran jaio zen, 1904an, familia dirudun batean. "Garai hartan, zaldunen eta langileen herria zen Bergara. Hura zaldunen familiakoa zen. Amaren gonapean ibili zen txikitik; izan ere, 9 urte zituela

hil zitzaion aita". Ama Sevillakoa zen, eta lursailak zituen Andaluzian. Arreba bat Avilan bizi zen, eta askotan joaten ziren hari bisitan. Normalena hara bizitzera joatea zen, baina ez zen hala izan", kontatu du Sudupek.

Bere gurasoek denbora luzea pasatzen zuten Donibane Lohizunen. Hain zuzen, han hil zitzaion aita. "Bere bigarren herria zen, nolabait. Beraz, iparraldea eta hegoaldea lotzeko ezaugarri egokiak zituen".

Familia aberatsekoa izanik, "ez zuen zertan politikan sartu, lasai asko bizi zitekeen bestela ere". Zuzenbide ikasketak egiteko saiakera egin zuen Madri-

len, Murtzian eta Oviedon. "Hala ere, hamar urtean hamar ikasgai besterik ez zuen gainditu, ikasle txarra zen".

1926an, soldadutza egin zuen, Donostian, eta bukatzean, "desmarkatzen" hasi zen, "bere klasetik urruntzen". Suduperen esanetan, euskarak garrantzi handia izan zuen horretan. "Txikitik euskara bazekien, baina nolabaiteko euskaldun berria zen. Gaztelania eta frantsesa ikasi zituen, eta euskara pixka bat ahaztu egin zitzaion. Beraz, euskara berreskuratzen hasi zen. Esaten zuen bere familiak gauzak ondo egin zituela, oro har, baina euskara gutxietsi egin zutela zioen". Hori dela eta, "jeltzaletu" egin zen. EAJko kide eta Eusko Jaurilaritzako kontseilari izan zen.

1931n, hitzaldiak egiten hasi zen. Lehenengo hitzaldia Elgetan eskaini zuen, baserritar batzuen aurrean, eta bigarren errepublika aldiko bost urte haietan 250 hitzaldi inguru egin zituen.

1953an, ordea, alderditik urruntzen hasi zen, eta, 1960ko hamarkadan, "inoiz baino posibleago ikusi zuen zazpi lurraldeak elkartzea eta askatasuna lortzea".

Franco hil ostean, Herri Batasuneko "buruzagi karismatiko" bihurtu zen. "Hura demokrata zen, herriaren erabakietan sinesten zuen. Independentziaren aldekoa zen, eta Euskal Herrian erabakitakoa onartzeko prest zegoen. Iruditzen zitzaion askatasuna irabazita zegoela, eta, borroka armatuarekin, desobediencia zibilarekin, eta abarrek, Euskal Herriak lortuko zuela estatu bat izatea".

1981ean hil zen, Baionako Grenet klinikan, miokardio-infartu baten ondorioz, Eusko Legebiltzarreko diputatu zela.

Ekolber enpresa bergararra saritu dute, Europa mailan

Migel Altuna Institututik abiatutako Urratsbat programaren bitartez sortu zen Ekolber SL enpresa, 2015ean. Plastikoen ingurumenaren bitartez eta kolagenozko kautxua lantzen duen enpresa da, eta EBAE enpresen ingurumenaren Europako sarietako bat jaso berri du, bai autonomia mailan, baita Estatu mailan ere. Euskal Autonomia Erkidegoko saria maiatzaren 31n jaso zuen eta Espainiako saria, berriz, ekainaren 5ean. Proiektuaren "berrezitasunagatik eta zailtasunagatik" saritu dute. 78 enpresa hautagai izan dira, eta horietako bi bergararrak izan dira: aipaturiko Ekolber SL eta Energy Revival, hain zuzen ere.

Ulma Packaging-ek Oñatiko instalazioak handituko ditu

Ulma Packaging-ek bi handitze proiektu garatuko ditu: batetik, egoitza nagusiaren bulegoak handituko ditu; eta bestetik, termozigilatua jarduerarako lantegiko biltegi eta bulegoak ere handituko ditu. Lan horiek eteko, LKS Buildingenia aukeratu du. Termozigilatua jarduerarako lantegia gaur egungo instalazioaren jarraian handituko da, ipar-mendebaldean dagoen lursail bat hartuz. Hedapenarekin, inplementazio osoa hobetu nahi da. Bestalde, Garibai auzoko egoitza nagusia handituta, gaur egungo instalazioen baldintzak hobetu gura dira, eta etorkizunean jende gehiago sartu ahal izatea bermatu.



GINEKOLOGIA
Azterketa ginekologiko osoa
Kontrazepzioa
Menopausia eta osteoporosia
Nerabezaroko ginekologia
Germu-ihesa
Cervix patologiak
Laser ginekologikoa
Bagina-birgaztetzea
Ginekoestetika
Aseguru-etxe gehienekin egiten dugu lan
LagunAro, IMG, Sanitas,...

Miren Arrizabalaga Alzpurua Dk. - 20/7196
Maria Unamuno Beraza Dk. - 48/9654
Alaitz Pagaldai Bereziartua Dk. - 20/7605

Durangon Berria!

EMAGINA Nalara Moral -32511
Erditzaileko prestaketa klaseak
Erditzeoste eta edoskitze tailerrak
Emakumearen osasun sexual eta ugaltzean aholkuak

FISIOTERAPIA Agurtzane Iñurrategi COFPV 386
Emakumeentzako fisioterapia integrala
Haurdunarentzako fisioterapia
Zoru pelbikaroko fisioterapia

YOGA
Yoga Haurdunaldian, menopausian,
onkologia prozesuetan...

OBSTETRIZIA
Haurdunaldiko frogak eta jarraipena
Ekografia 3D-4D
Jaiotze aurreko diagnostikoa
Amniozentesia

HITZORDUA ESKATU
674 322 360



Mikeldi 13, 48200-DURANGO T 946 05 53 04 info@mamginekologiadurango.com | www.mamginekologiadurango.com



Fan Hemendik Egunaren aurkezpen agerraldia, martitzenean, Oñatiko kultura etxean. ENEKO AZURMENDI

Fan Hemendik Egunerako egitaraua aurkeztu dute

Fan Hemendik eragileko kideek argazki erraldoi baterako deia zuten egina martitzenerako. Eta herritar ugarik egin du bat hitzorduarekin. Besteak beste, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak iragarri dituzte ekainaren 30erako

Iker Oñate OÑATI

Herritar ugariren babespean, Fan Hemendik Eguna aurkeztu dute eragileko kideek. Hain zuzen ere, egun osoko egitaraua dute antolaturik ekainaren 30erako; triki-poteoak, bazkariak, manifestazioak eta kontzertuak girotuko dute aldarrikapen eguna –Itziarren Semeak, Gadafiste Brothers, Gorpuzkingz, Broken

Legacy eta DJ Elvis Caino izango dira gaueko protagonista–.

Aurten, gainera, Fan Hemendik Eguna ez dute ohiko formatuan aurkeztu. Herritarren babesa zuten eskatua, "halako ekimenak antolatzeak ekar ditzakeen ondorioez jakitun –azkenaldian ikusi den bezala–". Eta babes zabala jaso zuen ekinbideak. Horri lotuta, antolatzaileek aitortu dute ez zutela "horenbeste jende" espero. Beraz, "pozik" agertu dira aldarriak izandako babesarekin: "Plazera da hau horrela ikustea".

leek aitortu dute ez zutela "horenbeste jende" espero. Beraz, "pozik" agertu dira aldarriak izandako babesarekin: "Plazera da hau horrela ikustea".

Ibilbidearen erreposoa

Besteak beste, agerraldian, Fan Hemendik eragilearen ibilbidea ekarri zuten gogora, atzera begirakoa laburbiltzen duen bi-

deoaren bidez –2011n sortu zen eragilea–. Eta, horretan geratu barik, Altsasuko gazteen auziari egindako kritika zekarren ikus-entzunezkoak: "Euskal Herriko muntaia judizial eta polizialen kontua gauza berria ez bada ere, alarma guztiak piztu zituen Altsasuko hainbat gazteren kontrako sarekadak. Epai-keta bukatuta, bere horretan dirau kartzela zigor zentzugabeak eta neurrigabeak" –hala zioen bideoak–.

Era berean, aldarrikatu dute Guardia Zibilaren presentziak ez daukala "inolako zilegizko justifikaziorik". Hori horrela, Fan Hemendik Eguneke ekin-tzetan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek, "inoiz baino babes zabalagoa izan dezan". Esan moduan, triki-poteoarekin hasiko dute eguna –12:30ean–. Eta, bazkaldu ostean egingo dute protesta ekimena –19:00etan, plazatik hasita–. Egunari bukaera emateko, ostera, kontzertuak antolatu dituzte –manifestazioa amaitzean hasiko dira horiek, unibertsitate alboan–.

Bazkarirako txartela

Bestetik, antolatzaileek jakinarazi dute dagoeneko salgai ditzutela Fan Hemendik Eguneke bazkarirako txartelak –Oñatiko Ona eta Arrano tabernetan eskura daitezke–. 10 euro ordaindu beharko dute langileek; eta, 6 euro, langabeek. Aurtengoan, azokan egingo dute bazkaria.

Hurrengo ikasturtera begira jarria da UNED-Bergara

Ohiko ikasketa eskaintzez aparte, Genero Ikasketan masterra egiteko aukera egongo da aurrerantzean

I.O. DEBAGOIENA

Datorren ikasturtera begira, hitzaldi informatiboa antolatu du asteon UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuak: heziketa zentroko arduradun eta koordinatzaileak izan ziren bertan, ikasturte berrira begira eraikitako heziketa programa aurkezten.

Eta berrikuntzarik ere iragarri dute: Genero Ikasketan masterra. Horrekin batera, besteak beste, gogorarazi dute psikologiaren, zuzenbidearen eta kriminologiaren bueltako ikasketak ditzutela eskaintzen artean. Hain zuzen ere, arreta berezia jarri dute azken horretan; eskaintzen den hirugarren urtea izango da.

Era berean, matrikulazio epeak eta bideak iragarri dituzte –informazio hori haren webgunean dago eskuragarri–. Eta 943 76 90 33 zenbakira dei eginez edo info@bergara.uned.es era idatziz ere eskura daiteke informazioa.

HELDUEN HEZKUNTZA
"Berak bezalako pertsonak prestatzen ditugu".

Etorri informatzera eta bideratuko zaitugu!

Irizar Jauregi
berpizkundeko katedra
XVII. mendea

Bergara, Irizar Jauregia, Barronkalea 33. Tel.: 943 76 44 52
Oñate: Larrana Institutua, San Lorenzo auzoa. Tel.: 943 78 35 77
Sorauluze Ballegetan 18. Tel.: 943 75 30 17

Doakoa eta ikastetxe publikoen berme guztiekin.

Ezagutu gure eskaintza!

**Maiatz Ramiro (19 urte),
Ikaslea, Bergara.**

En mian heziketa Berriakoa Institutuan, berregatik Heziketa Eskolan matritulatu nintzen guri mailakoarrera proba prestatzeko. Oro gutxiarekin ez nahi Heziketa Eskolan eta zainera eskaintza garrantzitsua del. Oñate osan arituko guri mailako ziklo bati buruz egingo del.

**Gabika Esparza (39 urte),
Langilea, Bergara.**

Bigarren Heziketa graduatua lortu nahi Heziketa Eskolan. Hurrengo ikasturtera guri mailakoarrera proba prestatzeko animatu nintzen Heziketa Eskolan bertan. Gaur egun "Fabricación metalúrgica" graduatua prestatzen ari naiz eta "Diploma" guri mailakoarrera prestatzeko animatu nintzen Heziketa Eskolan bertan. Gaur egun "Fabricación metalúrgica" graduatua prestatzen ari naiz eta "Diploma" guri mailakoarrera prestatzeko animatu nintzen Heziketa Eskolan bertan.

18 urte baino gehiago badituzu, ez laga aukera pasatzen, Atera ezazu Bigarren Hezikuntzako graduatua eta zabal itzazu trebatzeko eta lana topatzeko aukerak.

GOI MAILAKO ZIKLOETARA sartzeko prestakuntza. INGELESA, FRANTSESA, INFORMATIKA, GIZARTE ZIENTZIETAKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK



Berrikuntza sozialari buruzko jardunaldien egitaraua, Garaia Berrikuntza Gunean. IKER OÑATE

Berrikuntza sozialerako oinarria eraiki guran

'Berrikuntza soziala tokiko garapenean' izeneko jardunaldiak egingo dituzte uztailaren 2an, Garaia Berrikuntza Gunean –Arrasate–. Oro har, nazioarteko ereduak izango dituzte jorragai. Eta Debagoieneko berrikuntza plataformaz ere jardungo dute

Iker Oñate DEBAGOIENA

Ibarreko berrikuntza sozialerako oinarria eraikitzen dihardute Bagarak eta Agirre Lehendakaria Centerrek. Eta, hain justu ere, *Berrikuntza soziala tokiko garapenean* izeneko jardunaldiak antolatu dituzte uztailaren 2rako. Egun osoko ekintza sorta dute antolatuta ordurako –11:30 eta 18:00 artean

egingo dute–. Eta Garaia Berrikuntza Guneako Udalaiz auditoriuma izango dute solaserako leku. "Berrikuntza sozialaren bueltan nazioartean diren zenbait esperientzia ekarri gura ditugu bertara. Nolabaiteko oinarria izateko", azaldu du Bagarako Arkaitz Biainek.

Horren harira, berbaldiz beteta dute egitaraua. Besteak

beste, Montrealgo, Peruko, Mozambikeko eta Indiako esperientziak ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Eta, ostera, hitzaldiak eskaini dituztenen mahai-inguruarekin emango diete bukaera egunari. Bestetik, antolatzaileek jakinarazi dute uneko itzulpen zerbitzua egongo dela eskuragarri –euskara, gaztelera eta ingelesa–.

Ibarreko berrikuntza plataforma Eta, era berean, berbagaien artean da Debagoienez martxan jarri gura dute berrikuntza plataforma. Hain zuzen ere, horixe bera dute jardunaldietako lehen hitzordu –Bagarako Aritz Otxandiano eta Agirre Lehendakari Centerko Gorka Espiau izango dira hizlariak–. "Gero eta indar handiagoa hartzen ari den kontzeptua da. Eta, gure ikuspegitik, marko interesgarria eskaintzen du gizartea eraldatu gura duen mugimendu bat garatzeko –XXI. mendeko baldintza kultural eta sozialetan, beti ere–", argitu du Otxandianok.

Hain zuzen ere, bailarak dituen erronka nagusiei eskualdeko eragile ezberdinen artean erantzuna emateko "lankidetzako sistema iraunkor bat" eraikitzeko helburua du berrikuntza sozialak. Eta martxan jartzeko beharrezko diren harremanak, esperientzia-ezagutzak... lortu ostean ekingo diote egitasmoari –aurreikuspenen arabera, 2018 bukaeran–.

Bestetik, Espiauren ustez, berrikuntza sozialaren egitasmoa "aberasgarria" izango da Debagoienarendako: "Gizartearen beharrei, kezkei eta aukerei erantzuna emateko baliabide komunitarioa den aldetik, ibarrari baliagarri izan dakioko etorkizuneko erronkei eragile guztien artean erantzun ahal izateko. Elkarlana du oinarrian".

Izen-ematea, zabalik

Egitaraua iragarrita, zabalik dute izen-ematea –ekainaren 27ra bitartean dago horretarako aukera–. Gura duenak www.bagara.eus webgunean eman dezake izena. Eta ez da ezer ordaindu beharrik izango –bazkaria ere sartzen da izen-ematean–.

'Berrikuntza soziala tokiko garapenean'

Berrikuntza soziala erdigunean, nazioarteko esperientziez jarduteko egitaraua antolatu dute. Zabalik dute izen-ematea.

Uztailak 2

• **11:30-12:00**

Solasaldiak:

Debagoieneko berrikuntza plataforma, Montrealeko esperientzia eta Peru eta Mozambikeko esperientziak.

• **14:00-15:00** Bazkaria.

• **15:00-18:00**

Solasaldiak:

Garapenerako berrikuntza sozialeko plataformak, Indiako esperientzia eta parte hartzaileen mahai-ingurua.

Oharra: itzulpen zerbitzua egongo da hitzorduotan.

"GERO ETA INDAR HANDIAGOA HARTZEN ARI DA BERRIKUNTZA SOZIALAREN IDEIA"

ARITZ OTXANDIANO, BAGARA

"ERRONKEI ERAGILE GUZTIEN ARTEAN ERANTZUTEKO BALIOKO DU EREDUAK"

GORKA ESPIAU, AGIRRE LEHENDAKARI C.

Gazte, barrutik eta kanpotik

Medikuntza estetikoko unitatea

Hobetu zure silueta eta azala, kirolanotik pasatu barik.

- Botoka.
- Azido hialuronikoa.
- Mesoterapia lipolitikoa.

Ospitale batek eskain dezakeen garantia eta segurtasun osoarekin. Eskatu hitzordua: quironsalud.es/portal-paciente/es

Quirónsalud Vitoria Ospitalea
Esperantza kalea 3
01002 Gasteiz
900 250 255

Quirónsalud Pazientearen Ataria
Zure enaitzak lineako lortzen ditu eta zure alpuak kudeatzen ditu quironsalud.es-etan edo gure App-ean.

Hospital **quirónsalud**
Vitoria

quironsalud.es

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealedea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosarti J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

"Egun borobila izan zen domeka, pozik gaude"

Gure Esku Dago dinamikako Debagoieneko kideen esanetan, "aurreikuspen eta helburu guztiak" bete ditu pasa den domekan egindako giza kateak; azken uneko izen-emateengatik, 5.500 debagoiendar baino gehiago izan ziren katean

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Biharamun eta aste gozoa eduki du Gure Esku Dago dinamikak, eta domekako giza kateak eman zuena positiboki baloratu dute dinamikako Debagoieneko arduradunek, "aurreikuspen eta helburu guztiak" bete direla azpimarratuz. Dinamikako kide Aitor Erañak eman ditu Debagoieneko herritarren parte-harztearen datuak: Antzuolatik, 370; Bergaratik, 1.300; Elgetatik, 110; Aramaiotik, 250; Aretxabaletatik, 900; Arrasatetik, 1.590; Eskoria-tza eta Gatzagatik, 432; eta Oñatitik, ia 900.

Erañak azaldu duenez, egun "alaia eta lasaia" izan zen Malzaga ingurura hurbildu zirentzat. "Oinez, bizikletan eta autobusez joan ginen Bergaratik, eta autobusez Elgetatik eta Antzuolatik. Garaiz iritsi ginen, eta goiza giro ederrean igaro genuen, musika, antzerki eta bestelakoez gozatuz. Eguraldia ere ederra egin zigun. Batzuentzat, bero gehiegi, agian, baina, orokorrean, guztia oso ondo joan zen, egun borobila izan zen. Guk, gainera, zorrea izan genuen eta etxetik gertu tokatu zitzaigun gure tartea. Bazkalordurako etxean zeuden batzuk. Beste asko Eibarrera joan ginen eguna biribiltzera".



Debagoiendarrak irribarretsu Zigoitian, giza katean. OIHAN LOITI IRAOLA

Zigoitian ere "giro bikaina"

Jasone Giraldo GEDko kidea "pozik" azaldu da egunak emandakoarekin. "Arrakasta itzela eduki zuen giza kateak. Herritarrek laguntza handia eman ziguten antolatzaileoi, pazientzia handia eduki zuten autobusei itxoiteko orduan. Gauzak ondo egindako sentsazioarekin gaude, eta herritarrek hala transmititu digute", dio. Anekdotak "hunkigarri" bat aipatu gura izan du Giraldo. "Arrasatera itzuli ginenean, neska gazte bat hurbildu zitzaidan besarkatzera eta

eskerrak ematera, malkoak begietan zituela. Esan zidan bera ez dela Arrasaten bizi eta ezin dugula imajinatu berarentzat zer suposatu zuen giza kateak. Oso hunkigarria izan zen momentu hura, niri ere malkoak atera zitzaizkidan".

Xanti Ugartek, Oñatiko arduradunetako batek, nabarmendu du jendea "lan egiteko eta laguntzeko prest" egon zela une oro, eta giro "paregabea" igaro zutela goiza. Horrez gain, adierazi du "hurrengo pausoa egiteko indartuta" atera zirela.

"Helburuak bete dira, ezin zitzaion gehiago eskatu ekainaren 10ari"

ANGEL OIARBIDE GURE ESKU DAGO-KO BOZERAMAILEA

Ekainaren 10a mugari izango dela seguru dago Oiarbide.

Zein sentsazio utzi dizue domekako giza kateak?

Oso sentsazio ona geratu zaigu, eta, nire ustez, gehiengoari geratu zaio sentsazio on hori. Ekainaren 10ari ezin zitzaion gehiago eskatu. Maila goreneko hiru helburuak bete ditu: erabakitze eskubidearen baitan euskal gizartea kohesionatzea; eragile ezberdinen konfiantzarekin osatutako Herritarren Ituna Eusko Legebiltzarrerara

eramatea, arduraz eta heldutasunez; eta giza kateak izan duen oihartzun mediatiko nabarmenena nazioartean.

Azken hori bereziki azpimarratzeko da, ezta?

Bai. Nazioartean oihartzuna izatea, askotan, ez dago norberaren esku, eta, kasu honetan, ekainaren 10a oso

garrantzitsua izan da kualitatiboki, baita mugari ere. Geroz eta osagai gehiago daude ziklo berri bat ireki ahal izateko, eta aro berri hori beste parametro batzuetan eman behar da, demokrazian oinarrituta eta herritarren borondatearen gainean eraikita.

Ziklo berri bat irekitzear dela esan duzu. Eta orain zer?

Bost urte hauetan eredu bat bildu eta borobildu dugu, eta konpromisoa jarri. Hau ez da hemen bukatzen, noski. Zerbait egitekotan, hasi egingo da, eta beste sendotasun batekin, gainera. Aurrera begira ditugun erronkak dira zenbait herritan galdeketa egitea. Azaroaren 18an Donostian eta Irunen egingo dituzte, eta galdeketa prozesuak aurrera segitzen du. Bestalde, hausnarketa egitea tokatzen zaigu, baita barrura eta kanpora begirako lanketa bat ere. Ekainaren 10a lagungarri izango zaigu, tranpolin modura, demokraziaren mezu honekin gure mugez kanpo ere joateko.

Diozue 2019a gako izango dela erabakitze eskubidearen aldeko urratsak egiteko orduan.

Hala da. Hau guztiau momentu berezi batean gertatzen ari da; eztabaida instituzional bat gertatzen ari da adosteko zein marko politiko eta juridiko ezarri. Ez da nolanhiko eztabaida, eta herritarrok ezin gara eztabaida honetatik urrun egon.

Legebiltzarrean aurkeztutako eskari hauek Nafarroako parlamentura eramateko asmoa ere erakutsi duzue.

Zalantzarik gabe. Euskal herritarren artean sintonia bat sortzeko sortu ginen. Euskal herritarrok hiru erabakigune ditugu, eta badakigu autogobernu ponentziaren gainera eztabaidak beste bi erabakiguneetan ere eragina izango duela etorkizunean.



MIREN ARREGI

BATEKIN HASTEN DA BETI

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

EKAINAREN 21EAN, EGJENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
DROGAK ETA NERABEAK. ZER DABIL GERTATZEN?

goiena
Zu hemen zaude.



GUTUNAK

Mila esker Oñatiko herriari eta beste askori!

JERARDO ELORTZA
OÑATI

Ez dakit nondik hasi. Txundituta utzi nauzue. Duela bi hilabete pasatxo, omenaldiaren asmoa jakinarazi zenidatenean ere, hitzik gabe, berba barik geratu nintzen. Eta orain, aste luze, oparo eta hunkigarri hau igaro ondoren, zer esan erakutsi didazuen adiskidetasuna eta maitasuna eskertzeko? Ezkutuan eta sekretuan antolatu duzue urtebetean zehar, dirudienez, nire meritu apalak goraiatzeko *asmaziño* eder hau. Dozenaka pertsona, talde eta erakunde inplikatu duzue amets polit hau gauzatzeko. Ez duzue lan makala hartu!

Ez nuen uste herrian eta inguruetan hain maitatua eta estimatua nintzenik. Izan ere, nik, gehienok bezala, akatsak, gabeziak eta faltak baitituz, eta ez gutxi. Ondotxo konturatzen naiz. Ez dut horiek aitortzeko eragozpenik eta norbaiti kalte egin badiot barkamena eskatzeko. Baina horiek alde batera lagata, nire alderdirik onenak hartu dituzue kontuan. Ezin dizuet egoki adierazi zer-nolako poza barneratu didazuen zuek, antolatzaileok eta, alde edo moldez, omenaldian parte hartu duzuen guztiok. Itxura batean, karga bat izan da niretzat, baina zama arin eta atsegina. Ni apur bat gazteago sentitzea lortu duzue.

Beraz, denoi eskerrik beroenak ematea besterik ez zait gelditzen. Ez noa izenik aipatzera, zerrenda luzeegia osatuko lukeelako eta hartarako orrialde osoa beharko nuke eta. Guztiok zaituztet gogoan: senide, adiskide, herritar, elkarte, erakunde, komunikabide eta bestelakoak, Oñatikoak, Debagoienekoak eta Euskal Herrikoak. Besarkada estu bat den-denoi eta mila-mila esker!

Bizir!

JUXE ZUAZUA ETA TXEMA CRESPO
ARETXABALETA

Joan zan larunbata emozioz betetako eguna izan zan, emozioz betetakua eta inoiz ahaztuko ez doguna. Ez dakigu sentitu ginuena biher bezala adierazteko gauza izango garen, baina ahaleginduko gara.

Lehenengo gauzia poza, poz izugarria Mikelek hainbeste lagun on itxi zituela ikustian, eta baita harrotasun puntutxu bat, seme jator eta maitatu bat hazi ginuelako.

Baita penia be, bihotza erdibiketan dauen horietakua, Mikel ez dauelako gure artian. Baina zapatuan bizi ginuenak argi itxi dusku han alkartu ginen guztion barruan daroiegula bere zatitxo bat, bakoitzak beria, bere bizipen eta oroitzapenekin.

Eta esker ona. Ideia euki zinuendako, antolaketan eta lanien ibili zitzenendako eta baita antolatutako ekintzetan parte hartu zinuendako.

Maitasun guztiaz egin zinuelako eta primeran urten zalako. Zorionak! Benetan esaten deutzuegu ez daukagula hitzik egin zinuena eskertzeko.

Buketaketa, hamar hilabete hauetan gure aldamenian egon zarienoi be eskerrak emutia gure geuke; batez be, etxekuei, kuadrillakuei eta Mikelen lagunei. Gu babestiagaitik, gure ardurak arintziagaitik, zuen denboria eskeintziagaitik, gure makalaldixak errespetetziagaitik, gurekin negar egitiagaitik, baina baita errudun sentidu barik barre egitiagaitik be. Bihotz-bihotzez, mila esker.

Errefusa, hondakin arriskutsu bihurtu

JOSU GARITONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Hori egiten du errauskailu batek. Normaltzat hartu behar dugu? Zaborteziak errefusez beterik daudela argudiatzen dute errauskailuak eraikitzeo. Helduko da eguna hondakin arriskutsuz beteko direla zaborteziak; ondorengo belaunaldiek konpon dezatela guk txartu dugun arazoa?

Arbasoengandik datorren San Juan suen ohitura eguneratu behar da, datozen belaunaldiei itxaropena emateko; zaborrak ondo kudeatzeko kontzientzia zabaltzeko; ez erosi ezin dena berrerabili, birziklatu eta herri bakoitzeko San Juan suetan erre. Kontsumo arduratsua!

HANDIK ETA HEMENDIK

Huts erretorikoak

JOKIN LABAIEN

HTTPS://LABUR.EUS/QRQLC
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Hutsaz aritu, ari eta ariko gara. Lehen, orain, eta, ezinbestean, gerora ere.

Orduak eta orduak eskaini dizkiogu —igorleek adina hartzaileek— telebistan marrazki bizidun bateko pertsonaiak diruditen bi handi-mandi horien arteko negoziari. Eguna iritsita, asper-asper egin gara haien arteko esku ematearen eta irribarre behartuen irudiei begira. Hitzartua zer den, zertarako den, beharrezkoa den, beteko ote den ebatzi behar ondoren, adituak balira bezala, bagina bezala. Marrazki bizidunetako pertsonaien hitza eta sinadura aintzat hartzekoak direlakoan. Esango dit batek baino gehiagok baietz, haien mugimenduak nik uste baino garrantzitsuagoak direla. Ados nago. Baina nonbait irakurri dudana esaera gordeko dut niretzat: astelehenekoa, izatekotan, akordio erretorikoa dela. Hutsa gertuago du, mamia baino. Erretorikoak, beste behin, errealitatea jan du, gure laguntzarekin.

AEBak eta Ipar Korea gutxi ez, eta Errusiara begira jarriko gara gaur gehienok, atzo despistatu eta hala egin ez baguenen. Ez soilik epizentroa Asteasun ere baduen eta espainiarren buruhauste

handi bilakatu den albiste sortagatik. Bihar hasiko da haurtzaroan poz, arreta eta ilusio iturri zitzaidan gizonezkoen futboleko Munduko Kopa. Atzo egunkari honetan irakurri ahal izan genuenez, aurreikuspenen arabera, partidek 3.500 milioi ikus-entzule izango dituzte munduan barrena. Ekitaldiak dirua barra-barra mugituko du, ostera. Gurean, Mediaset etxearen kateetan eta TF1 katean ikusi ahalgo da. Mediasetek —heldu gogor— partida denak eskainiko ditu irekian, 64, Tele5, Cuatro eta Be Mad-en. Erotzekoa, bai. TF1en, horietatik 28 ikusi ahalgo dira irekian. Gainontzekoetarako, ordaindu egin beharko da. Gehitu ordu kopuru horri saio berezi, albiste, erreportaje, partiden aurreko eta osteko, eta beste. Pentsa, erretorikaz ez bada ere, zenbat hitz egingo zaigun arinkeriez eta epika nahiaz, munduak eta gure buruek baloiaren forma dutela aitzakia hartuta. Hutsaren hurrengo bihurtuko dira mamia duten asko eta asko, hilabetez gutxienez.

Ez uste, niri ere ahaztu egingo zait, egun batzuetan, adibidez, hau idazten ari naizela noraezean doan itsasontzi *madarikatuarena*. Nik ere elikatuko dut kontraesan globala hainbat partidari, irekian, begira. Espainiarenei ere, ziur asko. Ni ere, nola ez, hutsaren parte bainaiz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

AITOR BIAIN BIDARTE

Euskal mitologia, gure historia

Ez da gauza erraza gaur euskal mitologiak hitz egitea. Ezer ziurrik esatea, behintzat.

Baina, lehendabizi: badakizu zer den mitologia? Denok entzun dugun zerbait da, baina, norbaiti galdetuz gero, jakingo al luke definitzen? Erantzuna erraza da: mitologia mitoen jakintza da. Baina zer da, izatez, mitoa? Lehen erlijioa? Egia da mito gehienetan jainkoak eta jainkosak aipatzen direla, baina ez era berean.

Erljioen helburua da gizonari Jainkoarenganako edo jainkoenganako bidea erakustea; mitoek, osterak, ez. Mitoak nondik edo handik etorritako fabulak edo kondairak dira, eta, neurri batean, gizateriaren eta jakintzaren eboluzioa azaltzeko erabili izan dira. Horregatik, esanahi handiko narrazioak dira, sinbolikoak eta anonimoak, noski.

Eta Euskal Herriak ere baditu pertsonaia mitologiko asko, 25etik gora –Tartalo, Basajaun, Basendere, Urtzi, Sugaar, Akerbeltz...–.

Eta pertsonaia horien kondairek urte askotan tradizio asko sortu

AKER BAT HAZTEKO OHITURA DAGO, ETXE-ABEREAK BABESTUKO DITUELAKOAN

dituzte familia askotan.

Akerbeltz aker beltz baten itxurako jainua da, adibidez. Etxe-abereen zaindari eta sorgin nahiz aztien buruzagi azaltzen da. Eragin ona du bere babesera utzitako animalien, eta abere horiek sendatzeko gaitasuna ere badu. Horregatik, aker bat hazteko ohitura dago zenbait baserritan, etxe-abereak babestuko dituelakoan.


Edo nor da Olentzero? Abenduaren 17a eta 23a bitarteko egunei Frantzia *Les Oleries* esaten zieten; hau da, *O* jaien denbora edo *Olentzaro*. Kondaira zaharrek Olentzero azken jentila dela aipatzen dute.

Ziur al gaude euskal mitologiaren inguruan, gure mitologiaren inguruan, ezagupenak ditugula?

Euskal mitologia gure historia da. Eta horretarako aukera paregabea izango duzu Kirrukuako zelaian, ekainaren 29an, Ganbara Faktoriaren eskutik. Ez galdu aukera magiko hau!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Eder agertzeaz

MIREN AMURIZA

[HTTPS://LABUR.EUS/CZYRU](https://labur.eus/czyru)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Hirian nabilenean jendeari lotsagabeki begiratzeko lizentzia hartzen dut (herrian ez bezala, debalde delakoan-edo).

Banoa asteen Bilboko Areatzako zubian behera, eta non erreparatzen diodan Arriagari bizkarra emanda selfie bat egin guran zebilen bikote bati.

Neska ez zen gustura geratzen antza, hiru edo lau argazki atera baitzituzten elkarren segidan.

Grazia egin zidan aurpegiera eta postura

segundotik segundora zelan aldatzen zituzten ikusteak (zubiaren bestaldera ere begiratu nuen une batez, ea baten bat urrutiko kontrolagailuarekin aginduak ematen ari ote zitzairen edo zer): irribarretsu eta tente, kopetilun eta sorbaldak jausita, berriz irribarrez, berriz uzkur...

Eta mugikorrarekin, argazkiak ateratzen ari garelakoan, parekoak bideoan hartzen ditugunekoez akordatu nintzen; eder agertu gura dugunetan egiten ditugun keinu artifizialik txikiak ere nabarmentzen dituzten grabazio horiez.

Jarrera kontua baita edertasuna, bere alde on eta ez hain on, ez ezaugarri multzo unibertsal bat.

Moldagarria izan liteke eta, era berean, luzaroan performatzeko nekagarria (altxa dezala eskua, etxeraino iritsi ezinda, igogailuan bakeroen botoiak askatu izan ez dituenak).

Bazitekeela, Areatzan, bikote hura distantziatik mugiarazten zuen norbait egotea, alegia; kontrolerako mekanismo bat gehiago baita gaur egun aparientzia.

Batik bat andrazkoontzat.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Zain gaude Pedro Sanchezek zer egingo duen ikusteko"

ISABEL SALUD UNIDOS-PODEMOS TALDEKO DIPUTATUA MADRILEN

Eneko Azkarate MADRIL

Isabel Salud (Sant Climent de Llobregat, 1961) Ezker Anitzako koordinatzaile orokorra da eta 2016a ezker parlamentaria Espainiako Diputatuen Kongresuan, Gipuzkoatik, Unidos-Podemos koalizioa ordezkatuz. Bergaran bizi da 1990eko hamarkada ezker.

Hurrengo hauteskundeetan Podemosekin eta Equorekin batera aurkezteko erabakia ez da begi onez ikusi Espainiako hainbat lurraldeetan...

Hiru aldeok argi geneukan ez dugula beste biderik elkarrekin aurkeztea baino. Lurralde batzuetan gorabeherak izan ditugu, baina konponbidean daude. Pertsonon izaerari lotutako kontuak dira, harago ez doazenak.

Unidas izenpean eta gainerako alderdien siglekin batera aurkeztuko zarete...

Bai; oraingoa, Unidos-en ordez Unidas jarri nahi izan dugu, aurreko



Isabel Salud, Bergarako udaletxearen aurrealdean. GOIENA

hauteskundeetan, Unidos-Podemos bezala aurkeztu ginenean, eztabaida sortu zelako. Generoaren gaia aintzat hartu eta keinu bat egin nahi izan dugu Unidas-ekin.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan formula horrekin zoazte hauteskundeetara? Estatu mailan hartutako erabakia da, baina, lurraldez lurralde, tokian tokiko errealitatera egokitze

aukera emanez; malgutasunez jokatuko dugu errealitate ezberdinen arabera. **Datorren urtean udaletan eta foru aldundietan, ezkerreko alternatibarik eraikitze** aukerarik ikusten duzue?

Beti gaude aukera berriei irekita, jakin badakigulako gauzak egun batetik bestera alda daitezkeela. Eusko Legebiltzarrean saiatu ginen aukera hori aztertzen, aritmetikoki posible delako, PSE-EErekin eta EH Bildurekin batera. Ez zuen aurrera egin. Sozialistek eta EH Bildukoek EAJrekin hasi zituzten negoziatioak eta bertan behera geratu zen aukera hori.

Zentsura mozioa eta gobernu aldaketa; nork esango zuen duela hilabete...

Gurtel-en sententziak eta egoera jasangaitzak iraulketa eskatzen zuen. Horregatik erabaki genuen babestea PP agintetik kentzeko zentsura mozioa. Premiazkoa zen: ustelkeria, bidegabekeria soziala, Katalunia, eskubide demokratikoen galera...

Gustuko duzu Pedro Sanchezek osatu duen gobernu?

Izenez harago: *Mozal* legea, lan merkatuaren erreforma, Konstituzioaren 135. eta 155. artikulua... horiekin zer egingo duen zain gaude.

HAU BE BADOGU!

Giza katea, arrakastatsu sare sozialetan ere



Gure Esku Dago-k bultzatutako giza kateko aldarrikapenak traol erabilienak izan dira asteen. Sarean, aldarrikapenekin bat egiteagatik Athleticcek jarritako txio honek txalo eta kritika asko jaso zituen:

@athletic_eus: "Athletic Clubek bat egiten du erabakitze eskubidearekin. #GizaKatea #BasquesDecide @GureEskuDago".

Julen Lopetegiren kaleratzea



Munduko Txapelketan Espainiak debuta egin baino bi egun aurretik kaleratu dute entrenatzaile gipuzkoarra, Real Madrilek datorren denboraldirako fitxatu duela jakinarazi ostean:

@aritzarre: "Madrilek Lopetegui kaleratu du. Edo alderantziz...".

@norcoreano: "Julen Lopetegui, Kultura eta Kiroletako ministro berria" (itzulita).

'Aquarius' itsasontzia, 'trending topic'

Mediterraneo itsasoan 629 etorkinez beteta gelditu den itsasontzia hizpide izan da sare sozialetan. Azkenean, Valentziara jo du ontziak, Italiak eta Frantziak ez baitute ontzia hartu nahi izan:

@ikerbizkar: "Ez genuke ahaztu behar euskal herritarrek migrante eta errefuxiatu izan garela, gosetea ekiditeko edo gerratik ihesi. Euskal herritar askoren seme-alabak tardean".

ITURRI ONETIK

Beñat Labaien, Realera

Beñat Labaien futbol entrenatzaile bergararra (29 urte) Realeko entrenatzaile Asier Garitanoren talde teknikoko kide izango da. Ingalaterrako Leeds United taldeko *staff* teknikoko kide izan da, haiekin zuen kontratua eten eta Realarekin fitxatu duen arte. Realean, analisi taktikoen arduradun izango da. Aurretik, Espainiako Futbol Federazioan, Atletico Madrilen eta Real Madrilen aritu da, harrobiko taldeetan, eta baita Elxen ere, Morientesekin batera, Ingalaterrara joan aurretik.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-06-12

Arizmendiarieta fondoa aurkeztu zuten Arrasaten

Arrasateko kooperatiba mugimendua ulertzeko fondo dokumental "ezinbestekoa" aurkeztu zuten Kulturaten, 2008ko ekainaren 12an. Jose Maria Arizmendiarieta izena hartu zuen fondoak. Sorreran, 11.000 artxibo jasotzen zituen webguneak: oharra, argazkiak... Eusko Ikaskuntzaren ekimenez sortu zen fondoa eta aurkezpenean izan ziren Eusko Ikaskuntzako buruak eta Arrasateko kooperatiben mugimenduaren sortzaileak.





Elena Ibarondo, Maria Ubarretxena, Jon Anduaga, Amaia Azpiazu eta Jon Cenzallos. MIREIA BIKUÑA

Radarretako dirua, DYA eta Gurutze Gorriarentzat

Azaroan jarri zituzten radarren bidez lortutako dirua DYAr eta Gurutze Gorriari emateko erabakia iragarri du asteon Arrasateko Udalak. Eta, horrekin batera, horien eraginari buruzko zenbait datu jakinarazi ditu. Oro har, baikor dira udal ordezkariak

Iker Oñate ARRASATE

Herriko radarren bidez jasotako dirua DYAr eta Gurutze Gorriari emateko asmoa iragarri dute asteon udal ordezkariak. "Hasieratik esan genuen isunetatik jasotako dirua ez zela Udalarendako izango. Oraingo honetan, Gurutze Gorriak eta DYAk jasoko dute dirua", esan du Maria Ubarretxena alkateak. Hain zuzen ere, urte bukaeran banatuko dute dirua -100 eta 600 euro arteko isunak jarri dituzte orain artean-. Bestetik, radarren eraginari loturiko zenbait datu jakinarazi dituzte.

Hori horrela, Udalaren ekinbidea eskertu gura izan dute DYAr eta Gurutze Gorriko ordezkariak. Eta jada badakite zein egitasmorendako izango den jasotako dirua. Besteak beste, garraio berezietan, errefuxiatuen kanpainan, umeendako jostailu bilketan eta bestelakotan-irailean martxan jarriko dituzten hainbat-erabiliko du dirua Gurutze Gorriak -hala

argitu du Elena Ibarondo ordezkariak-.

Eta, bestetik, ikastetxeekin lanean segitzeko asmoz dihardu DYAk -horretarako lagungarri izango zaio Udalaren ekarpena-. Tartean, bihotz-biriken suspertzeari buruzko ikastaroak eskaintzen ditu hezkuntza zentroetan. Eta, Jon Cenzallos ordezkariak azaldu duenez, Gipuzkoan 2.500 dira hori egiten ikasia duten ikasleak.

Radarren eragina

Arrasateko Udala, berriz, hasia da herrian jarririko hiru radarren eragina neurtzen. Eta jada eskura ditu Garibai etorbideko datuak. Udal ordezkarien ustez, "esangura handikoak" dira ho-

UDAL ORDEZKARIAK BAIKOR DIRA ORAIN ARTEAN LORTUTAKO RADARREN ERAGINEI BURUZKO DATUEKIN

riek: 190 isun jarri zituzten abenduaren 14tik urtarrilaren 11ra bitartean; eta bakarra, martxoaren 26tik maiatzaren 17ra artean. Bestetik, oraindik bukatu gabe dituzte Uribarriko eta Araba etorbideko datuen txostenak. Dena den, eman dute horietan lehenengoari buruzko xehetasunik: 130 salaketa atzeman zituen urtarriletik otsailera egindako neurketak. Bestetik, ekain bukaeran bukatuko dute bigarren neurketa-gaur-gaurkoz, 47 isun dituzte jarriak-.

Gauzak horrela, udal ordezkariak baikor dira orain artean lortutako datuekin. Alkatearen esanetan, bilakaerak "argi" erakusten du herritarrak abiadura murriztu beharraz jabetuak direla dagoeneko: "Segurtasunarengatik ezarritako neurria da, bereziki. Iaz, 89 istripu izan ziren herrigunean -harrapaketak izan ziren horietatik bederati-. Orain, datuek erakusten dute herritarrek kontzientzia handiagoz gidatzen dutela".



Oposizioko alderdietako kideak, martitzenean, prentsurrekoan. AMAIA TXINTXURRETA

Batzar Nagusiek "betoa" ezarri diotela salatu du oposizioak

Garraio publikoetan izandako "murrizketei" lotuta zuten egina Batzar Nagusira joateko eskaera

I.O. ARRASATE

Arrasateko oposizioak ezin izan ditu garraio publikoan izandako "murrizketak" Batzar Nagusietan salatu. Hala adierazi dute asteon egindako agerraldian -EH Bilduko, Baleikeko eta Irabaziko ordezkariak izan ziren-. Tartean, gogorarazi dute "murrizketen" kontrako 1.650 sinadura dituztela jasota Arrasaten.

Hala, Mugikortasun batzorde-rako -Batzar Nagusiak- agerraldi-eskaera zuten egina: oposizioko hiru kide joango ziratekeen bertara, sinadura bilketa eta zerbitzuaren "murrizketak" azal-

tzera. Ezezkoa jaso zuten, jada joana delako ibarreko ordezkariarik gaia azaltzera.

Hori horrela, EAJren eta PSE-EEren "jarrera hipokrita" salatu du oposizioak: "Gauza bat esan, eta beste bat egiten dute. Hemengo errealitatea azaltzeko aukera kendu digute".

Moziio bateratua

Moziio bateratua aurkezteko asmoa iragarri du oposizioak -Arrasateko Udaleko uztaileko osoko bilkuran aurkeztuko lukete-. Eta Batzar Nagusietara ere eroan gura dute hori.



MIKEL GUTIERREZ

Pentsiodunak, protestan

Protesta ekimenetan murgildurik dira pentsiodunak. Eta Arrasaten bada horren zantzurik. Gainera, ohiko dituzten elkarretaratzez aparte korrik egin izan da aste honetan -astelehena-: pentsiodunek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan. Ehunka herritarrek egin zuten bat protesta hitzorduarekin.

Biteriren monumentua, "dagokion lekura"

Arrasate Zientzia Elkartearen eskaria onartu egin du Udal Gobernuak, eta Biteriren estatua toki ikusgarriago batera aldatuko dute. Gaur egun, Alfontso X Jakintsua plazan dago, eta Biteri kalera aldatuko dute, Zaldibarrera bidean dagoen belardira

Xabi Gorostidi ARRASATE

Pedro Biteri filantropo arrasatearra aberats egin zen Amerikan meatzaritza negozioei esker. Baina pilatutako dirua sorterrian inbertitu zuen, nagusiki, eta haren aginduz eraiki ziren Biteriko Eskolak, Zaldibarko frontoia, Seber Altube plazako azoka-merkatua eta Zaldibarko dantza kioskoa.

Jakintza eta hezkuntza hedatzea zen Biteriren helburu nagusietako bat, eta eskola martxan jarri izanak asko lagundu zuen arrasatearren hezkuntza maila hobetzen.

AZEren eskaria

Arrasate Zientzia Elkarteko kideek duela bizpahiru urte eskatu zuten Biteriren omenezko estatua lekuz aldatzea. "Gure ustez, haren omenezko monumentuaren kokapena ez da egokia. Batez ere, ez datorrelako bat Biterik herriari egin dion ekarpen mailarekin. Hala, da-



Ezezagunek jarritako objektuak ditu aurpegian Biteriren estatuak. XABI GOROSTIDI

gokion lekura aldatzea eskatu genuen; bere izena duen kalera, eta toki ikusgarriago batera".

Lehen saiakera, duela 10 urte

2008an, Biteriren heriotzaren mendeurrenean, lehen saiakera

bat egin zen estatua lekuz aldatzeko. Ekimen haren bultzatzaile izan ziren Iñigo Arregi, Jose Mari Velez de Mendizabal eta Jose Maria Altuna, besteak beste, baina orduko Udal Gobernuak ez zuen lekualdatzea egin.



Kokaleku berria, ez oso urrun

Grupo San Juango Alfontso X Jakintsua plazatik Biteri etorbidera aldatuko dute. Irudiko belardiaren hasieran jartzea da AZEkoen nahia. "Estatua Biteriko Eskoletara begira jartzea nahi dugu, belardiaren hasieran, Monte taberna dagoen tokirantz begira".

Hirugarren kokalekua

Pedro Biteriren izena daramaten kaleak daude Arrasaten, Erreterian, Hernanin, Hondarribian eta Pasaian, eta Mondragon Unibertsitateko ikasle egoitzak ere haren izena du. Arrasaten, kaleaz gain, haren omenezko estatua ere jarri zuten.

Lehenik eta behin, 1911n hark eraikitako eskoletako belardian kokatu zuten –gaur egungo Biteri plazan–. Baina 1974an, BBVA gainean dagoen etxe-orratza eraikitzen hasi zirenean, Alfontso X Jakintsua plazara lekualdatu zuten. "Garibaiko eskolak bota behar izan zituzten etxe-orratza eraikitzeko, eta, hain zuzen ere, Biteriren estatua lekuz aldatu zuten", azaldu dute AZEko kideek. Hala, hirugarren kokapen aldaketaren atarian dago Pedro Biteriren omenezko monumentua.

Duela 10 urte eten ziren eskolak Mesedeetako Andra Marin

Orduan, hamabi moja geratu ziren eraikinean, baina, gaur egun, bost dira bertan jarraitzen dutenak

X.G. ARRASATE

2008ko ekainean eman ziren azken eskolak Mesedeetako Andra Mari ikastetxean. Arrazoi ekonomikoengatik hezkuntza jarduna etetea erabaki zuten.

Azken urte hartan, 160 ikasle zituen zentroak, eta horietako gehienak ikastetxe publikoetara joan ziren.

Hezkuntza jarduera eteteaz gain, eskolako Mesedeetako Amaren elizan mezak emateari utzi zioten. Edo, hobeto esanda, gurtza-zentro moduan erabiltzeari utzi zioten.

Gaur egungo egoera

2008an Mesedeetako hamabi elkartekide geratu ziren eraikinaren erabiltzaile moduan. Baina momentu honetan bost moja bakarrik geratzen dira.

Ana Mari Plazaola da horien arduraduna, eta, azaldu duenez, gazteenak 66 urte ditu eta zaharreneak, 90.

Mesedeetako mojak 1892az geroztik daude Arrasaten, eta orduko misio berberarekin ari dira lanean gaur egun. "Behar tsuei laguntzea izan da betidanik gure zeregina. Gaixoak, umeak,



Mesedeetako Andra Mari ikastetxearen egoitza, Zerkaosteta kaletik ikusita. X.G.

elbarriak... Gaur egun, adibidez, etorkinekin dugu harreman handia", azaldu du Plazaolak. Bost lagunentzako eraikin handia dela eman dezake, baina gaur egun baditu beste erabilera batzuk.

"Tai txi eta biodantza eskolak ematen dira eraikin honetan. Eta duela bi hilabetetik hona, elikagai bankuko banaketarako eta biltegitratzeko erabiltzen dira bi gela. Sozialki mesedea egin badezakegu, gu pozik".

OHARRAK

Ludoteken festak

Gaur, festa bateratua egingo dute, 17:00etan, Monterronen –eguraldi txarra bada, Jokin Zaitegi plazan–, eta ekainaren 20an, ludoteka bakoitzeko azken festa egingo dute.

Hitzaldia

Bi urteko zigorra jaso duten Iruñeko auzipetuen kasuari buruz jardungo dute JLN Aske plataformakoek. Hitzordua, gaur, 19:00etan, Arrasateko gaztetxean.

1965koen kintada

Irailaren 22an egingo dute. Bertara joateko, 65 euro sartu behar dira kontu korrante honetan: ES76 3035 0055 17 0551058385.



Barra osteko gunean, paretak hezetasunez beteta daude eta hiru zentimetroko putzuak sortzen dira euria egiten duen aldirio. X.G.

Hezetasun arazoa konpontzeko eskaria

AGAKOk oharra helarazi du, asteon, besteak beste, gaztetxeko erakinak duen hezetasun arazoa azaleratzeko. Arazo "estrutural" horrek konponbidea behar duela azaldu dute, eta Udal Gobernutik esan du eurekin batzartzea aurreikusten duela

Xabi Gorostidi ARRASATE

Astlehenean, AGAKOk kideek oharra kaleratu zuten, udal langile batzuek gaztetxeko sukaldetan eta serigrafia tailerlean egindako esku hartze bat salatzen.

Oharraren abiapuntua hori izan arren, ohar berean, gaztetxeko eraikinak duen hezetasun arazo sakona ere aipatzen zuten. "Azken urteetan ugari egin dira eraikinean dauden itoginak, agertoki osteko gunea eta barra urez betetzen dira euria egiten duen aldirio".

Bi gune kaltetuenak

Barran eta agertoki osteko gunean hezetasun arazoak agerikoak dira. Paretetan hezetasun marka handiak daude, eta euria egiten duenean ur-putzuak sortzen dira. "Barra osteko biltegiak, adibidez, hiru zentimetroko sakonera duten putzuak sortzen dira. Bertan daude hozkailuarentzako eta ordenagailuarentzako kableak, eta uraren presentzia hori oso arriskutsua da",

azaldu diote AGAKOk kideek GOIENARI. "Gure aldetik, ahal dugun bezala egin diogu aurre arazo honi. Bi edo hiru egunean behin gaztetxera joaten aritu gara ura kentzeko, baina ezin dugu askoz gehiagorik egin. Arazo handiegia da guk konpontzeko. Eraikina egin zeneko arazo estruktural baten ondorioa da hezetasuna, eta konponbidea eskatzen diogu Udalari. Eraikinaren atzealdean, karkaba handi bat dago, eta bertako lurretatik ura sartzen da eraikinaren atze aldeko paretara".

Udal Gobernuaren azalpenak

Udal Gobernuak adierazi du gaztetxeko kideekin batzartzea aurreikusten dutela, eraikinaren

"GURE ALDETIK, EZIN DEZAKEGU ASKOZ GEHIAGORIK EGIN, ARAZO HANDIEGIA DA GUK KONPONTZEKO"

mantentze arazoak jorratzeko. Udal eraikin bat denez, honen mantentzea Udalari dagokio. Gobernuak jakinarazi duenez, apirilaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak ikuskatze tekniko bat egin zuen gaztetxean, eta bertan eraikinak 19 arazo zituela jasotzen zen; horietatik zazpi, larriak. Hala, arazo horietako bat konpontzeko egin zuten sukaldetako eta serigrafia tailerreko esku hartzea brigadako langileek.

Esku hartzea 2017an

Iaz, hezetasunagatik, metalezko xafla batzuk jausi ziren agertoki osteko sabaian, eta, haiekin batera, baita hormigoiz zati bat ere. AGAKOk horren berri eman zion Udalari eta esku hartze bat egin zuten iaz udan; metalezko estruktura batzuk jarri zituzten sabaia eusteko. Baina AGAKOk adierazi duenez, kondentsazioaren eraginez ur tantak jausten dira orain metalezko estruktura horietatik.

'Ekobulebar' proiektua Bidein SL enpresak idatziko du

Udalak Etxaluze-Maala Ekobulebarren proiektua idazteko kontratazio prozedura martxan jarri zuen otsailaren 27an, 45.000 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-. Berriki, tokiko gobernu batzarrean onartu dute Etxaluze-Maala Ekobulebar proiektuaren idazketa Bidein SL enpresari esleitzea, 36.179 euroren truke -BEZa barne-, lizitatutako prezioetik %20 behera. Bidein enpresak bost hilabeteko epea izango du azken proiektua aurkezteko. Besteak beste, Zigorrola eta San Andres auzoak lotuko dituen bidegorria egitea eta Grupo San Juango aparkalekuak egoiliarrentzat izatea aurreikusten ditu proiektuak.

Haur Dantzarien Eguna egingo dute domekan

10:00etan, Zaldibar pilotalekuan elkartuko dira haur dantzariak, eta bertatik kalejiran abiatuko dira txistularien laguntzarekin.

11:15ean, dantza erakustaldiak egingo dituzte dantza taldeek erdialdeko hainbat gunetan, eta pixkanaka Herriko Plazara inguratzen joango dira, bertan elkartuko baitira talde guztiak, 13:30ean.

Bazkaldu eta indarrak berreskuratu ostean, Herriko Plazan elkartuko dira berriz, 17:15ean. Azken dantzak eta agurrak egingo dituzte talde guztiak. Egun osoa dantzak ikusten egon ondoren, dantza egiteko gogoa dutenentzat, DJ Amaiak dantzaldia egingo du.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Indiferentzia

Altsasuko herriaren izena behin eta berriz darabilkigu bueltaka eta ezin egona eragiten digu. "Gezurri egia" atera diote, eta bai, badirudi hala dela. Egunak joan eta egunak etorri, egoerak berdin jarraitzen du. Hitzak nondik datozen, nork botatzen dituen, edo beraien jatorriaren arabera epaitzen direla dirudi.

Urriaren 15ean, goizeko ordu txikitari, liskarra izan zen herriko taberna batean. Korapiloa korapilatu zen gau hartan, eta badirudi askaezin bihurtzen dabilela. Kasuak kasu, oraingoan injustiziaz epaitu ditu epaileak, eta, beraz, injustiziaz beteriko epaia kaleratu du. Ingurura begiratzea besterik ez dago beste aldean daudenek marraztu duten irudi surrealista honi sinetsen maila eman nahian dabilta. Baina guk badakigu ez dela horrela eta irudi hori apurtzeko bide luze honetan borrokatu beharko dugu.

Gezurra dirudien arren, batzuetan zein zaila den euskaldun izatea. Baina handi gara gure txikitasunean, eta, kantuak dioen bezala, *utziko bagenio bat izateari ez geundeke sekula batera kantari*. Elkarrekin lortuko dugulako. Aurrera Altsasu!

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Debarrokoa: zazpi hamarkada pilotan

Leintz Gatzagatik hasi eta Debaraino, bailarako pilota elkarrekin hartzen dute esku Debarroko Txapelketan –Soraluce saria–. Bihar, zapatua (17:00), kadete, gazte eta senior mailetakoko finalak jokatuko dituzte Uarkapen

Xabier Urzelai ARRASATE

Aurtengo edizioa antolatzen duen Arrasateko Pilota Elkarrekin izan du; horrenbestez, Uarkapen jokatuko dituzte finalak, bihar, zapatua. Hala, kadete mailan Aretxabaletako Amets Erañak eta Unax Igartuak Aloña Mendiko Mikel Ugarte eta Xabier Jauregi izango dituzte aurrean. Gazte mailan ere Aloña Mendik ordezkariak izango du, Ibon Perezek eta Iñigo Perezek osatutako bikoteak Bergarako Ander Etxaniz eta Markel Gartzia izango dituzte eta kontrario.

Eta senior mailan, azkenik, Soraluce eta Bergara izango dira zein baino zein gehiago. Soraluzeren aldetik, Aitor Atxotegik Ibai Bolinagarekin osatuko du bikotea eta Bergarako taldeko ordezkariak, berriz, Eneko Murguruza eta Harri Otermin izango dira.

Babesleei eskerrak

Txapelketako partidu nagusiak izango dira biharkoak, eta antolatzaileek babesleak izan dituzte gogoan. "Arrasateko Udalen laguntza izan dugu, eta Soraluce enpresari, Jakioni eta Eguren arrandegiari eskerrak eman gura dizkiegu", adierazi du Lurdes Diazek.

Sanjuanetako finalak, gaur

Bestalde, Arrasateko klubeko pilotariak gaur, egubakoitza, jokatuko dituzte sanjuanetako finalak. Guztira, harrobiko 60 gaztetxok hartu dute esku herriko torneoan, eta prebenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailetakoko finalak jokatuko dituzte, 19:00etan hasita.

Txapelketak 70 urte ditu

1948an jokatu zuten lehenengoz Debarroko Txapelketa, Aretxabaletan –lehenengo urteetan Eskoriatzak, Aretxabaletak eta Arrasateko antolatzen zuten, txandaka– eta izena ematen zuten pilotariak garbantzuko platerkada izaten zuten El Burgales jabetxean.

1948ko torneo Arrasateko Garitanok eta Uribarrenek irabazi zuten; finalean Aretxabaletako Elortondo eta Ezpeleta izan zituzten aurrean. 1980a ezker, kategoria txikiak ere jokatzen dute.

Eskubaloien gaineko mahai ingurua bihar, zapatua, Kulturaten

Arrasate Eskubaloien Taldea 40. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil, eta biharko, zapatua, mahai ingurua antolatu dute Kulturaten (11:00, areto nagusia). *Oinarritik gailurrera arte* izenburua izango du mahai inguruak –gaztelaraz izango da– eta protagonista bakoitzak bere kirol ibilbidearen gaineko erre-pasoa egingo du, besteak beste.

Esperientzia pertsonalak

Mahai inguruan esku hartuko dutenak dira: Juan Jose Gude epailea –25 urteko esperientzia kantxetan–, Ane Herrero –esku-baloi jokalaria eta entrenatzailea, bizitza osoa darama Arrasateko klubari lotuta–, Raket Varela –Euskal Selektzioaren hautatzailea eta entrenatzailea– eta Gurutz Aginagalde –BM Logroño La Rioja taldeko atezaina, 600 partidu baino gehiago jokatu ditu Asobal ligan, eta Espainiako Selektzioarekin ere izan da–.



Debarroko txapelketako iazko finala, Aretxabaletan. GOIENA

2018ko ekainaren 14tik 18ra

BEZa ^{**}
oparituko dizugu

SONY markako produktu guztietan
(hala nola smartphoneak, telebistak eta kamerak)



20 Mpx | 35X zoom optikoa

DSC-H300 kamera

- Irudiaren egonkortasun optikoa
- 360 graduko ekorketa-panoramia

PVP ~~199,00€~~
179,00€

29,83€/HILEAN 6 hilabetez*

bazkide bazara
147,93€

31,07€ → 



Bluetooth | FM
CD | USB

Etxerako potentzia handiko MHCV11 audio-sistema

PVP ~~229,00€~~
229,00€

22,90€/HILEAN 10 hilabetez*

bazkide bazara
189,26€

39,74€ → 



A | 1200 Hz PMI | USB REC

123 cm (49")

Smart TV | HDR

A | 400 Hz WIDEAREA | USB REC | WIFI

KDL49WE660 Led TB

- 110,2 x 69,9 x 23 cm
- X-Reality Pro prozesadorea

PVP ~~549,00€~~
529,00€

22,04€/HILEAN 24 hilabetez*

bazkide bazara
437,19€

91,81€ → 

**Kulian ordaintzen duzun unean bertan, estuzatutako produktuei dagokien BEZaren zenbatekoa sartuko dizugu (EROSKI Club bertelari lotutako kontuarekin). Zenbateko hori hurrengo erosketetan erabilgai izango duzu. Kontuak gaurerako baldintzak zure hipermerkatuan. Mailako hipermerkatuan izan ezkero, hain 320ko deskontua da.

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Bazkideentzat soilik

"Primeran ibili gara, oso ondo zaindu gaituzte"

Asier Sala arrasatearra 2014an hasi zen Berlingo Bad Co. Project taldean gitarra jotzen; duela bi urte, AEBetako kostaldean egin zuten bira, eta orain, mendebaldeko kostaldean egindako biratik iritsi berri da Arrasatera; Crim taldearekin batera ibili dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ameriketako Estatu Batuetako Los Angeles, Las Vegas eta San Frantzisko hirietan izan da Asier Sala arrasatearra Bad Co. Project taldearekin bi asteko bira egiten. Hamalau egunean hamaika kontzertu eskaini ditu Berlingo taldeak, eta, besteak beste, Angelic Upstarts, GBH eta The Briefs taldeekin partekatatu dute oholtza.

Atlantikoa zeharkatu aurretik, baina, Berlinen igaro zituen egun batzuk: "Lehenengo, Berlinera joan nintzen, bira hasi aurretik, entsegu batzuk egitera. Han ia egunero jo dugu, eta hori prestatu egin behar izaten da aurrez. Beraz, egun batzuk Berlinen igaro nituen; ondoren, hona itzuli, maleta egin, eta Los Angelesera abiatu nintzen", adierazi du arrasatearrak.

Duela bi urte, ekialdeko kostaldean egin zuen bira Salak talde berlingoarekin, eta oraingoan, mendebaldeko kostaldera joan dira. "Ekialdeko bira desberdina izan zen. Jendea hotzagoa zen, kontzertu aldetik ere *underground*-agoak ziren eta lokalak, askoz txikiagoak. Mendebaldean jendea harroagoa da, demostratu nahi dute diru gehiago dutela, eta kontzertuak egiteko areto handiagoak dituzte.



Bad Co. Project taldeko kideak, Pirates Press estudioetan, Kalifornian. BAD CO. PROJECT

Beraz, luxua izan da guretzat". Horrez gain, ekialdean ordu asko pasa behar izan zituzten furgonetan, kontzertu batetik besterako bidaietan. Oraingoan, ordea, dena nahiko gertu eduki dute. "Ordu asko pasatu genituen leku batetik bestera eta presaka ibiltzen ginen. Lekura iritsi, soinu probak egin, kontzertua jo eta alde. New Yorken, adibidez, taberna bat besterik ez nuen ikusi, kontzertua eskaini genuen taberna. Ondoren, hotelera joan, lo egin, hurrengo egunean goizean goiz esnatu eta beste zortzi

orduko bidaia egin genuen. Hala izaten zen egunero. Aurten, zona txikiagoan egin dugu bira eta tarte txiki bat izan dugu leku berriak ezagutzeko eta hondartzan apur bat deskonektatzeko".

Nor bere aldetik

Talde bakoitzak bere kabuz joan da AEBetara. "Musikari moduan bazoaz, lanera zoaz, eta tasa batzuk ordaindu behar dituzu, nahiko garestiak direnak. Beraz, saiatzeko gara maletarekin bakarrik joaten, eta gero, han jartzen digute materiala eta ga-

rraioa. Duela bi urte, harrapatu egin gintuzten, eta konturatu ziren talde bat ginela. Esan zituzten berriro eginez gero, neurri zorrotzak hartuko zituztela gurekin. Beraz, ni bakarrik joan naiz eta beste laurak binaka, egun desberdinetan. Hala ere, beldurtuta joan gara".

Crim izeneko talde kataluniarrekin egin dute bira osoa eta haiek ere gauza bera egin dute, nor bere aldetik joanda. "Esperientzia ederra izan da haiekin ibiltzea. Nire ingelesa ez da oso ona eta sei kataluniar hauekin egunerokotasunean berba gehiago egiteko aukera eduki dut", azpimarratu du Salak.

Esperientzia "txar" bakarra

Las Vegasen bi kontzertu jo ostean, beste bat jotzeko eskatu zituzten beste batzuek, eta esperientzia txarra izan zen hura. Diru *caché* bat jarrita daukagu, eta uste izatekoa da ordaintzen duenak leku egokia daukala kontzertu bat eskaintzeko. Hala ere, heldu ginen eta garaje txiki ziztrin bat zen, lau pertsona arraro barruan zeudela. Ez zigun sentazio onik eman eta ikusi genuen baldintzak oso txarrak zirela. Ez zegoen ekiporik, amplifikadoreak oso txikiak ziren, guztia zaharkituta zegoen, eta abar. Crim taldekoek jotzea erabaki zuten, eta guk alde egin genuen. Handik gutxira, ordea, deitu egin zituzten, esanez euren bila joateko; lau pertsona horiek elkarri joka hasi zirela, hango beste talde baten materiala apurtzen zebiltzala, eta abar. Euren bila joan ginen eta alde egin genuen. Horretan geratu zen kontua. Zorionez, ez zitzairen ezer gertatu", kontatu du Salak.

Gainontzean, dena "primeran" joan dela dio Salak. "Momentu

oro egon gara lagun artean. Sukker-taldeko abeslaria-egonda zegoen han aurrez, Oxymoron taldearekin, eta lagun asko ditu. Horrenbestez, oso ondo zaindu gaituzte".

'Merchandising'-arekin, akatsa Arrasatearrak aitortu du ez dutela asmatu *merchandising*-arekin. "Las Vegasen ohitura handia dago postu handiak jartzeko, eta biniloak eta kamisetak asko saltzen dira. Guk ez genuen kontuan hartu hori eta gauza gutxi eraman genituen. Azken lau egunetan ez genuen materialik saltzeko, eta galera pixka bat izan dugu. Beraz, hurrengorako baditugu gauza batzuk zuzentzeko".

Disko berriak

Salak aurreratu du Bad Co. Project taldea disko berriarekin ari dela. Hala ere, Gabon ingururako aurreikusten dute, distantziak direla eta, "gutxinaka" ari direlako aurreratzen.

Berlingo taldeaz gain, arrasatearrak badu proiektu pertsonalago bat: The Potes. Hauek ere disko berria kaleratzekotan dira, "hamaika edo hamabi" kantu izango dituen. Hasiera betan, uztailan grabatu eta irailean kalean izango dela aurreikusten dute. Salak dio "oso talde indartsua" osatu dutela zazpi artean. Gaur, Azpeitiko plazan joko dute kontzertua, 23:00etan, The Fridays Crew taldearekin batera.

DISKO BERRIAK PRESTATZEN ARI DA SALA, BAI BAD CO. PROJECTEKIN, BAITA THE POTESEKIN ERE

Elai abesbatzak kontzertua eskainiko du, urtero moduan

Sanjuanak ate joka daude, eta, urtero moduan, Elai abesbatzak kontzertua eskainiko du San Juan Bataiatzailea parrokian. Domekan izango da emanaldia, 19:00etan.

Bi zatitan banatuko da kontzertua. Lehenengoan, abesti hauek eskainiko dituzte, ahots zuriekin: *Pasayan Xexenak* (Tomas Garbizu), *Take me Home*

(Pentatonix), *Erobi Ori* (Tomas Garbizu), *I say a Little Prayer* (Burt Bacharach), *Axuri Beltza* (Javier Busto) eta *Let the River Run* (Carly Simon). Bigarrenean, ahots mistoekin abestuko dituzte kantu hauek: *Beatus Vir*, *Potens in Terra*, *Gloria et divitie*, *Exortum est in tenebris*, *Jucundus homo*, *In memoria aeterna*, *Paratum cor eius*, *Peccator videbit* eta *Gloria Patri*. Piano-jolea Gurutze Uribarren izango da eta zuzendariak, Arantza Uriar eta Goio Eskibel.

'Ballet' ikuskizunaz gozatzeko aukera Amaia antzokian

Ikasturtea amaitzean dagoen arren, Arrasate Musikal oraindik ere lanean ari da, eta hainbat ekitaldi ditu prestatuta.

Horietako bat da gaur, egubakoitza, Amaia antzokian eskainiko duena. *Ballet* izeneko ikuskizuna 19:30ean hasiko da. Arrasate Musikaleko kide Edorta Aiastuik dioenez, "ikusteko eta entzuteko ikuskizun pare-

gabea" izango da. 70 bat ikasle ariko dira oholtza gainean, 6 eta 16 urte bitartekoak. Horiez gain, *Danza Contemporanea* osatzen duten hamar bat emakume nagusi ere arituko dira. Guztiak Jana Fuenteren zuzendaritzapean egongo dira. Hainbat musikariren abestiak erabiliko dituzte emanaldian; besteak beste, Lorena Mckennict, Trentemøller, Gnash edota El Circo del Sol. Hamabost bat pieza eskainiko dituzte ballet dantzariek.

Ipuin kontaketa musikatua egingo dute domekan

Ezberdin bezain eder izenpean, ipuin kontaketa saio musikatuaz disfrutatze aukera egongo da ekainaren 17an -domeka- 13:00etan, Irati tabernan, Nerea Ariznabarretaren eta Mariano Hurtadoren eskutik. Zabala eta ezberdina dena kuriositatez begiratu, ezagutu eta hurbiltzen du kontaketa horrek, zuzeneko musikaz lagunduta.



Gurasoekin kultura etxean egindako bilera. J.I.

Harrera ona parkeko parte-hartze prozesuari

Umeekin parkea erabiltzen duten gurasoekin egindako bileran lagun kopuru polita elkartu zen. Aterpe baten premia dagoela nabarmendu zuten askok. Aurretik, neska-mutikoen eta eskolako irakasle zein jantokiko langileen iritziak jaso dituzte

Julen Iriondo ARAMAIO

Martxan da Bañera parkea eraberritzeko parte-hartze prozesua. Aramaioko Udalak Hiritikat eta Olgeta enpresak kontratatu ditu prozesu hori aurrera eramateko –5.203 euroko kostuarekin–, eta horietako kideek bilerak egingo dituzte parkearen erabiltzaile diren eta izan ahalko lirartekeen herritarrekin. Izan ere, proiektu integral bat landu nahi dute, ez bakarrik umeei bideratua, baizik eta askotariko herritarrei.

Horrela, eskolako ikasle, irakasle eta jantokiko langileekin egindako bileren ostean, umeekin batera parkea erabiltzen duten edo erabiliko luketen gurasoen txanda izan zen. Piztu zuen interesa deialdiak, eta bietako elkartu ziren, gainera: parkean ibili ohi diren gurasoak gehienak, baina baita gaur egun erabili ez –euren familiaren errealitate eta beharretara egokitzen ez delako– baina bestelako espazio bat gustura hartuko luketenak ere.

Bileran bildutakoei eskatu zieten gauzetako bat izan zen parkerako proposamenak egitea, euren beharren arabera proposamenak, ez umeen ikuspegitik egindakoak. Horrela, aterpe baten beharra izan zen gehien errepikatu zena; izan ere, eguraldiak eragin handia du parkearen erabileran: euriak, batetik, baina baita eguzkiak eta hotzak ere, udan oso inguru beroa eta neguan oso hotza delako hura. Egindako beste proposamen batzuk izan ziren umeen zaintzan dauden bitartean eroso eta goxo egoteko lekua –gaur egun, mahaia jolaslekutik urrun daudela eta jolasleku ondoko harrizko jarlekua egokia ez dela adierazi zuten, adibidez– eta

HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEKIN ETA HERRITARREKIN IZANGO DIRA HURRENGO BILERAK

umeak parkean ari diren bitartean gurasoek ere ariketa egiteko baliabideak; rokodromo bat edo eliptikak, adibidez.

Parkerako bi asmo

Inguru hartan ur parkea egingo dute, batetik –martitzenean argitaratu zen lizitazioa–; eta Udalaren beste asmoa da gaur egun jolas parkea dagoen inguru hori berrantolatzea, parte-hartze prozesuarekin herritarren iritziak jakin eta gero. Espazioen antolaketa eta diseinuaz arduratzen den Hiritikat enpresako Ibai Esteibarlanda arkitektoaren arabera, nahi dutena da askotariko herritarren harremanerako izan ahalko den gunea; Olgeta enpresako Itsaso Pagoagaren funtzioa, berriz, parkeak –kasu honetan bai, umeentzako– izan ditzakeen espazio eta elementuen ezaugarri pedagogiko egokienak hautematea da.

Abuzturako diseinu proposamena egin eta urtea amaitzerako parkea egitea da asmoa.

Urko Buruaga & Resu, gaur, Sastiñako musika festibalean

Bakarlari hasi zen Urko Buruaga gasteiztarra kontzertuak eskaintzen, 2007an. Gerora, hainbat bidelagun izan ditu, eta, gaur egun, Jonathan Resu-rekin dihardu. Bere perkusio eta trikitia Buruagaren gitarrari gehituta, rock eta folk klasikoa eta modernoagoa uztartzen dituzte. 20:00etan hasiko da Sastiñako emanaldia gaur, barikua.



Urko Buruaga. URKO BURUAGA



ITUR ZURI

Itur Zurikoak, Pasai San Pedron

Pasai San Pedron izan ziren aurreko zapatuan Itur Zuri emakumeen elkarteko kideak. Eguraldiak baimendu zuen bitartean ibilaldi txiki bat egin zuten herrian, eta bazkaldu aurretik museo txiki batean egin zuten bisita. Baina plater nagusia gero izan zen: Albaola Itsas Kultur Faktoria ezagutu zuten, gidari baten laguntzarekin. Oso gustura geratu ziren Itur Zurikoak.

GORA ETA BEHERA



Landaretza, kontrolik gabe Lurgorri

Herritar batek bidali du honako argazki hau, eta dio Lurgorri pasealekuan zuhaitzak eta landaretza kontrolik gabe ari direla hazten, harrizko zubitxoak gutzit tapatzeraino. Herritar horren ustez, ez da Aramaio moduko herri txiki eder bati dagokiona.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA



Euskaraldiko lantaldeko kideetako batzuk, Aramaiorako egindako kartelarekin. J.I.

Jaietan aurkeztu nahi dute herriko hamaikakoa

Txupina euskararekin lotutako pertsonak botako dutela aprobetxatuko lukete Euskaraldiak herrian izango dituen enbaxadoreak aurkezteko. Ekimena herrira zabaltzeko, sare sozialetan partekatuzko aurkezpen bat ere prest dute dagoeneko

Julen Iriondo ARAMAIO

Euskaraldirako lantaldeak eguaztanean egindako bileran osatu zuten Aramaioko hamaikakoa izan daitekeenerako zerrenda. *Ahobizi eta belarriprest*, askotariko ezaugarriaren bizilagunekin, herria ahalik eta modu zabalenean ordezka dezaketzen pertsonak aukeratzen saiatu ziren; eta tartean dira, esan bezala, ohiko eta betiko euskal hiztunak, eta baita saiatzen direnak edo hizkuntzarekin jarraera baikorra dutenak, jatorriz atzerrikoak diren aramaioarrak edo euskara ikasten ari direnak, esaterako. Hamaikakoa zehazteko, zerrendatutako pertsonen onospena faltako litzateke orain.

Behin betiko hamaikakoa ixteak ezingo du luze jo, bileran elkartutakoek egoki iritzi zioten-eta hamaikakoaren jendaurreko aurkezpena jaien hasierarekin egiteari, aurtun txupina euskararekin lotutako pertsonak bota behar dutela aprobetxatuz, gainera, ekainaren 29an.

Horiek eta beste zenbait kontu zehaztu zituzten Euskaraldirako lantaldekoek: prest dute Euskaraldia iragartzeko kartela, *Aramaixon euskeraz bizi gure dou* leloarekin; prest, baita ere, ekimenaren aurkezpen bat, Whatsapp bidez herritarren artean zabaltzeko; eta asmoen artean, azaro amaieran eta abendu hasieran hamaika egunez euskaraz bizitzeko erronkarako girotzen joateko zenbait ekintza, euskal kantu jaialdi bat, koplak txapelketa edo bikoizketa lehiaketa, esaterako, oraindik zehazteke.

Herriek Euskaraldian izena eman eta gero, irailean izango da pertsonen txanda. Ekimenean apuntatzen diren lagunek, izan *ahobizi* edo *belarriprest*, forma-

**UNAI VIANA
ARDURATUKO DA
GORBEIALDE OSOAN
FORMAKUNTZA
SAIOAK EMATEAZ**

kuntza txiki bat jasoko dute, euren rolean ahal bezain egoki jarduteko zenbait irizpiderekin. Lantaldeko kideek izango dute formakuntza horren ardura, eta, horretarako, eurek jasoko dute aurrena; Gorbeialde osoan Unai Vianak izango du *formatzaile* guztiak prestatzeko ardura.

Azkenik, eta *merchandising*-ari dagokionez, bileran iragarri zuten etxe atarietarako lanpasak *-felpudoak-* erosteko aukera egongo dela, eta baita oihalezko poltsak ere.

Gorbeialderako bloga

Bestalde, Gorbeialdean Euskaraldiaren berri emateko, bloga jarri dute martxan: *Gorbeialdea.euskaraldia.eus*. Kuadrillako sei udalerrietan sortu dira batzordeak, eta elkarren artean harremanetan daude, baita Araba mailakoarekin ere. Edozein zalantza, galdera edo proposamenetarako, *euskara@gorbeialdea.eus* helbide elektronikoa erabil daiteke.



Espainiako bandera udaletxean. J.I.

Espainiako bandera jarri dute udaletxean, epaitegiak aginduta

Aramaioko bizilagunen naziotasunak ordezkatuz hainbat bandera zeuden udaletxean; astelehena ezker, Espainiako bakarrik dago. Espainiako Gobernuaren errekerimenduaren ondorio da, Espainiako banderak "ohorezko lekuan" egon behar duela eta. "Espainiartasuna inposatzeko" erabakiaren aurrean, aramaioarrak ikurrina dela aldarrikatu du Lierni Altuna alkateak.



Goikobalu abesbatzako kideak. GOIENA

Aramaion abestuko du lehen aldiz Goikobaluk, bihar

Emanaldia bihar –zapatua– 19:00etan izango da, San Martin elizan. Arrasateko abesbatza Aramaion inoiz abestu gabea da. Bizente Goikoetxea gogoratzeko ere aprobetxatuko dute saioa, eta, horrela, hark konposatutako hainbat pieza interpretatuko dituzte, *Missa pro defunctis* lanekoak. Eugenio Etxebeste ariko da organoan. Beste hainbat abesti ere kantatuko dituzte.



NIRE USTEZ

MANEX
ARRIOLABENGOA

Bat, Mugi eta Barik

Gaur egun, kotxea luxuzko artikulua dela esan dezakegu, ez bakarrik honek duen balioagatik edota dakarren mantentze kostuagatik, baita ere mundu honetan bizi garen gizaki guztiok ezin dugulako kotxe partikular bat eduki, munduak ez baitu hainbesteraino ematen.

Gainera, kontaminazioa jasanezina bilakatuko litzateke. Beraz, garraio garbiagoak bilatzearen eta sortzearen alde, gizarte honetan garraio publikoa bultzatzea ezinbestekoa dela deritzot.

Alde batetik, garraio publikoak, munduarekiko onuragarria izateaz gain, gizarteari laguntzen dio jarrera bakartiak uxatuz taldean integratzera, eta gizakion arteko komunikazioari ere aukera gehiago ematen dizkio.

Bestetik, konpartitzen ere irakasten digu, eta gurea soilik ez dena zaintzera bultzatzen gaitu.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoa indartzeko asmoz, hiru probintziek dituzten txartel ezberdinak bateratzeko ideia bultzatu nahi dut, honen erabilera erosoagoa eta errazagoa izan dadin.

Adineko pertsonen topaketak, Guardian eta Bilbon

Arabako adinekoen topaketa Guardian izango da, ekainaren 27an. Interesa dutenek 32 euro sartu behar dituzte Labor Kutxan hilaren 21a baino lehen. Gorbeialdeko Kuadrillak antolatuta, berriz, Bilbora joango dira uztailearen 6an. Izen-emate fitxa eta ordainagiria –26 euro, Kutxabanken– udaletxean aurkeztu behar dira hilaren 27rako.



Mariatxen Urkia, musika eskola ematen, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

Herriko musikari askoren harrobi den eskola

Leizarra musika eskolaren ibilbidean zeresan handia izan du Arkupek. Orain dela hamar urte lekualdatu zen hara, eta hirugarren eta laugarren solairuetan du egoitza; erosotasunean irabazita, ikasle kopuruan gorakada nabarmena izan du

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Leizarra musika eskolarendako ere mugarrria izan zen orain dela hamar urte zabaldu zen Arkupe. Ordura arte kuarter zaharrean egondako eskolak espazioa eta erosotasuna irabazi zituen, eta, ondorioz, ikasle kopurua ere bai. Gaur egun, 350 erabiltzaile inguru ditu, batzuk musikariak eta beste batzuk dantzariak.

Egoitza aldaketekin haziz

1985-1986 ikasturtean zabaldu zituen ateak musika eskolak. Lehen eskolak gaur egun Udal Euskaltegia dagoen egoitzan eman zituen. Mariatxen Urkia zuzendariak ondo gogoan du: "Taldea txiki batzuekin hasi ginen eta akordeoia, klarineta eta pianoa bakarrik irakasten genituen, ez genuen beste instrumenturik".

Handik, kuarter zaharrera joan ziren, eta poliki-poliki ikasle kopurua hazi egin zen, 200 inguru izanik. "Instrumentuek ere gora egin zuten orduan; asko, gainera. Eta esango nuke orain ditugun eskola guztiak kuarterean dagoeneko hasi ginela ematen". Kuartera, baina, oso egoera eskasean zegoen, hezetan eta irisgarritasun arazoak zituen,

besteak beste. Eta 2008ko lekualdaketa oso pozik hartu zuten.

Taldeak sortuz

Gaur egun, 350 ikasle dituzte Leizarran, eta hamasei langilek dihardute horiekin. Eta ematen dituzten eskolen artean daude: pianoa, biolina, haize-egur instrumentuak, haize-metale instrumentuak, trikitia, gitarra, flauta, txistua, perkusioa, musika tailerrak eta kantua. "Arrakastari dagokionez, boladak egoten dira, eta orain indartsuenak pianoa, perkusioa eta gitarra dira". Instrumentuak ikasten diharduten ikasleek taldeak osatzen dituzte, konboak, hain zuzen ere, elkarrekin jotzeko. Eta helburu berberarekin banda ere badute: "Eskolako ikasleendako osagarri bat da une honetan, beste talde bat legez. Eta datorren urtera begira beste talde batzuk ere sortu gurako genituzke; folk edo ganbera taldeak, esaterako. Ikertzen gabiltza". Ondoren, eskolako hainbat ikasle euren taldeak ere sortu dituzte; Txerrikumeak eta Dskarga, adibidez.

Hurrengo emanaldiak

Datorren astean hainbat emanaldi izango dituzte ikasleek. Hilaren 19an, ikasturte bukarako kontzertua eskainiko dute, Herriko Plazan (18:00). Eguenean, konboen txanda izango da, Arkupe, eta egubakoitzean, bandaren emanaldia egongo da Herriko Plazan (19:00).

Izen-emate epea zabalik

Datorren urteko eskoletarako izen-emate epea zabalik dago ekainaren 22a arte. Horretarako, eskolako bulegotik (hirugarren solairua) pasatu behar da astelehenetik egubakoitzera bitartean (15:30-19:00).



M.A.

"Kuarteletik irtetea handia izan zen"

MARIATXEN URKIA
ZUZENDARIA

Musika eskolan dihardu lanean hasiera-hasieratik. **Arkupe lekualdatzea garrantzitsua izan zen?** Kuarteletik irtetea oso garrantzitsua izan zen. Lan egiteko eran aldaketa etorri zen guretzako, baina erakinarekin asko irabazi genuen.

Hamar urteotako aldaketarik handiena zer izan da?

Dantza taldearen ardura hartzea. Gaur egun, 150 bat ikasle ditugu; gaztetxoak dira nagusi, baina guraso talde bat ere badago.

Banda ere baduzue...

Banda baino gehiago, instrumentu talde bat dela esango nuke. Hainbat emanaldi eskaintzen ditu ikasturtean zehar, baina konpromiso handiagorik barik. Oso pozik gaude egiten dabilzan lanarekin eta horrela jarrai dezaten gura dugu.

Bigarren postua eskuratu du ALEk Euskelec lehiaketan

Lehenengoz egin da eta Aretxabaletako goi mailako automozioiko ikasleen ibilgailuak lan bikaina egin zuen

M.A. ARETXABALETAKO

Auto elektrikoaren arteko txapelketa jokatu zen joan den zapatuan Gasteizen, goi mailako hezkuntza zikloak irakasten dituzten zentroen artean. EAEko hamai-ka ikastetxetako ordezkariak,

140 lagun inguru, elkartu ziren eta Aretxabaletako Lanbide Eskolakoen bigarren saria jaso zuten.

Mugikortasun iraunkorra sustatzea helburu duen Muisu Fundazioak antolatutako lehiaketa, eta, ibilgailuaren efizientzia

maila ikusteko, azelerazio, balaztatze, eslamon eta erresistentzia probak egin behar izan zituen talde bakoitzak. "Autoak muntatu dira motorra, motorraren kontrolagailua eta bateria izanik. Hortik aurrera, talde bakoitzak bere hobekuntzak egin dizkio", jakinarazi dute.

ALEko automozioiko ikasleen ibilgailuak lan bikaina egin zuen eta bigarren postua eskuratu zuten. Gorka Urtaran Gasteizko alkatearen eskutik jaso zuten garaikurra.



Aretxabaletako ikastetxeko ordezkariak autoarekin, Gasteizen. ALE



Asfaltatzeko asmoa dagoen Loramendi kalea. MIRARI ALTUBE

Irisgarritasuna hobetzea helburu duen plana, abian

300.000 euro bideratuko ditu Udalak hainbat lanetara, herrian "ibilbide irisgarriak" izateko; besteak beste, zebra-bideak egokitzen jarraituko du, Loramendi kalea asfaltatuko dute, Errekabarrenen hainbat egokitzapen egin eta Santa Kurtz aztertu

Mirari Altube ARETXABALETA

Plangintza berezia diseinatzen dabil Aretxabaletako Udala, irisgarritasuna hobetzeko lanak jasotzeko. Lan horietako batzuk dagoeneko egin ditu, eta orain, beste batzuei helduko die. Irigarri dute aurten 300.000 euro inguru bideratuko dituztela horretara.

Loramendi kalea asfaltatu

Herrian "ibilbide irisgarriak" izatea du helburu Udalak, eta horiek guztiak jasoko dituzte diseinatzen dabilen Irisgarritasun Planean. Orain arte egindako lanen artean daude zebra-bideetako hobekuntzak. "Herrian hainbat tokitan dauden zebra-bide asko egokitu dira; zeukaten koska kendu egin zaie eta irisgarritasuna hobetu egin da", jakinarazi dute. Horiez gain, berriak egitea ere pentsatuta dute: "Loramendi kalean bi zebra-bide berri egingo dira, eta lurzorua asfaltatu. Kiroldegiaren sarbidean dagoen zebra-bidea

egokitu egingo da, horretarako pasabide berezia eraikita".

Bestalde, adierazi dute kaleetako zoruan "kalte ugari" eragin dituztela euriteek eta autoen zirkulazioak, eta horiek konpontzeko ere "ahalegin berezia" egingo dela. "Autobus geltokietako zorua asfaltatu da dagoeneko. Horrez gainera, Loramendi kalea ere asfaltatzea aurreikusuten da aurten. Eta Loramendiren eta Araba ibilbidearen artean dagoen biribilgunean azterketa berezia egingo da, irisgarritasuna zein mugikortasuna hobetzeko".

Errekabarren kalean ere hainbat lan egingo dituztela aurreratu dute: "Espaloian dauden zuhaitzen sustrai luzeek eragin

ZEBRA-BIDE BERRIAK EGINGO DITUZTE, LORAMENDIN BI; ETA KIROLDEGIKO EGOKITU PASABIDE BATEKIN

dituzten arazoak direla eta, hauek kendu eta espaloiak nabarmen hobetuko dira".

Santa Kurtz kalearen azterketa

Irisgarritasun Planak hainbat fase izango dituela jakinarazi dute: "Epe luzera egingo diren beste lan batzuk ere badaude. Horiek dira obra berezia behar duten guneak, eta, kasu batzuetan, azterketa sakona egin behar da, irtenbide desberdinak mahaia gainean jarri eta egokiena lantzeko".

Gorbeia eta Zariaia kaleen artean dagoen etxe urbanizazioan "hainbat behar" igarri dituzte, eta baita Santa Kurtz kalean ere. "Horregatik, irisgarritasun ikuspuntutik azterketa sakonak egingo dira puntu hauetan eta neurrirra eginiko konponbideak planteatuko dira".

Lanotara "inbertsio potoloa" bideratzeaz gain aurten, beste lan batzuk ere jasoko dituzte plan berezian hurrengo urteetan heltzeko.



Katalin Antxia, ikasleekin, iaz egindako saio batean. AMAIA TXINTXURRETA

Patroigintza eta joskintza irakatsiko ditu Katalin Antxiak

Bi ikastaro egingo ditu uztailaren 2tik 13ra bitartean, Arkupen, eta izena emateko epea zabalik dago

Mikel Zumalde ARETXABALETA

Patroigintzari eta joskintzari buruzko ikastaroa eskainiko du Katalin Antxia Abasolok, beste urte batez, Arkupe kultur etxean. Uztailaren 2tik 13ra iraungo du jardunaldiak, eta izena emateko epea zabalik dago; helbide honetara idatzi behar da: info@themodubat.com. Prezioa 90 euro da eta plazak mugatuak dira.

Antxiak eskainiko duen ikastaroan bi txanda egongo dira: goizez eta arratsaldez. Goizekoa (10:00-12:00) hutsetik hasiko direnei zuzendua dago. Arratsaldekoa (15:00-17:00), ostera, oina-

rrizkoa egin ondoren jarraitu nahi dutenentzat da.

The Modu Bat markaren sortzailea da aretxabaletarra eta bosgarren urtez eskainiko du ikastaroa. Aurten ere "gogotsu" dator, eta berrikuntzekin: "Ikastaro guztiak izan dira ezberdinak, ez dut sekula errepikatzen. Taldearen arabera moldatzen ditut edukiak. Arorik gabeko bularraketakoak orain arte ez ditugu sekula egin, eta aurten egiteko asmoa dut. Oso modan dagoelako, super erosoak direlako, osasungarriagoak, zuk diseinatu eta neurrirra egindakoak".

Berdintasunerako II. Plana: bilera irekia eguaztenean

Ekainaren 20rako, eguaztana, bilera irekia deitu du Udalak, Aretxabaletako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana dela eta. Arkupen izango da, 18:00etatik 19:00etara bitartean, eta interesa duten aretxabaletar guztiak gonbidatu gura dituzte bertara.

Plan horren nondik norakoen berri emango diete udal ordezkariak herritarrei; orain arte egindakoaren eta hemendik aurrera egingo denaren gainean jardungo dute, besteak beste. "Batetik, ondorioak aurkeztuko ditugu, eta, bestetik, planaren diseinurako ekarpenak jaso", jakinarazi du Karmele Uribarrik, Ongizate Saileko zinegotziak.

Bidelapurak bikoteak kontzertua emango du hilaren 22an Kixkorren

Loramendi elkarteak gonbidatuta, Bidelapurak taldea izango da datorren egubakoitzean, ekainaren 22an, Kixkor tabernan (20:00).

Gasteiz eta Bergara artean sortutako bikoteak folk eta country doinuak lantzen ditu, bereziki, eta Arrasateko Shot! estudioan aurten grabatutako *Gorriak eta bi* diskoa aurkeztuko du. Zazpikotea osatuta hainbat kontzertu eman badituzte ere, Aretxabaletara euren ohiko formatuan etorriko dira Ekaitz Aranberri eta Ander Solozabal. Hamar abesti dituen disko horretako kantak protagonista izango diren emanaldi goxoa eskainiko dute.



EH Bilduko lau zinegotzi Kurtzebarri eskolaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

Kurtzebarri eskolarentzat behin betiko irtenbide bila

Herriaren erdian dagoen ikastetxearendako "erabaki estrategikoa" hartzeko unea iritsi dela uste du EH Bilduk: oraingo kokapena errespetatu eta behar dituen konponketak egin, edo lekuz aldatu eta berria eraiki. "Herri erabakia" izan beharko litzatekeela dio

Mirari Altube ARETXABAETA

Aretxabaletako plangintza orokor baten beharra behin baino gehiagotan agertu dute EH Bilduko zinegotziek agintaldian zehar: "Bere momentuan, proposamen bat egin genion Udal Gobernuari, lanak egiteko herriko mapa ezberdinen inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeko; bereziki, hezkuntzari dagokion mapa", diote, baina "bide horretan ezer gauzatu ez denez", Kurtzebarri eskolaren gainean jarri dute begirada, "inflexio puntu batean" dagoela iritzita. Horretarako, hainbat arrazoi eman dituzte: "Eraikina zaharkitua dago eta berrikuntzak behar ditu; zentrotik badago eskola proiektua hobetzeko bultzada bat; eta bestetik, berriro agertu da eskola bertan geratu edo beste kokapen batera eraman behar den ideia", argitu du Ion Albizu zinegotziak.

Hori horrela, "erabaki estrategikoa bat" behar duela uste du EH Bilduk, horretarako epe bat zabaldua ikerketarako, eztabai-

darako eta behar diren kontsultak egiteko. "Hori guztia eskolako komunitate osoarekin batera, behin betiko erabakia izateko".

Inbertsioak, "ezinbestekoak"

EH Bilduko kideen proposamena da epe bat zehaztea eraikinarren gaineko ikerketa teknikoak egiteko -behar izanez gero, kanpoko aholkularitza bat hartuta-, Aretxabaletak dituen aukerak aztertuta: kokapen aukerak, batetik, eta bideragarritasun teknikoak eta ekonomikoak, bestetik. "Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzea ezinbestekoa litzateke, haien prestutasuna ezagutzeko; Hezkuntza Departamentuaren inplikazio barik, aukerak asko

USTE DUTE HEZKUNTZA KOMUNITATEARI LASAITASUNA EMANGO LIOKEELA ERABAKIAK

murrizten direlako", diote EH Bildukoek.

Behin azterketak eginda, erabakia hartzeko unea etorriko litzateke. "Herri erabakia izan beharko litzateke; hau da, eskolako komunitate osoak, Udalak eta Hezkuntza Departamentuak hartutakoa", dio Albizuk. Bi aukerak "zintzoki hausnartzea" eskatzen dute, eta erabakia "kontsentsuz hartzea". Beste kokapen bat posible balitz, betiere, "gutxieneko bideragarritasuna bermatuta", aldekoak eta kontrakoak ondo aztertuko litzateke. Dagoen lekuan geratzea erabakiz gero, ostera, hamar urteko inbertsio plana garatzea proposatu dute.

"Hartutako erabakiak hezkuntza komunitate osoari lasaitasuna emango liokeela uste dugu, konpartitua eta behin betikoa izango litzatekeelako". Eta gaineratu dute erabakia edozein izanda ere, inbertsioak eskatuko dituela: "Udalak zein Hezkuntza Departamentuak konpromiso batzuk hartu beharko dituzte".

Euskaraldiaren nondik norakoen berri emango dute astelehenean

Argibideak ematearekin batera, Aretxabaletako hamaikakoa aurkeztuko dute, Arkupen, 18:30ean


M.A. ARETXABAETA

Prest zaude? Halaxe diote azken egunotan herrian han eta hemen agertutako orriek. Zertarako egon behar den prest jakiteko, astelehenean, 18:30ean, Arkupen egingo duten aurkezpenera gonbidatu dituzte herritarrak. Izan ere, Aretxabaletan ere Euskaraldiaren motorrak berotzen hasteko prest daude.

Hamaikakoaren aurkezpenera

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia, eta horren berri emango dute asteleheneko aurkezpenean: nondik norakoak eta ezaugarri nagusiak azaldu eta aurrera begirako ekitaldien datak iragarri, besteak beste.

Herri bakoitzean, gainera, hamaika lagun hautatzen dihardute ekimenaren enbaxadore legez, eta horiek ere aurkeztuko



Moskeo kanpainaren irudi bat. EUSKARALDIA

dituzte; euskaraz jarduteko geratu egongo diren *ahobizi*-ak eta euskaraz entzun gura duten *belarriprest*-ak izango dira hamaika lagun horiek. Ekitaldian ezustekoren bat edo beste ere egongo dela aurreratuko dute antolatzaileek.

Finalerdietan dira alebinak

Errendimenduko Eskuz Binakako Udaberri Txapelketa azken fasean sartu da, eta Uxue Isasmendi eta Josu Hernando finalerdietarako sailkatu dira, azken hiru partiduak irabazita. Gaur, egubakoitza, jokatuko dute partidu hori, Oñatin.

Finalerdietarako sailkatzea eta neskek eskupilotan duten papera aldarrikatzea zuten helburu, eta, biak ala biak lortuta, "pozik" agertu dira.



IZASKUN GUTIERREZ

'Buala' haurrendako jaialdia Txalokarekin datorren eguaztenean

Txaloka taldeak *Buala* jaialdia eskainiko die neska-mutikoei ekainaren 20an, eguaztana, Irabarri plazan (19:00).

Inoizko postrerik goxoena kuzinatzen gura duten hiru sukaldari elkartzeko dira, eta abentura mordoa bizi izango dituzte umeekin batera. Kultura Sailak antolatutako *7x7 kultura kalean* ekimenaren barruan dago.



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA



Eskoriatzako kultura etxeko balkoian aste osoan zehar izan da EskoZap taldearen pankarta esekita. IMANOL BELOKI

Aste Zapatistari amaiera emateko, azken jaia

Astelehena ezkerro, egunero izan dira ekintzak Aste Zapatistaren barruan. Hala, bihar, azken jaia izango da, aurtengo edizioari amaiera emateko. Besteak beste, artisau azoka, bazkari mexikarra eta Rosa Sanchezen kontzertua izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

EskoZap elkarteak antolatutako Aste Zapatistaren barruan, egunero izan dira ekintzak, astelehenetik gaur arte, orotarikoak, eta jende asko batu dutenak. Hala, bihar emango diote amaiera asteari, azken jaia eginda. Ekintza asko egongo dira, eta gaurko ere egitarau zabala dute prestatuta.

Sexualitate tailerra, herri maputxeen gaineko hitzaldia eta *Mugi Boogie* ikuskizuna izan dituzte, besteak beste, eta, antolatzaileen esanetan, "arrakastuak izaten ari dira ekintza guztiak". Honela adierazi du Ahinara Zubizarretak, EskoZap elkarteko kideak: "Gaur, goizean, Iurre Romaretazabalak *Beste mundu bat posible da* hitzaldia eskainiko die Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasleei. Arratsaldean, Jose Arana zaharren egoitzakoe-kin udaberriko paseoa egingo dugu herrian zehar, eta Alaitzen taldeko lagunak kanta mexikarrekin izango ditugu. Gauean,

Inkernu tabernan, 2016ko Gaztea Maketa Lehiaketako talde irabazlea izan zen Dekot taldearen kontzertua izango da, 22:30ean".

Zapatuan, azken eguna

Zapatura begira, artisau azoka egongo da goizean, eta urtero bertaraten direnen artean arrakasta handia izaten duen herri bazkari mexikarra. Oraindik ez dakite zenbat jende animatuko den, baina, antolatzaileen arabera, 100 pertsona inguru batuko dira bertan.

Horrekin batera, musikaz emango diote amaiera Aste Zapatistari. Izan ere, Rosa Sanchez kantautorea eta Tokan2 La Polla taldeak izango dira oholtzan, bazkalostean.

ASTE OSOKO EKINTZEK EMAN DUTENAREKIN POZIK AGERTU DIRA ANTOLATZAILEAK

Herri maputxeak ezagutzen

Martitzenean, Wallmapu Euskal Herria Elkarteko Iban Gartzia *Herri Maputxeak* hitzaldia egin zuen. "Herri maputxea Euskal Herrira ekarri nahi izan dut. Ezjakintasun handia dago, eta, hain zuzen ere, kokatzea izan da nire asmoa. Beraien historia kontatzea, nondik datozen, bizitako jazarpen politiko guztiak, nola dauden osatuta eta gaur egungo egoera politikoa nola dagoen".

Euskal Herriarekin lotura

Jende asko batu zen kultura etxean egin zen hitzaldian, eta gustura izan ziren bertara joandakoak. Maputxeen historiak gain, herri maputxeen eta Euskal Herriaren artean berdintasun handiak daudela adierazi zuen Gartzia. "Jatorrizko sinesmenetan, ama lurrarekiko loturan, beraien erresistentzia egoera politikoan, hizkuntzetan... lotura handia dagoela ikusi dut bertan".



Bidegorri zatia astelehenean ireki zuten oinezkoentzat. ESKORIATZAKO UDALA

Segurtasun baldintza nahikoak beteta, zabalik dago bidegorria

Bi hilabetez itxita egon ondoren, Intxaurtuetaren eta Olazarko tunelaren arteko bidegorri zatia ireki dute

I.B ESKORIATZA

Herriko sarreran dagoen Intxaurtuetako zubiaren eta Olazarko tunelaren arteko bidegorri zatia itxita egon da orain arte, aurretik izan diren hainbat lur-jausirengatik. Martxo bukaeran bidegorriaren zati hori itxi egin zuten, eta aurreko astelehenean ireki.

Euriteen ondorioz hainbat lur-jausi gertatu dira Eskoriatzako bidegorri zati horretan, eta, martxoaren 27an izandako azken lur erorketarekin, bidegorria zatia itxi eta lanekin hasi ziren.

Lanak urrian amaituko dira

Gipuzkoako Foru Aldundiak horma egonkortzeko lanak egin ditu azken bi hilabeteetan, eta, lanak aurtengo urrian bukatuko badira ere, eusteko sareta bat jarrita, momentu honetan segurtasun baldintza nahikoak betetzen direla iritzita, bidegorria zabaldu dute.

Hori horrela, normaltasun osoz erabili ahal izango dute oinezkoek eta bizikletan doazenek Eskoriatza eta Aretxabaleta bitarteko bidegorri zati hori, nahiz eta lanekin jarraituko duten.



I.B

Luis Ezeiza eskolako jaia, bikain

Ikasturteari amaiera emateko eta, bide batez, ondo pasatzeko eguna izan zuten pasa den astean eskoriatzarrek Luis Ezeiza Herri Eskolako jaian.

Trikiti eta pandero doinuekin kalejira, eskolako haurren dantzak, *Ene kantak* ikuskizuna, bazkaria eta umeentzako puzgarriak eta musika izan zituzten. Gustura aritu ziren bertaratutakoak, festa giroan.

Erromatarren bizitza Eskoriatzara zabalduz

Cohors Prima Celtiberorum elkarteko kideek erromatarren bizitza ekarriko dute Eskoriatzara. 11:00etatik aurrera, Ibarraundi kanpoaldean, legionario talde baten larruzko denda erreplika izango da, garaiko armak eta tresnak, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatuan, 11:00etatik aurrera, *Bizi Erroma* ekimena gauzatuko da Ibarraundi museoaren kanpoaldean. Bertan, Erromatar Berantiar garaiko kanpamentu bat muntatuko dute, legionario talde baten larruzko denda erreplika bat eginda. Gainera, denda ondoan, garaian erabiltzen ziren armak, tresnak eta bestelako gailuak egongo dira ikusgai. Hala, beraien egunerokoa, egiten zituzten entrenamenduak eta ohi-turak ikusi ahal izango dira, eta bertaratzen direnek azalpenak jasoko dituzte.

Era fidelenean berreraikiz

Cohors Prima Celtiberorum elkartek, Erromatar Berantiar garaiko historia eta ondare historikoa, ikertzea, hedatzea, berrreskuratzea eta berreraikitzea du helburu –Kristo ondorengo III. mende bukaeratik V. mendera arte–. Horretarako, berreraiketa historikoaren bitartez, erromatar garaiko ohiturak, janzkera eta bizimodua ahalik eta era fidelenean berreraikitzen dituzte, arkeologi-aztarnak eta garaiko hainbat iturrik eskainitako informazioari esker.

Garaiko janzkeraz gain, taktika militarren erakusketa eta azalpena eskainiko dute. Erromatar unitate militarrek Antzinaroan erabiltzen zituzten babeserako eta erasorako hainbat mugimendu militar ikusteko aukera izango da.

Hainbat ekintza

Abiapuntutzat Atxorrotzeko indusketetan aurkitu diren Erromatar garaiko aztarnak izanda, Cohors Prima Celtiberorum elkartearen lana eskoriatzarrei eta interesa duen edozeini erakustea da asmoa. Honela adierazi du Oscar Escribano *Txapel*-ek, Cohors Prima Celtiberorum elkarteko kideak: "Ezagutza horiek jendarteari helarazten



Cohors Prima Celtiberorum taldeko kideak. OSCAR ESCRIBANO

ERA FIDELNEAN BERRERAIKIKO DUTE ERROMATAR GARAIA, HAINBAT EKINTZA EGINDA

zaizkio ekintza desberdinen bidez: erakusketak, umeentzako tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, argitalpenak, dokumentalak... parte-hartzaileak iraganaz interesa hartzera eta gozatzera gonbidatuz".



Erromatar kanpalekua

Erromatar Berantiar garaiko erromatar kanpaleku bat irudikatuko dute: zortzi legionariok partekatzen duten denda bat, hain zuzen ere. Eta legionario horien bizimodua nolakoa zen azalduko dute, besteak beste.

Telefono mugikorren erabilera ikastaroa, erretiratuendako

Arizmendiko Almen guneko DBHko 4. mailako ikasleek emango dizkiete azalpenak ikastarora doazen erretiratuei

I.B ESKORIATZA

Olazar erretiratu elkartekoek antolatuta, astelehenean hasiko da erretiratuei zuzendutako telefono mugikorren erabileraren gaineko ikastaroa.

Udal Bibliotekan izango da, 11:30etik 12:30era, eta Arizmendi Ikastolako Almen guneko DBHko 4. mailako ikasleak izango dira erretiratuek telefono adimendunekin izan ditzaketen kezak argitzen. Pedro Hernandok, Olazar Erretiratuen Elkarteko presidentek, hauxe adierazi du: "Bibliotekako Iñaki

Agirianok proposatu zigun ikasleekin egitea ikastaroa, eta eurekin baino hobeto norekin bestela...".

Hiru saio izango dira: astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, 11:30etik 12:30era. Ele bitan izango da, euskaraz eta gaztelerez, eta 15 pertsonak eman dute izena. Hala ere, gaur izango da azken eguna ikastaroan izena emateko. Horretarako, Bibliotekara deitu beharko da, 943 71 31 35 telefonora. Jende asko batzen bada bi talde eginon dituztela jakinarazi dute.

Goitibeherak egiteko tailerra egingo dute datorren eguaztenean

Ekainaren 20an, 17:00etan, goitibeherak egiteko tailerra izango da Fernando Eskoriatza plazan. Aurten, Eskoriatzako Goitibeherak taldeak urtero antolatzen duen Apotzagako jaitsieraz gain, San Pedro jaietan ere izango da lasterketa; kasu horretan, jaitsiera herrikoa izango da. Hala, ibilgailuak puntuan jartzeko aukera egongo da.

Dekot taldearen kontzertua izango da gaur, Inkernun

Aste Zapatistaren barruan, Atxorrotx Kultura Elkartek antolatuta, Dekot taldearen kontzertua izango da gaur, Inkernun, 22:30ean. 2016ko Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuen Jatabe-kotako taldeak (Bizkaia). Hain zuzen ere, indiearen eta rock alternatiboaren arteko nahasketaz osatutako kantu biziak eskainiko dituzte.



AITOR OIARZABAL

Lagos-en herriko gazte kuadrilla

Pasa den zapatuan, zikloturistentzako Lagos de Covadongako klasikoa izan zen. 4.200 parte-hartzaile batu ziren bertan, eta Eskoriatzatik ere hainbat txirrindulari joan ziren. Cangas de Onisen hasi zen lasterketa, eta, 115 kilometro egin ostean, Lagos-en amaitu zen. Goiko argazkian, Eskoriatzatik joandakoak agertzen dira.

Bidegorria argiztatzeko, bi eguzki farola

Eskoriatzako Udalak eguzki-energia fotovoltaikoaren aldeko apustua egin du, eta Aingeru Guarda eta Kuartuena arteko bidegorrian dagoeneko jarri ditu bi eguzki-farola. Aurrera begira, gehiago jarriko dituzte, ibilbide osoan argiztapena izan dadin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aingeru Guarda eta Kuartuena arteko bidegorri zatiko lanak amaituta, argia aurreztearen aldeko apustua egin du Udalak, bertatik pasatzen diren herritarren segurtasuna bermatzeko. Izan ere, bidegorria hasi eta amaitzen den tartetan bi eguzki-farola jarri dituzte.

Bidegorria argiztatzeko led motako argiteria, karga-erreguladorea, argi-poluzioa saihesteko presentzia sentsorea eta ILUMEK telekudeaketa sistema dituzten bi eguzki-farola ipini dira. Eguzki argiztapen instalazio horrekin, elektrizitatea aurreztuko da, eta, gutxi barru, bidegorrian zehar eguzki-farola gehiago ezarriko dira, zanga edo kanalizaziorik egin behar gabe bide osoa argituta egon dadin.

Ahalik eta gehien aprobetxatuz

Eguzki-argia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin, energia hori baterietan metatzen



Eguzki-farola bidegorrian. EKIONA

da eta karga erregulatuzaileari esker bateriaren karga eta deskarga zikloak kontrolatzen dira. Era horretan, mugaz gaidiko kargak eta deskargak ekiditen dira, bateriaren bizi iraupena asko luzatuta.

Puntako teknologia

Ekiona Eguzki Argiztapena enpresa arduratu da eguzki farolak jartzeaz, eta bertan garatutako zentralita elektronikoko bat gehitu diote sistemari. Zentralitak, gainera, telekudeaketa bidez luminariaren pizte eta itzaltze zikloak, bateriaren egoera eta eguzki panelen jenerazioa kudeatzen ditu.

Telekudeaketa sistemaren bitartez eguzki-farolak beren artean eta sarearekin komunikatzen ditu. Aplikazio horri esker, eguzki-farola bakoitza kontrolatu eta farolaren datuak irakurri daitezke. Ondorengo abantailak ditu: farolen argiztapen mailaren kontrola, bateriaren karga eta deskarga prozesuen kudeaketa eta kontrola, egun eta gau antzemate automatikoa, egutegi eta ordutegiaren arabera argiztapen kudeaketa eta softwarearen eguneraketa automatikoa saretik.

LEINTZ GATZAGA



laz, gatzagarra, Bergaran egindako Puntaik Puntara bidean. GOIENA

Arbasoek zabaldutako bidetik, iragana eta geroa lotuz

PR-100 bidea aldarrikatzeko, Leintz Gatzagatik Aretxabaletarainoko ibilaldia egingo dute zapatuan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Puntaik Punta Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren hirugarren edizioa izango da aurten, eta Aretxabaletan eta Debagoienean gauzatuko da. Gatzagarrek ere ekimenean hartuko dute parte; horretarako, Gatzagatik Eskoriatzaraino dagoen PR-100 bidearen konponketa aldarrikatzeko, Gatzagatik Aretxabaletarainoko ibilbidea oinez egingo dute Puntaik Punta jaialdirako.

Zapatuan 16:30ean aterako da martxa Gatzagatik, Aretxabaletaraino. *Gatz bidie* izenaz bataiatu duten ibilbidea egingo dute Eskoriatzaraino, bertan trenbidearekin bat eginda, Aretxabaletarako bidea hartzeko.

Bailara lotzeko aldarrikapena

Debagoieneko bidezidorren jaialdian ezin du hutsik egin bailara lotzea lortuko duen bideak. "Be-

tidanik egon da bide hau gatzagarren eta inguruko auzotarren bizimoduari lotuta, eta, azken urteotan, lurzoruen erabilpena alde batera uztearekin batera, egunerokotasunean presentzia galduaz joan da, lokaztu egin da... baina horrelako altxor bat ezin genezake ahaztu, ezinbesteko da gatzagarren mugikortasun iraunkorrerako eta bailara lotzeko". Horrela adierazten digute ekimeneko kideek.

Aurrekariak dituen egitasmoa

Lau kilometro eta 300 metroko tartea konpondu eta txukuntzea eskatuko dute. Gatzaga Kuartuena-arekin eta, modu horretan, bailarekin lotzeko. Bidea eza-gutzeko, zapatuko ibilaldian parte hartzeko gonbidapena egiten diete antolatzaileek bailarako herritarrei. Lineako autobusa 15:50ean irteten da Eskoriatzatik Gatzagarantz.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Terraza jartzeko arazoekin



Olazar erretiratuen tabernakoek ez dute aukerarik terraza jartzeko. Plaza aldera, ondoko komertzioek beraien espazioa hartzen dutela adierazi dute, eta beste aldean, Gernika plazan, toldorik jartzen ez diola uzten Udalak, kultura etxeko eraikina ondare kulturala dela adierazita.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

'Zirku txiki' ikuskizuna izango da San Juan bezperan

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, *Zirku txiki* ikuskizuna izango da ikusgai Leintz Gatzagako Dorletako santutegian, 12:00etatik aurrera.

Agurtzane Telleriaren gidaritzapean, aurtengo ikasturtean ikasten diren haurren eta nagusien taldeek ikuskizuna eskainiko dute. Haurren taldekoek, familiakoek musikarekin

lagunduta, ikuskizuna eskainiko dute, lehenbizi, eta ondoren, nagusien ikuskizuna izango da.

13:00etan, berriz, tailerrak hasiko dira. Lehenbizi, Agurtzane Telleriak aire akrobazia ikuskizuna eskainiko du, eta azalpenak emango ditu. Gero, Xabi Larreak eskujoko ikuskizuna eskainiko du, eta bertarartzen direnek probatzeko aukera ere izango dute. Ostean, luntxa egongo da, eta amaitzeko, *slackline* eta *akroyoga* guneetan dibertitzeko aukera izango da.

SANJUANAK 2018



- Egitaraua
- Txosnetako egitaraua
- Kartel eta esaldi lehiaketak
- Errementari dantzak 25 urte
- Street Boulder txapelketa
- Eguzkilaru, berritasunekin
- Danborrak gertu jaietarako
- Makala eta kamiseta
- Sanjuanak 'Artgazkitan'
- 'Zeuk iñ, zeuk jan' + Dragoi-jana
- Izaro Andresi elkarrizketa
- Jaietan, zer?

IMANOL SORIANO



ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Gora San Juan jaiak!

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA



Etxe-Lan

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97

RED sare teknika

FAGOR 

 ARISTON

CANDY

Whirlpool CORPORATION



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala

FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

GURE BEZEROAK:



35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

*San Juan jai
zorientsuak!*

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)



ALKATEAREN AGURRA

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA

Herriko festez gozatzera

Konturatu garenerako urte erdia igaro da jada, eta, urtero legez, ekaina iritsi ahala, arrasatearrak hasi gara dagoeneko San Juan jaietarako egunak zenbatzen.

Izan ere, San Juan jaiek esanahi berezia dute guztiontzat. Herriko festa kuttunetariakoak ditugu eta arrazoiak asko eta anitzak dira, festez gain beste hainbat gauza ospatzen baititugu: udaren sarrera, ikasturte amaiera, egun argi luzeak, oporraldiak...

Sanjuanak, gainera, urteko pasarte txarrak zein buruhaustek alde batera utzi eta elkartasunean, lagun zein familia giroan gozatzeko festa apartak dira.

Horretarako, alegia, prestatu dugu, urtero bezala, jai egitarau zabala zuontzat guztiontzat, haur, gazte zein helduentzat, arrasatear zein kanpotarrentzat, urtetik

ELKARTASUNEAN, ERRESPETUAN ETA BERDINTASUNEAN OINARRITUTA, GOZA DEZAGUN FESTEZ

urtera, San Juan jaiak festa ahaztezinak izan daitezten. Programa hori ilusio eta esfortuz beteriko lanaren emaitza da eta guztion gustukoa izatea espero dut, bihotzez. Halaber,

lerro hauen bitartez nire eskerrik beroenak ere eman nahi dizkiet programa hori eta San Juan jaien antolakuntza, oro har, posible egin duten guztiei.

Baina, noski, festak ez dira festa, herritarren parte hartzerik gabe. Horregatik, guztiak gonbidatzen zaituztet elkartasunean, errespetuan eta berdintasunean oinarrituta, herriko festez gozatzera.

Edonola ere, ez nioke agur honi amaiera eman nahi, Udal honek genero indarkeriarekiko duen aurkako jarrera adierazi gabe. Indarkeria matxistarik ez dugu nahi herrian eta Udaletik generozko edozein motatako erasoak irmoki gaitzetsi eta salatuko ditugu beti.

Arrasatek ez du eraso sexistarik onartzen. Ez ezetz da!

Atera gaitezen guztiok kalera, eta Arrasatek eta, bereziki, arrasatearrok ondo merezi dugulako, gozatu dezagun herriko jaietz! Gora Arrasate eta gora sanjuanak!

SANJUANAK 2018 EGITARAUA

EGUBAKOITZA 15

19:00 Uarkape frontoian ESKU PILOTA PARTIDAK. San Juan txapelketaren finalak.

19:30 Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako BALLET IKUSKIZUNA.

ZAPATUA 16

09:00 Seber Altube plazan, hileroko III. ZAPATUETAKO BASERRITARREN AZOKA.

16:00 Buenuena jatetxean 22. MUS TXAPELKETA.

17:00 Uarkape frontoian DEBARROKO 71. PILOTA TXAPELKETAKO finalak.

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCEK antolatuta. Ibilbidea: Biteri plaza, Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako Errebala, Erdiko kalea, Herriko Plaza.

DOMEKA 17

HAUR DANTZARIEN EGUNA

10:00 Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak. Ondoren, txistulariekin KALEJIRA.

11:15 Herriko kaleetan zehar DANTZA ERAKUSTALDIA.



IMANOL SORIANO

Umeen danborrada

Sanjuanetako egun handien aurrerapen modura, ohi bezala, oraingo asteburuan, haurren danborrada izango da ekitaldirik nabarmenena. *Biteri plazatik Herriko Plazara, kaleetan barrena, zapatuan, 19:00etan.*

13:30 Talde guztiak Herriko Plazan elkartuko dira.

17:15 Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Gero, DANTZALDIA DJ AMAIArekin. Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitak dantza taldeek antolatuta.

19:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren KONTZERTUA: Elai abesbatza.

EGUBAKOITZA 22

18:00 Txosnen irekiera.

19:30 HERRIXA DANTZAN Seber Altube plazan, Portalo elkartek antolatuta.

21:30 KANTU AFARIA Jose Letona plazan SEI PISTOLS ETA TRABUKO BAT taldearekin.



Leintz
GARRAIOAK, S.L.

Ondo pasa
sanjuanetan!

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
txangoak, ezkontzak, sagardotegiak, e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pareda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



22:00 Txosnagunean talde gazteen KONTZERTUA: Libertad Condicional eta Nafarroa 1512.

ZAPATUA 23

SAN JUAN BEZPERA

12:00 Txosna batzordeak antolatuta TXUPINAZOA. Ondoren, triki-poteoa.

14:30 Herri BAZKARIA Uarkape pilotalekuan. Txosna batzordeak antolatuta.

16:30 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik. Ondoren, Seber Altube plazan PATATA TROPIKALA taldearen AZKEN EGUZKILOREA izeneko haurrentzako emanaldia.

17:00 TXOPO-POTEOA INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.

18:00 Herriko Plazan MAKALA jasotzea.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA (8-15 urte) eta ondoren gaztebo guztientzako zezenboak eta poneyak. Antolatzailea: Bergarako Zezenak.



Errekortadoreen erakustaldia

Zezen-plazan entzierroak goizetan eta errekortadoreen erakustaldiak izango dira. Azken hori domekan, 24an. Bezperan, gazteboen txapelketa. *Zezen-plazan, domekan, 19:30ean.*

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren SALBE SOLEMNEA.

21:00 ERREMENTARI DANTZA Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCEk antolatuta.

23:00 Erromeria txosnagunean Garia 26 taldearekin.

DOMEKA 24

SAN JUAN EGUNA

08:30 DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN.

08:30 Izenbako barangak girotuta, zezenketei altematiba. Txosna batzordeak antolatuta.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Jose Maria Arizmendiarieta plaza. Gero, zaleentzat bigantok zezen-plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko Erraldolen eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA. 11:30ean, Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta gaiteroekin.

12:00 Herriko Plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa.

12:30 Ebaluzen (Abaroa) OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN.

17:00 Herriko kaleetan zehar STREET BOULDER txapelketa, txosna batzordeak antolatuta.

18:00 OLINPIADAK txosnagunean.

19:30 ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA zezen-plazan.

19:30 KALEJIRA erdiguneko kaleetan zehar Arrasateko gaiteroekin eta Arrasate Musikaleko haize taldearekin.

21:00 Herriko Plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

23:15 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa pirotekniaren eskutik.

23:30 Monterron parkean DEMODE QUARTET taldearen azken ikuskizuna: *Musikal guztiak ia ia.*

23:30 Herriko Plazan OIHAN VEGAREKIN DISKOFESTA.

01:00 DJak txosnagunean: The Bio Mac.

ekidegroup

DISEINUA · INGENIARITZA · PROTOTIPOAK · SERIE MOTZAK
KONTROL TRESNAK · IKUSPEN ARIFIZIALA

Ondo pasau Sanjuanak!

www.ekide.es

Telleria kalea 2, Arrasate - 943 71 25 43



GOIENA

Diskofesta

Aurten ere Oihan Vega izango da Arrasateko San Juan jaietan. San Juan eguneko gaua alaituko du, erritmo dantzagarrienekin. *Herriko Plazan, domekan, 24an, 23:30ean.*

Maddalen Arzallus eta Iñaki Viñaspre. Gai jartzaileak: Oihana eta Haizea Arana.

22:30 Herriko Plazan SONIDOS DE MEXICO mariatxiaren KONTZERTUA.

23:00 KONTZERTUA: GLAUKOMA eta ANITA PARKER taldeak txosnagunean.

MARTITZENA 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00 Arrasateko Erraldioen eta Kilikien Konpartsaren kalejira.

12:00 Herriko Plazan EUSKO LABELKO Produktuak DASTATZEA Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

18:00 MARKELIÑE taldearen CHEF NATURE ikuskizuna Biteri plazan.

19:00 Seber Altube plazan Lore Gazteak taldearen DANTZA EMANALDIA.

20:00 KONTZERTUA Herriko Plazan: IZARO.

ASTELEHENA 25**HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA**

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00-14:00 Biteri plazan, ikusmenarekin jolasten, bizitza eskuetan, gurpil aulkiaren magia, sormen-gunea, puzgarriak, aurpegi margotzea... Monterronen, ipuin

kontalariak, Saharako jolasak, oihaletatik zintzilik, ur zirkuitua...

12:00 Karaokea Biterin.

12:30 Azokan *Zeuk in zeuk jan* BAZKARIAren prestaketa.

12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA.

12:45 EGUZKILARUren ongiatorria eta makal txikia jasotzea Biteri plazan.

13:00 APAR FESTA Biterin.

13:00 HERRI KALEJIRA txistulariekin.

14:30 *Zeuk in zeuk jan* kuadrillen arteko HERRI BAZKARIA Azoka plazan. Udalak sagardo-kupel bat jarriko du parte hartzaileentzat.

17:30 Txosna batzordeak antolatuta Eonian Elektrotxaranga, azokatik.

19:00 SONIDOS DE MEXICO mariatxi taldearekin KALEJIRA.

19:00 PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTSen *Borobilean* ikuskizuna Monterronen.

20:00 BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan, AEDK antolatuta. Partaideak: Unai Gaztelumendi, Oihana Bartra,

Oharrak

- *Zeuk eñ zeuk jan* bazkarirako izen ematea, ekainaren 14tik 19ra, Udalaren webgunean: www.arrasate.eus.
- Jose Maria Arizmendiarieta plazan kokatuko den zezen-plazaren edukiera 1.400 lagunekoa da.
- Zezen ikuskizunei buruzko araudia onartzen duen 183/2008 Dekretuaren arabera: 16 urte baino gutxiagoko adingabeok ezin dute tradiziozko toreo ikuskizunetan parte hartu; ikusle gisa bakarrik joan ahal izango dira –Errekortadore Eskola izeneko ekintzetan izan ezik–.
- Ekainaren 25ean Lurraldebus gaueko autobus zerbitzu berezia izango da: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergara artean.

ALDEDI Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 · ARRASATE · Tel.: 943 79 13 05 · Faxe: 943 79 13 84


Ekitaldiz eta aldarriz betetako egitaraua

Kondekuako txosnagunean askotariko hamaika ekitaldi antolatu dituzte jaiatzeko, baina aldarrikapenak ere balioan jartzeko. Herri bazkarian eta olinpiadetan parte hartzeko dei egin dute, eta, horretarako, izena emateko

Mireia Bikuña ARRASATE

Ekainaren 22tik 25era egongo dira zabalik Kondekuako txosnak. Gazte olinpiadak, herri bazkaria, kaleko boulder txapelketa, kontzertuak, bertso saioak, presoan aldeko manifestazioa eta beste hainbat egongo dira. Ikasle Aberzaleak, Mirentxin Gidariak, Ttak!, Askapena eta Euskal Herriaren Euskaraz taldeek osatu dute sanjuanetako egitaraua.

Ekainaren 22an zabalduko dituzte txosnak Monterron ondoko zelaian. "Arrasateko eta kanpoko herritarrek ederto pasatzeko" egitaraua osatu dutela diote. Era berean, diote parrandararako ez ezik, "aldarrikapene-



Makala jasotzeko gertu, iaz. GOIENA

rako gune" ere izango dela txosnagunea. "Preso politikoaren, euskararen, internazionalismoaren, independentziaren, sozialismoaren eta feminismoaren alde". Eta gaineratu dute "gune irekia" izango dela eta ez dutela eraso matxistarik edo homofoborik onartuko.

Bazkarirako txartelak

Hilaren 23ko herri bazkarirako txartelak salgai jarri zituzten joan zen astean, Irati, Jai Zale eta Iluntz tabernetan, 18 eurotan. Bestalde, hilaren 24an egingo dituzten olinpiadetan parte hartu gura dutenek Jai Zale tabernan eman beharko dute izena.

Txosnaguneko egitaraua

Lau egunerako antolatu dituzte ekitaldiak txosnagunean. Egubakoitzean irekiko dituzte ateak, baina hurrengo egunean jaurtiko dute txupin ofiziala. Herri bazkariaren ostean etorriko da, gainera, txopo-poteoa eta makala jasotzea, Herriko Plazan. Glaukomaren kontzertua nabarmendu behar da.

Egubakoitza 22

- 18:00 Uliak talde antiespezistaren informazio puntua Arbolapetan.
- 18:00 Txosnagunearen irekiera.
- 22:00 Libertad Condicional eta Nafarroa 1512 taldeen kontzertua.

Zapatua 23

- 12:00 Txupina txosnagunean.
- 12:30 Triki-poteoa.
- 14:30 Herri bazkaria.
- 17:00 Txopo-poteoa.

- 18:00 Makala jasotzea Herriko Plazan.
- 23:00 Erromeria, Garilak 26 taldearekin.
- 00:00 Solstizio iluna.

Domeka 24

- 08:30 Zezenketa alternatiboa Izenbarikuak txarangarekin.
- 17:00 Kaleko boulder txapelketa.
- 18:00 Olinpiadak.
- 19:00 Elkarretaratzea zezen-plazan.
- 01:00 DJ emanaldia.

Astelehena 25

- 14:30 Zeuk in, zeun jan bazkaria.
- 17:30 Eonian elektro-txaranga.
- 19:30 Presoen aldeko manifestazioa.
- 20:00 Bertso saioa Seber Altube plazan.
- 23:00 Glaukoma eta Anita Parker taldeen kontzertua.

Jose Aranzabal
Etxetresna elektrikoak eta osagarriak



Ausartu eta alaitu zure txokoa kolorezko hozkailuekin
Aukera zabala, preziorik onenean!



Iturriotz 15 - Tel.: 943 79 15 16 • aranzabal@activahogar.com

Dragoia, dantzak, sua eta euskara, jaietako ikurrak

San Juan jaiak eta egitaraua ezagutzera emateko ezinbesteko 'merchandising'-eko material dira jai egitaraua, kartelak, zapiak eta pegatinak. Kartelaren egilea Leire Arregi da; zapiko esaldiarena, Aimar Elortza. Biak ere, mondragoetarrak

Eneko Azkarate ARRASATE

Arrasateko jaiak ilustratzeko irudia aukeratzeko antolatzen du lehiaketa Udaleko Kultura Sailak, eta hamalau diseinuren artean Leire Arregirena izan da irabazlea. 750 euroko diru-saria jaso du. Herriko ikur diren dragoia eta udaletxea erabili ditu. Arte Ederretan lizentziaduna da eta sorkuntza eta ilustrazioa dira haren espezialitateak. Ez da lehenengo aldia kartelak eta ilustrazioak egiten dituen, baina bai bere lanak lehiaketa batera aurkezten dituen. Horregatik, ustekabeen eta poz-pozik hartu zuen irabazle atera zela esan ziotenekoa.

Arregirendako, "ohore handia" da bere lana herriko etxeetan eta kalean euskarri ezberdinetan ikustea. "Langabezian nago eta lehiaketaren berri izan nuenean parte hartzea erabaki nuen", dio. Lanerako materiala erosteko erabiliko ditu 750 euroak. Kartelaren ezaugarriak buruz galdetuta, dio, lehenengo, marrazkia eskuz egin eta, ostean,

KARTEL LEHIAKETARA HAMALAU LAN AURKEZTU DIRA ETA ESALDI LEHIAKETARA, 70 PROPOSAMEN

ordenagailuarekin koloreztatu zuela. "Arrasateren ikono nagusi den dragoia erabili nahi nuen; hori hasieratik neukan garbi. Gero, udaletxea, errementari dantza eta San Juan suak dira marrazkian ageri diren beste elementuak". Aurten 25 urte betetzen dira errementari dantza egiten hasi zirela, eta, horren berririk ez bazuen ere, bere alde jokatu duela aitortzen du.

'Jaiak suaz eta euskara zuaz'

Aimar Elortzarendako ere lehen aldia zen sanjuanetako esaldi lehiaketan "edo antzekoetan" parte hartzen zuena. "Lehiaketa martxan jarri zela jakin nuenean,



Leire Arregi, eskuko programarekin, Herriko Plazan. ENEKO AZKARATE

parte hartzea pentsatu nuen, eta, momentuan buruari apur bat emanda, hiru esaldi edo lelo bururatu zitzaizkidan" dio. Horietako bat izan da, azkenean, irabazlea. 100 euroko saria jaso du *Jaiak suaz, euskara zuaz* esaldiarengatik. "Harro eta gustura" dagoela dio, bere esaldi bat "herriko jaietako zapietan ikusteagatik". AED elkarte, Debagoieneko AEK, Arrasateko EHE eta Arrasateko Udala dira antolatzaileak. 70 proposamen aurkeztu dira aurten, "inoiz

baino gehiago", antolatzaileen esanetan, eta parte hartzaileak 30etik gora izan dira.

Arrasateko Udalak 10.500 esku-programa banatu ditu etxerik etxe eta beste 200 kartel, kalean eta establezimendu publikoetan. Horretaz gain, 1.200 zapi more kolorekoak, esaldi irabazleekin, tabernetan salgai jarriko dituzte 1,5 eurotan, ekainaren 21ean, eta beste 4.000 pegatina banatuko dituzte jaietako kartelako marrazkiarekin eta lehiaketako esaldi irabazleekin.



Unibertsitatearen eta enpresen arteko harremana ezinbestekoa dela iruditzen zaigulako, "Learning by doing" gure DNAren parte da.

Duela 50 urtetik, ikasleek lana eta ikasketak partekatzen dituzte **eredu dualari** esker. Pertsonetan oinarritutako unibertsitate kooperatiboa da gurea.

Etengabeko eraldaketara bideraturik dagoen gure hezkuntza proiektuak errealitatea du ikasketen oinarri, etorkizunari aurre hartzea ezinezkoa izanagatik, gure ardura delako datorrenerako prest izatea, enpresek, erakundeek eta gizarteak oro har izango dituen beharretara egokitzeko.

Learning from reality



BERRITZAILEA



PRAKTIKOA



HURBILA



KONPROMETITUA

www.mondragon.edu



Arrasateko dantzariak, errementari dantza egiten, Seber Altuben. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Herriko Plazan, suaren inguruan.

Errementari dantza: 25 urte herritarrak batzen

Aurten mende laurdena beteko du Jose Ramon Vitoriak bultzatu eta San Juan jaien ikur bilakatu den errementari dantzak. Herritik eta herriarendako sortutako pieza elkarlanaren eredu argia da, Arrasateko hainbat taldek hartu zuten-eta parte sorreran

Miren Arregi ARRASATE

Euskal Herrian kea, sua eta sorginkerietarako unea da San Juan eguna. Ura, sendabelarrak eta sua protagonista bilakatzen diren unea. Ez dira protagonista bakarrak. Suaren inguruan egiten diren dantzak dira-eta San Juan jaietan nabarmentzen diren beste elementu bat. Arrasaten, 25 urte dira errementari

dantza San Juan bezpera girotzen hasi zela. 25 urte, musika, pau-soak eta herriko historia batzen dituen dantza herriko jai nagusien hasieraren ikur bilakatzen hasi zenetik. Eta herriko gazte askok eta askok errementari dantzarik bako jairik bizi izan ez badute ere, duela 25 urte, ez gehiago, sortu zen dantza da. Aurten, 26. aldiz egingo da.

Arrasatear baten sorkuntza

Jose Ramon Vitoria arrasatearra da errementari dantzaren *aita*. Eta ez da herrian erroto den dantza bakarraren egilea, hura da-eta santamasetan egiten den txerri dantzaren sortzailea ere. Txerri dantza neguko solstizioarekin lotutako dantza da; errementari dantza, berriz, udako solstizioarekin lotutakoa.

Hain justu ere, txerri dantza izan zen Jose Ramon Vitoriak herriko beste hainbat talderekin batera elkarlanean sortu zuen lehen lana. Gero etorri zen errementari dantza. Izena Arrasaten burdingintzak izan duen garrantziaren ikur da. Jose Ramon Vitoriak doinua konposatu zuen lehenik. Horretarako, Legazpiko Mirandaolara joan zen eta bertan entzun zituen kolpe gordinen hotsetan oinarritu zuen errementari dantzaren doinua. Tarte tristeago bat ere badu dantzak, eta horrek burdingintzan aritzen ziren askoren eta askoren heriotza gogorarazi gura du. Ofizio arriskutsua zen, eta, tamalez, jende asko hiltzen zen.

Dragoia, ikuskizunerako

Errementari dantzaren ikuskizunean protagonismo berezia du dragoiak. Dragoi itzela da,

ikuskizunerako propio eginda-koa, eta horrek berezi egiten du Arrasateko San Juan sua. Herri gehienetan San Juan bezperako ezinbesteko osagai dira sua eta dantza, baina Arrasatekoa besteetatik bereizten duena da herriko kaleetan lehenengo eta plazan ondoren agertzen den dragoia. Hala, dragoiaren presentziarekin, Arrasateko kon-dairarekin lotura zuzena egiten du ikuskizunak.

Dragoiarena Haritz Soluperen ideia izan zela gogoan du Jose Ramon Vitoriak. Arrasate Musikaleko Orkestrako musikaria

**SUA, BURDINA,
DRAGOIA ETA
ELKARLANA DIRA
ERREMENTARI
DANTZAREN OINARRI**

Uarkape
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

RPS: 294/13

- Odontologia orokorra
- Endodontziak
- Implantologia protesiak

Ondo pasa
San Juan
jaixetan!

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85



Erraldoia, plazara sartzen.



Maria Ubarretxena alkatea, alpagata sutara botatzen.



Musikariak errementari dantzan.



Dragoia eta sua.



Dantzariak makilekin.

zen Solupe eta Ingeniaritza ikasketak egiten ari zen une hartan. Hark egin zituen dragoiaren diseinua eta maketazioa. "Debako Arte Eskolan egin genuen orduko dragoia. Sei metro zituen, oraingoa baino askoz handiagoa zen, beldurgarriagoa", dio Jose Ramon Vitoriak. Orduko hura hondatu egin zen, ordea, eta duela hamar bat urte egin zuten gaur egungoa.

Elkarlanaren fruitua

Idea ikuskizun bihurtzeko, herriko hainbat talderen arteko elkarlana ezinbestekoa izan zen. Txistulariak, trikitilariak, gaiteroak, musika banda eta dantza taldeak. Doinuari pausoak ipintzearena Lore Gazteak dantza taldearen lana izan zen. "Jose Ramon Vitoriak bazuen udako solstizioarekin lotura zuen ikuskizun bat buruan. Burdinarekin

eta dragoiarekin zuen lotura eta guri eman zigun doinuari dantza ipintzeko ardura", gogoratu du Lore Gazteak dantza taldeko Xeli Arregik. "Herri mailako talde bat gara, baina Vitoriak konfiantza zuen gugan eta lanari ekin genion". Denbora tarte bat eman zuten dantza sortzen. Astean bi bider elkartzen ziren taldeko sei-zortzi lagun, errementari dantza osatzen duten piezei mugimendua ipintzeko -lau pieza ditu dantzak: aurreko paseoa, alkate dantza, ingurutxoia eta polka-.

Aurreko paseoaren dantza osatzeko, Jose Ramon Vitoriak burdina erabiltzea proposatu zuen, baina dantza taldeko kideek zail ikusi zuten. Hala, kontuan izanda burdina egiteko sua behar dela eta sua egiteko egurra, paseoa egur makilekin egitea bururatu zitzaion. Plazan egiten

diren alkate dantza, ingurutxoia eta polka sortzeko, berriz, beste dantza batzuetako pausoak hartu eta moldatu zituzten. "Dantzak sortzen gindoazen heinean, dantza taldeko gainontzeko kideei erakusten genien sortutakoa, eta denon artean joan ginen forma ematen. Alkate dantza Gipuzkoako pausoetan oinarrituta sortu genuen, Juan Ignazio Iztuetak jasotako Gipuzkoako pausoetan".

25 urteotan bere bidea egin du errementari dantzak eta ikuskizunaren arrakasta handituz joan da, gaur egun, sanjuanetako ikur bilakatzeraino. "Oso polita da zer bilakatu den ikustea. Ikastoletako umeek ere ikasi egiten dute eta herrian dantzatu egiten da", dio Arregik.

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, 21:00etan hasiko da errementari dantza.

Errementari, egia bihurtutako ametsa

Pozez eta harrotasun puntu batez begiratzen dio Jose Ramon Vitoriak errementari dantzak 25 urte hauetan egin duen bideari. Herriatik eta herriarendako sortu zuen pieza, eta bete-betean asmatu zuen. "Ez nekien zein bilakaera izango zuen lanak eta orain ikusten dut bizirik iraun duela, eta ez soilik bizirik iraun, indarra ere hartu du-eta urteekin".

Bi alderdi nabarmendu ditu Vitoriak 25 urteko ibilbidearen gainean galdetuta: batetik, dantza ikasi duten eta San Juan bezperan herriko kaleetan barrena lehenengo eta plazan ondoren dantzan ateratzen diren horiengan sortu duena; eta bestetik, herritarrendako duen balioa. "Transmisioa egon da, dantza belaunaldi desberdinek ikasi dute eta oraindik ere asko eta asko dira urtero ikasten duten gazteak".

Izan ere, dantza tradizio bihurtu da. Gainera, herriatik eta herriarendako egindako pieza bere egin du Arrasateko jendarteak. "Azken finean, ekimenean ikusle gisa parte hartzen duten herritarrak ere badira bilakaeraren erantzulea".

Erabat errotuta ikusten du Jose Ramon Vitoriak dantza eta gazteek arretaz eta oso modu bizian jaso dutela nabarmendu du. Horrek bereziki hunkitzen du. "Oso polita da, niretzat, egin duen bidea begiratzea. Amets bat da, egia bihurtuta".

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Gora
sanjuanak!



Kaleko hormak epaile, Street Boulder sariketan

Eskaladazaleek aukera bikaina izango dute kirol horretaz gozatzeko San Juan jaietan; izan ere, azken urteetako ohiturari jarraituz, Street Boulder txapelketa egingo dute herriko kaleetan zehar; ekainaren 24an izango da, 17:00etan hasita

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ekainaren 24an, San Juan egunean, Street Boulder txapelketa egingo dute herriko kaleetan zehar, azken urteetako ohiturari eutsiz. Hala, herriko zein bailarako haurrek Arrasateko hormetan eskalatzeko aukera izango dute. Kepa Bruñak, antolakuntzako kideak, azaldu duenez, edozeinek hartu dezake parte: "Normalean, maila handia duten eskalatzaileek erraz egiten dituzte hemen prestatzen ditugun blokeak. Agian, gehiago izaten da eskalatzen hasiberriak diren horiendako, oso maila handirik ez dutenendako. Azken finean, ikasteko ere balio izaten die".

Izen-ematea ordu erdi lehenago irekiko dute, txosnetan. "Izena ematen duen eskalatzaile kopuruaren arabera, talde ezberdinak egingo ditugu. Adin guztietako eskalatzaileak izaten ditugu, baina, gehienbat, gazte-txoak", adierazi du Bruñak.

Ohi bezala, herriko kaleetan hainbat gune prestatuko dituzte. "Alde zaharretik asko urrundu gabe, bost edo sei bloke ezberdin jartzen ditugu. Parte-hartzaile kopuruaren arabera, batzuk ez ditugu egiten edo berriak asmatzen ditugu, daukagun denboraren arabera". Horrez gain, gaztetxoenei begira, bloke errazagoak prestatzen

dituzte. Hala ere, "jendeak gusurago ikusten ditu bloke altuagoak", Bruñaren esanetan.

Helburua da "kirol hori herrian ezagutaraztea eta, nola ez, eskaladaz gozatu eta ondo pasatzea".

Puntuazioa

Txapelketan eskalatzaileek egin beharreko lanari erreparatuta, paretan ibilbide moduko bat markatzen dute antolatzaileek, eta ibilbide hori egin beharko dute parte-hartzaileek. Puntuazioa ere horren baitakoa izaten da. "Ibilbidea lehenengo saiakeran egiten duenak puntuazio hobea izango du hirugarrenean egiten duenak baino".



Eskalatzaile bat herriko horma batean, 2016ko txapelketan. GOIENA

SAN JUAN JAIK 2018

ZUZENKO EMISIOA

MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA
ETA DANBORRADA ZUZEN-ZUZENEAN

- PLAZAKO PANTAILA ERRALDOIAN
- STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS-EN ETA ARRASATE.EUS-EN
- GOIENA TELEBISTAN, 17:45EAN ETA 21:15EAN

HEMEN DEBAGOIENA

JAIEN GAINENKO LABURPEN ZABALA

EKAINAK 25, ASTELEHENA, 18:00, 20:00, 22:00
EKAINAK 26, ASTEARTEA, 18:00, 20:00, 22:00

JAIK: SAN JUAN JAIK 2018

JAI EI ESKAINITAKO SAIO BEREZIA

EKAINAK 27, ASTEAZKENA, 21:00, 23:00



Hainbat berrikuntzarekin dator Eguzkilaru

Ohi bezala, sanjuanetako ekintza sorten artean dira Txatxilipurdik antolatutakoak. Tartean, haur eta gaztetxoek festa eguna egingo dute ekainaren 25ean. Aurten, nerabeen parte hartzea sustatzeko ekintzak ere izango dira egun horretan

Iker Oñate ARRASATE

Aurtengo sanjuanetan ere ez du hutsik egingo Eguzkilaruk –ekainaren 25ean egingo dute haur eta gaztetxoek festa-. Eta hainbat berrikuntzarekin dator, gainera. Besteak beste, haurrei begirako ekintzetara mugatu barik, antolatzailerak akorduan dituzte nerabeak. Haiendako zenbait ekintza antolatu dituzte Txatxilipurdikoek: tirolina erraldoia, *Geuk ein, geuk jan* bazkaria... "Arrasateko jaietan mugatua da 9 eta 16 urte bitartekoendako eskaintza. Erronka horri heldu diogu", diote bultzatzaileak.

Horrez aparte, izango da bestelako berrikuntzarik ere: Mon-



Eguzkilaru eta bere laguntzaileak, eguaztenean, Biteri plazan. TXATXILIPURDI

terron parkean egingo dituzte zenbait ekintza. "Naturarekin dugun harremana indartu egin nahi dugu. Horretarako, jolaserako gune bilakatu nahi ditugu herrian dauden naturaguneak", argitu dute Txatxilipurdikoek.

Eta, bestetik, eguneko tailetan ere nabariko da aldaketarik. Esaterako, herriko aniztasuna kontuan izanda, hainbat ekintza antolatu dituzte Aspacerekin eta Ekinekin elkarlanean: Saharako jolasak, ipuin kontalaria, gurpil aukiarren magia...

Eguzkilaru berria

Era berean, Eguzkilarurengana ere helduko da aldaketa, nerabe baten esku dago eta hari bizia ematea –Aimar Conde-. Eta Gorka Davilaren eta David Vargasen laguntza izango du, gainera. "Gogotsu gaude. *Txatxilipurdi* abestiaren bideokliparen grabazioan ere parte hartutakoak gara, Eguzkilaru eta bere laguntzaileak izatea zer den dastatuz. Asko gustatu zitzaigun esperientzia. Errepikatzea erabaki dugu, beraz. Egun polita egingo dugu denon artean!", aitortu du hiru koteak.

Hori bai, betikoan dirau helburu nagusiak: San Juan jaietan umeei jai euskaldun eta erakargarria eskaintzea. "Jolasa eta euskara erdigunean, Txatxilipurdik dituen oinarriekin dihardu Eguzkilaruk. Tartean, ama lurrarekiko errespetu handiz eta aniztasunaren aldeko lanean –elkarbizitza oinarri, betiere-, azaldu dute Txatxilipurdikoek.

Egitarau oparoa

Hainbat ekintza antolatu dituzte ekainaren 25erako. Bada, haur eta gaztetxoek bi jolasgune izango dituzte eguna hasteko, Biterin eta Monterronen. Eta, era berean, *Geuk in, geuk jan* bazkaria prestatzen jardungo dute nerabeek –eurentzat sorpresa izango da ostean-. Ostera, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunak emango dio bukaera egunari –19:00etan hasiko da-.

**AURTEN, 25EAN,
NERABE BATEK
JANTZIKO DU
EGUZKILARUREN
JANTZIA**

Jai herrikoi,
parte hartzaile eta
parekideen alde

**GOZATU
SANJUANAK!**

ehbildu



Iazko Nagusien Danborrada, Garibai etorbidetik igarotzen. GOIENA

Danborrak prest dituzte San Juan jaietarako

Aurten, bigarren urtez, Eva Romero izango da San Juan bezperan egingo den danborradako zuzendari nagusia, eta, prestaketa lanak bide onetik doazela adierazi duen arren, Mondra taldearen konpainia ez dela izango jakinarazi du

Imanol Beloki ARRASATE

Ekainaren 23an, zapatuan, San Juan bezpera izango da, eta San Juan suaren ostean hasiko da nagusien danborrada, 23:00etan. SUDCek antolatuta, Biteri plazan hasiko da danbor-joleen ibilbidea, plazan amaitu arte, eta herriko

kaleetan zehar entzun ahal izango dira danbor hotsak. Ibilbidea honako hau izango da: Biteri plaza, Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako Errebala, Erdiko kalea eta Herriko Plaza.

Iaz, bederatzi konpainiaz osatuta, 200 pertsonatik gora izan

ziren danborradan, eta Eva Romero izan zen lehenengoz zuzendari nagusia. Aurten ere, hura izango da zuzendari lanetan. "Ez dugu jakingo azken momentura arte zenbat pertsona izango garen danborradan, baina Mondrako taldea ez da

"Beti hartzen dugu gogoz eta alai danborrada"

IBAN DIAZ
MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

Duela sei urte hasi zen Musakolako konpainia San Juan jaietako danborradan parte hartzen, eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

Nola joan dira danborradako entseguak?

Duela hiru aste inguru hasi ginen entseguetan, eta, urduri samar gauden arren, prest gaudela uste dut.

Musakolakoek baino hobeto gutxiak joko dute, ezta?



IBAN DIAZ

Musakolako konpainia 30 lagun inguruk osatzen dugu, eta danborra profesionalen moduan jo ez, baina beti gogoz eta alai.

Egunen batean izango duzue Musakolako danborrada propioa?

Baliteke... Eginez gero, ederra litzateke. Ikusiko dugu; agian, urteren batean egingo dugu. Hala ere, jendea animatu beharra dago, danborrada gal ez dadin.

irtengo, ez baitute taldea osatu. Beraz, zortzi konpainia izango gara. Horrez gain, prestaketa lanak ondo doaz; izan ere, maiztaren azken astea ezker, astelehen eta eguaztenero ari gara entseatzen, fin-fin".

Arrasatekoek, garrantzia

Guztira, 10-12 pieza joko dituzte ibilbide osoan, nahiz eta oraindik ez dituzten finkatu. "Entseatu, guztiak entseatu ditugu, baina ez dut uste denak joko ditugunik. Arrasateko kantuek

izango dute preferentzia: *Gora Arrasate* piezak eta Danok Bat, Udalpe eta Amaika Gazte elkar-teetakoek. Izan ere, danborrada arrasatearra eskaini nahi dugu, gurea".

Berrikuntza barik

Iaz, berrikuntza moduan, kantu berri bat jo zuten, eta aspaldiko beste bat berreskuratu. Aurten, ordea, ez da berrikuntzarik izango. Txarangak lagunduta arituko dira danborra jotzen, sanjuanei hasiera ederra emateko.

JAIK SUAZ, EUSKARA ZUAZ!!

Ederto pasatu!



arrasate
euskaldun
dezagun



txatxilipurdi

Urdin kolorekoa izango da makalaren igoera

Kamisetaren irudia Ane Zuazubizkar eta Iñaki Telleria arrasatearrek egin dute. Bertan, herriko alde zaharra azaltzen da, bihotz formarekin. Kamiseta soinean dutela, gazteek 17:00etan ekingo diote txopo-poteoari. 18:00etan altxatuko dute makala

Miren Arregi ARRASATE

Ekainaren 23an San Juan bezpera gaua ospatuko da mundu osoko eta Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan. Urteko egunik luzeena da San Juan bezpera, eta sua piztuta eta txarrak bertara botata ospatu ohi da egun hori. Udako solstizioari lotutako festa eta ospakizuna da, kristautasuna ezarri baino lehenagokoa.

Sua pizteaz gain, gau horri loturik dauden hainbat ohitura eta sinismen mantendu dira Euskal Herrian mendeetan zehar. Landareek, adibidez, garrantzi handia izan dute udako solstizioaren ospakizunean. Baserri zein etxeetako sarrera zein balkoietan, lizar edo haritz adarrak ipintzen ziren, etxea babestuta mantentzeko helburuarekin.

Makala, hasieraren adierazle

Gehiago ere badira egun horri lotuta Euskal Herrian dauden ohitura edo usadioak eta horie-


tako bat da herriko plazan landare bat landatzeko ohitura. Nekazariendako, adierazgarria den ekintza da hori. Arrasateko plazan, urtero bezala, makala ipiniko dute San Juan bezperan. Jaien hasiera irudikatuko da horrekin, beste hainbat tokitan egiten den moduan.

Beti bezala, 17:00etan abiatuko dira makalarekin herriko gazteak, txosnagunetik. Txopo-po-

teoa egingo dute eta 18:00etan, plazan jasoko dute hori. Makalaren igoerak ez ditu buruko-min gutxi eman izan eta hainbatetan erori ere egin da igoeraren unean. Duela urte batzuetatik hona, mugatu egin da makala igotzeko unean parte hartzen duen jende kopurua. Horrela, orekatuagoa da, alde batetik, eta, bestetik, egiten den indarra eta, ondorioz, igoera, seguruagoa.

Kamiseta berria


Makalaren igoeran, urtero kolore bat da protagonista; gazteek soinean jantzita daroaten kamisetarena. Aurtengo kolorea urdina izango da eta kamisetaren irudian Arrasateko alde zaharra ageri da, bihotz formarekin. Ane Zuazubizkarrek eta Iñaki Telleriak egin dute irudiaren diseinua. Kamiseta eskuratu ahal izango da herri bazkarirako txartelekkin batera. Horiek erosteko aukera egongo da Irati, Jaizale eta Iluntz tabernetan, 18 euroren truke.



Kamisetaren irudia. TXOSNA BATZORDEA



laz, pantaila erraldoia ipini zuen Goienak plazan. GOIENA



Gazteak, makala plazara eroaten. GOIENA



2015eko irudi bat. GOIENA



2014an, Herriko Plazan, gazteak makala igotzen. GOIENA

JMA[®]

GORA ARRASATE,
GORA SAN JUAN!!

Belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz

IFAM

Jaietako une berezienak betikotzeko gonbidapena

ArtGaztik laugarrenez antolatu duen lehiaketarako argazkiak ekainaren 27rako (22:00) aurkeztu behar dira ('lehiaketak@artgazki.org'), eta saritan 650 euro eta afari bat emango dute; lehiaketako lau sariturekin izan da GOIENA, erretratuen errepeaso bat egiteko



Sebastian Lozano. JOKIN BEREZIARTUA

"Makalaren igoera ikuskizun bat da"

lazko sari nagusiaren irabazlea izan zenez, aurtengo lehiaketa iragartzeko karteletako argazkia Sebastian Lozanorena (Arrasate, 1968) da. "Makalaren igoera beti iruditu zait gertutik jarraitu beharreko ikuskizuna dela eta iaz bertan egon nintzen. 200 milimetrotako teleobjektibo batekin dago aterata argazkia, Herriko Plazako iturritik udaletxera begira; hasieran, bazirudien erlojuak molestatu egiten zuela, baina bere ukitu bat ematen dio argazkiari. Makalaren igoera zein ordutan hasi zen esaten digu". Lozanok ez zuen sari nagusia jasoko zuenik espero eta "sorpresa oso atsegina" izan zela du gogoan. Aurtengo jaietan ere irtengo da kamerarekin, oraindik zein ekitalditara joango den erabaki ez badu ere: "Beti dago kamerarekin bueltatzea eman beharra, eta argazki batzuk aterako ditut".

"Denok dugu ideia on bat, ziur nago"

Erretratu ezberdin baten bila joan zen Antonio Murillo (Arrasate, 1963) iaz, eta Trikitixa Eskolako argazkirako jartzea eskatu zien. "Ideia zen makala bandera eta guzti ateratzea, baina zerua oso gris zegoen eta zaila zen argiak konpentsatzea". ArtGazki elkarteko kidea da Murillo eta dio iaz oso maila handia egon zela: "Gutxi aurkeztu ziren, baina irabazteko hautagai zirenak oso onak ziren; epaimahaiarendako bereziki zaila izan zen argazki bat

aukeratzea, baina asmatu zuten. Guk ez dugu lehiaketa irabazi nahi, jendeak parte hartzea baizik". Izan ere, Murillok argi dauka argazki on baterako ez dela kamera profesionalik behar: "Enkoadraketa eta une perfektua harrapatuz gero, mugikor batekin atera daiteke argazki irabazlea. Denok dugu ideia on bat, ziur nago". Horrez gain, uste du lehiaketak maila mantendu behar duela: "Hobe da batzuetan sari bat eman gabe uztea".



Antonio Murillo. JOKIN BEREZIARTUA



Ondo ibili
sanjuanetan!

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA
Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

"Momentua antzeman eta atera beharra nuen..."

Sanjuanetako ezinbesteko osagai diren erraldoien kalejira Herriko Plazara heldu zenean ikusi zuen argazkia Iñigo San Vicentek (Arrasate, 1963). 2016ko lehiaketako sari nagusia irabazi zuen, gainera, detaile eder bezain ezberdina erakusten duen argazkiarekin:

"Erraldoien eta Kilikien Konpartsako kide batzuk ezagutzen ditut eta haiekin batera joan ginen kalejiran alde zaharreko kaleetan barrena, Herriko Plazan deskantsua hartu zuten arte. Orduan ikusi nuen umeak erraldoietatik sartu eta irten ari zirela eta pentsatu nuen

argazki kurioso bat ateratzeko modukoa zela. Hainbat atera eta hau [argazkiari seinalatzen] bidaltzea erabaki nuen". San Vicentek uste du umeak eta haren keinuak egiten dutela berezi argazkia: "Uste dut argazki ezberdina dela, originala. Momentua antzeman nuen eta argazkia atera beharra zegoen...", gaineratu du.

Argazki ederra zela jakin arren, ez zuen 2016ko San Juan Jailetako sari nagusia eramango zuenik espero. Azaldu duenez, "ederrena" da umeari erretratu oparitzeko aukera ere izan zuela: "Umea ezagutzeko aukera izan nuen eta ilusio handia egin zion umeari eta, bereziki, amari. Horixe izan zen pozgarriena". Bestalde, aurtengo jailetako azken egunean bakarrik egongo da Arrasaten: "Ekitaldi ikusgarrienak igarota egongo dira, baina ez naiz alde zurrerako ideia batekin irteten den horietakoa. Beraz, ea zer aurkitzen dudan..."



Iñigo San Vicente. JOKIN BEREZIARTUA

"Ez dakizu epaimahaiak zer baloratuko duen"

Eskarmentu handia duen beste argazkilari bat da Juan Luis Elizaran (Arrasate, 1955) eta urtero bere kamerarekin jasotzen dituen ekitaldien artean San Juan jaiak gorritz markatuta izan ohi ditu. Izan ere, urtero irteten da herriko jai nagusietan kamerarekin. ArtGazkik antolatutako lehiaketan saritua izan zen erretratutik, suak ematen duen argitasuna da berezia, haren ustez: "San Juan suak oso argitasun berezia ematen dio argazkiari. Dantzariak argizatzen ditu eta Arrasateko alde zaharreko eraikin horiek modu difuminatuan ageri dira suaren argi berezi horri esker". Horrez gain, argazkiaren konposizioa "bikaina" dela dio Elizaranek. Argazkiarekin oso gustura geratu arren, ez zuen saria jasotzerik espero: "Epaimahaia aditu ezberdinek osatzen dute eta sekula ez dakizu zein argazki aukeratu duten. Urteak daramatzat lehiaketetan parte hartzen eta uste izan dudanean irabazteko moduko argazkia aurkezten nuela, sari barik geratu izan naiz. Eta alderantzizkoa ere gertatu izan zait. Sekula ez dakizu epaimahaiak zer baloratuko duen".

Aurten ere, dioenez, ahaleginak egingo ditu jailetako une berezienak betikotzeko. Badu ideia bat buruan, baina, ulertzekoa denez, ez du publiko egin nahi izan: "Jaiak bukatu ostean esango dizuet ea buruan nuen hori gauzatzea posible izan den..."



Juan Luis Elizaran. JOKIN BEREZIARTUA

SAN JUAN

Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zanetan
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.

Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixoak egari
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure
zerbitzura*



Dragoi-txuletak parrilan erretzen. GOIENA

Herri bazkari eta afariak jendearen gustukoak dira

'Zeuk in zeuk jan' bazkaria eta San Juan eguneko afaria, dragoi-jana, dira sanjuanetako hitzordu garrantzitsuenetako bi. Garaiz ibili behar izaten da erreserbak egiteko eta txartelak erosteko. Herritar asko batzen dira bi jatordu horietan

Oihana Elortza ARRASATE

Ekainaren 25ean izango da *Zeuk in zeuk jan*, astelehenean. Bazkaria norberak preparatu eta norberak jateko egitasmoa. Jaietako egitarauan pisua hartu duen hitzordua. Arrasatearrek kontuan hartzen dute. Joan den urtean, esate baterako, erreserbak egiteko epea zabaldu eta ordu gutxira, herritar ugari

egina zuen erreserba. Bazkalteko, 1.100 lagun elkartu ziren azokan.

Aurten ere azokan egingo da *Zeuk in zeuk jan* bazkaria. Eta hango edukiera gainditzen bada, Mondragones kalean egokituko dute tokia, espazioa handiagoa izan dadin, denak sartzeko modukoa. Ordutegian ere ez da aldaketarik egongo: 12:30etik

aurrera joan ahal izango da bazkaria prestatzera eta 18:30erako trasteak jasota eta azoka garbi egongo beharko da.

Txuletak

AEDk eta AEKk elkarrekin antolatzen duten dragoi-jana da sanjuanetako beste hitzordu garrantzitsu bat. Horrek ere toki eta egun finkoa ditu: ekainaren

Epea zabalik eta txartelak salgai

Jendetsuak izaten dira *Zeuk in zeuk jan* eta dragoi-jana. Bazkarirako aurretik egin behar izaten da erreserba, eta, horretarako, Arrasateko Udaleko atarian sartu behar da. Helbidea www.arrasate.eus da, eta bertan sartu eta ekainaren 25erako tokia hartu behar da, bazkaria prestatzeko. Joan den urtean, adibidez, epea zabaldu eta gutxira herritar ugari egina zuen tokiaren erreserba.

Dragoi-janerako ere beste horrenbeste gertatzen da. Sarrera gehienak aurrez saltzen dira eta dragoiaren okela jan gura duenari garai ibiltzea komeni zaio, egunean bertan txartel gutxi egoten dira-eta batzuetan. AEDko bulegoan erosi behar dira txartelak; prezioa 10 euro da.

24an, 21:00etan, Herriko Plazan –eguraldia txarra bada, azokan–.

Aurreko urteetan bezala, parrila berotu eta soseguz erreko dituzte dragoi-txuletak. Pio Azkarate, Unai Bergaretxe eta Oskar Elizburu dira azken urteetan parrilaz arduratu direnak eta aurten ere hantxe egongo dira. "Normalean, hirurok ibiltzen gara, baina lau lagun ere egon izan gara inoiz. Iluntzean, 20:00etan, pizten dugu ikatza eta ordubetera hasten gara txuletak erretzen. 400 txuleta inguru erretzen ditugu eta saiatzen gara denak puntuan egoten, gatza eta berakatza botata. Geuk ere hartzen dugu tartea jateko, noski. Erre ahalaz, zatitu egiten ditugu batzuk, tarteka geuk jateko. Ke eta okela usain galantarekin joaten gara etxera, baina gustura eta pozik. Urtean behin bakarrik egoten da aukera dragoi-okela jateko!", dio Elizburuk.

Aurten, gainera, erronka berezia izango dute prestatzaileek: betiko menuaz gainera, hamburgesa begetalak ere egongo dira. "Gero eta jende gehiago da okelarik jaten ez duena eta ez dugu nahi janaria izatea

arrazoia jendea afaltzera ez etortzeko. Aurten, hamburgesa begetalak egongo dira, eta hori afaldu gura duenak aurrez esan behar du AEDn", azaldu du Itxaro Artolak.

Dragoi menua, trikiti soinuak, euskal kantuak, tribial umoretsua... San Juan eguneko afaria bete-betea izango da, beste behin. Txartelak salgai daude, AEDn eta Irati, Jai Zale eta Monte tabernetan, ohiko prezioan: 10 euro txartel arrunta eta 8 euro AEK-ko ikasleek eta AEDko bazkideek. "400 txartel atera ditugu, eta denak saltzen dira. Joan den urtean 40 baino ez ziren gelditu egunean bertan saltzeko, beste guztiak aurretik saldu ziren, eta bat baino gehiago dragoia afaltzeko gogoz gelditu zen. Etorri gura duenak txartela aurrez har dezala, badaezpada", dio Artolak.

HANBURGESA BEGETALAK ERE EGONGO DIRA AFALTZEKO DRAGOI-JANEAN



ARRASATE
Foruen Enparantza
San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46



Iker Oñate ARRASATE

Ibilbide oparoan murgildurik da Iزارo Andres Zelaieta musikaria (Mallabia, 1993). Gaur-gaurkoz, kaleratu berri duen *Eason* diskoaren aurkezpen kontzertuekin dihardu buru-belarri. Eta ibarrean ere izango da horren zantzurik: San Juan jaietan egongo da, esaterako. Zehatz esanda, ekainaren 26an eskainiko du kontzertua, Arrasateko plazan, 20:00etan hasita. Oro har, "oso pozik" dago lan berriak izandako harrerarekin. Aukera aprobetxatuz, bere lanaz, orain artekoak eta agertoki atzekoak jardun du Andresek.

Eason bataiatu duzu azken lana.

Hala da. Finean, Donostian bizi izandakoari egindako omenaldi txiki bat bezalakoa litzateke *Eason* diskoa. Donostian, ni naizenari, urte hauetan izan garenoi. Hala sentitzen dut neuk. Eta, nola ez, horretan geratu barik, diskoak bitarteko izan gura du jendeak autoaurkikuntzarekin bat egin dezan. Besteak beste, Donostian neure burua aurkitu nuen garaikoak azalarazten ditut. Dena den, ez nuen gura tokia guztiz mugatu, jendeak identifikazio askeak egin ditzan, nork bere kasuaren arabera. Besteak, atzera begira, esan ohi da erromatarrek La Bella Easo bataiatu zutela egungo Donostia. Beti gustatu izan zait izen hori. Eta, hori gutxi balitz, esan beharra dut Easo plazarik gertu bizi izan naizela neu. Horregatik guztiagatik aukeratu nuen *Eason* izena.

Otsailean aurkeztu zenuen lan berria. Zelako harrera izan du?

Oso ona. Oso pozik nago orain artekoarekin. Jendeak beso eta bihotz zabalik jaso du azken lana: energia positibo asko datorkit bueltan, harrera ona dute

"Jendeak beso eta bihotz zabalik jaso du diskoa"

IZARO ANDRES ZELAIETA MUSIKARIA

San Juan jaietan, herriko plazako agertokian izango da Iزارo Andres musikaria. Ekainaren 26an eskainiko du kontzertua, 20:00etan hasita



Iزارo Andres musikaria, gitarra alboan duela. IZARO ANDRES

kontzertuek, bete egiten dira plazak, jendeak topera abesten du... Zoragarria da hori.

Besteak beste, hori bera eroango duzu Arrasateko agertokira. Nork berea eskaintzen du...

Duda barik. Nork berea eskaintzen du; hori da egia bakarra.

"SENTSAZIOAK, PERTSONAK, EGOERAK, ARGIA, ITSASOA... DITUT INSPIRAZIO ITURRI"

Zehaztasun handiagoz erantzute aldera, baina, ez dakit zer esan dezakedan. Emanaldira etorri eta norberak ikusi dezala. Hori da geuk eskainitakoa gogoko duzun edo ez ikusteko modurik onena. Galtzekorik ez dago, behintzat! Musika, erosotasuna, umorea...

Baduzu agertokira igo aurretiko edo emanaldian zeharreko maniarik?

Trebeagoak izan ohi gara besteen maniak edo ohiturak identifikatzen geureak identifikatzen baino. Baina, esatearren: agertokira igo aurretik sarri noa

komunera, soilik bandakoekin egon ohi naiz -umore muturtu barregarrian-, isiltasuna da nagusi... Bestetik, ez dut uste emanaldian zeharreko maniarik dudarik. Dena den, hurrengo kontzertuan erreparatuko diot horri.

"NEKATUTA GAUDE. FRUSTRAGARRIA DA MUSIKARION EGOERA; OSO TRISTEA, ERA BEREAN"

Bestetik, sortzaile orok du inspirazio iturri bat...

Bai. Nire kasuan, egunerokotasuna bera eta horren bueltako elementuak lagungarri dira abestiak sortzeko. Besteak beste, sentsazioak, pertsonak, sentimenduak, egoerak, argia, itsasoa... ditut inspirazio iturri.

Gainera, hizkuntza ezberdinak dabilzkizu zeure abestietan.

Bai. Halaxe datoz; eta halaxe jasotzen ditut, besterik gabe. Esan daiteke aurrez zehaztu bako zerbaite dela. Finean, ez dut uste gai bakoitzari hizkuntza zehatz bat dagokionik.

Eta, musika estiloari dagokionez ere, muga barik diharduzu.

Egia esan, konposatzen nabileranean ez diot musika estiloari erreparatzen. Datorrena datorrela, horri helduta noa. Sekula ez dut horren gaineko kontrolik izan. Norbaitekin koreografiarik gabe dantzan hastea bezala da, funtziona dezake edo ez. Finean, nahiko muga ditugu inguruan ezarriak; ez naiz neu izango gehiago eraikiko dituen. Beraz, musika libreki irten dadin uzten dut. Norbera ere harritzen du, batzuetan, sormenak.

Garaiak garai, oro har, nola dago musikaren mundua?

Horri dagokionez, egia esan, ez naiz horren baikorra. Desastre samar atzematen dut musikaren mundua. Baldintza ez duinetan egiten dugu lan, oraindik oso luzea da profesionalizazio duinera heltzeko bidea. Besteak beste, ez dagoelako gure egoeraren inguruko kontzientzia sozialik, ez da ikusten, jendeak ez daki, maila instituzionalean ezer gutxi egiten da laguntzeko, zailtasunez betea dago musikaren mundua... Nekatuta gaude, oso frustragarria da; oso tristea, era berean.

Udarako presta zaitetz!

AMAGARA
Estetika Zentroa

Azal polita, gorputz energikoa
eta aurpegi perfektua

San Juan
jai zoriontsuak
guztioi!

Oraindik garaiz zabilta... Dei egiguzu!

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



EKAINAK 22

Sei Pistols Eta Trabuko Bat
Jose Letona plazan, 21:30ean.

Azken urteetan egin ez den arren, aurten berriz egingo dute kantu afaria San Juan jaien barruan. Tripa ondo beteta euskal abestiak kantatzeko aukera polita izango da.

Libertad Condicional
Txosnagunean, 22:00etan.

Musika eskaintzaren barruan, Arrasateko ordezkarik bakarretakoak dira. Punk-rock doinuak jotzen dituzte, eta Arkada Social taldearen bertsioak ere bai. Aukera polita izango dute herritarren aurrean zer egiteko gai diren erakusteko. Duela lau urte sortu zuten taldea, 12 eta 13 urte zituztenean, eta laster lehen diska grabatu nahi dute.

Nafarroa 1512
Txosnagunean, 23:00etan.

Talde arbizuarrak *Garraxirik sakonena* lana kaleratu zuen martxoan, kolaborazio garrantzitsuekin. Berriki, Altsasuko gazteen aldeko abesti bat ere egin dute. Irailera bitartean zazpi kontzertu emango dituzte, eta Arrasatekoa izango da horietako lehena.

DJ Jkin Alonso
Irati tabernan, 00:00etan.

Namek Planet taldeko gitarrista da hura, baina, horrez gain, musika elektronikoa ere ekoizten du. House eta techno estiloen arteko nahasketa gisa definitzen du bere soinua artista elorriarrak. Martxoan kaleratu du lehen lana; hiru abestiko EP bat da eta Miamiko Bedroom Muzik zigiluaren babesa du.



Glaukoma taldeko partaideek txosnagunea beteko dute ekainaren 25ean. BIDEAN PRODUKZIOAK

Musikaz blai, denondako jai

Udalaren eta txosna batzordearen egitarauetan presentzia nabaria du musikak, eta Glaukoma eta Izaro puntako musikariak izango dira Arrasaten. Horrez gain, herriko taldeek, dantzaldiek eta tabernetako DJek osatuko jaietako eskaintza musikala



Rukula Iratin arituko da. IONMARKEL.COM



Sei Pistols taldeko kideak. SEI PISTOLS



Libertad Condicional. L.C.

EKAINAK 23

Garila 26 taldea
Txosnagunean, 23:00etan.

Erromeria talde bizkaitarrak txosnagunea alaituko du, Herriko Plazan San Juan sua dagoen bitartean. Taldea 2011 amaieran sortu zen eta zuzeneko emanaldietan erakusten duen intentsitatea, bizitasuna, da haren bereizgarri nagusia.

EKAINAK 24

Arrasate Musikaleko Banda
Monterronen, 13:00etan.

Sanjuanetako kontzertua joko du Mikel Markiegi buru duen taldeak. 11:30ean, Seber Altubetik abiatuta, kalejira egingo dute konpartsakoekin eta gaiteroekin. Behin Monterronen, bost piezako emanaldia egingo dute, eta horien artean izango dira *Celia!* eta *Congas del fuego nuevo* abestiak.

Rukula
Irati tabernan, 19:00etan.

Rukula taldea espezialista da jende guztia dantzan jartzeko orduan. Can't Explain eta Desegin taldeetako partaidez osatuta dago, eta musika instrumentala jorratzen dute. Batez ere, funk, rock, stoner eta metal estiloetako zipriztinekin osatzen dute euren koktel berezia.

Demode Quartet
Monterronen, 23:30etan.

A capella estiloan trebe moldatzen den taldeak ahots erakustaldia egingo du Monterrogo oholtza gainean.



epele

Caldereria

35 urte!

Musikal guztiak ia ia izeneko *show*-a taularatuko dute, euren hirugarren lana dena, hain zuzen ere. Mikel de la Fuentek, Iker Huitzik, Joli Pascualenak eta David Roscoc osatzen dute laukotea.

Oihan Vegarekin, diskofesta Herriko Plazan, 23:30ean.

Esatari bergararraren ikuskizuna jaietako klasiko bihurtzeko bidean dago. Beste behin, gaztetxoak dantzan jarriko ditu dantzalekuetan arrakastatsu dauden abestiekin.

DJ The Big Mac Txosnagunean, 01:00etan.

Jon Ander Alberdi eta Eñaut Zubizarreta aretxabaletarrek osatzen dute DJ bikote hori. Disko jartzaile lanetan aritzeaz gain, umorearen bitartez ondo pasatzeko aukera izango da. Orokorrean, musika elektronikoa izango da entzungai; house, drum-and-bass eta db step estiloetako abesti dantzagarriak jarriko dituzte.

EKAINAK 25

Karaokea Biterin, 12:00etan.

Haurren eta gaztetxoeren festa eguneko ekintzetako bat izango da, non hurrek eta gurasoek dantzan eta abesten aritzeko aukera paregabea izango duten.

Sonidos De Mexico Herriko Plazan, 22:30etan.

Sonadun mariatxi talde hori duela 20 urte sortu zen Arizonako Tucson hirian. Makina bat jaialdi

garrantzitsutan hartu dute parte urte hauetan zehar. Batzuk aipatzearen, Mexikoko Jalisco hirian egiten den Mariatxien Nazioarteko Topaketan, Rosarito Beach Mariatxi jaialdian eta Albuquerque egiten den Mariachi Espectacular jaialdian, besteak beste. Kontzertua eman aurretik, ordea, kalejira egingo dute erdialdeko bazterretan zehar.

Anita Parker Herriko Plazan, 22:30ean.

Anita Parker osatzen duten taldekideak Arrasate, Bilbo eta Lakuntzakoak dira, nahiz eta bilerak eta entseguak Arrasaten egiten dituzten. Anita Parker taldeko Ane Martinez Zango taldean ibilitakoa da, Olatz Anduezak Skalariak taldean jo zuen eta Iñaki Bengoak eta Jon Zubiaga Osoronek Gose taldearen eskarmentua dute. Swing estiloa jorratzen dute, nagusiki; betiere, ikusleak dantzan jartzeko asmoarekin. 2017an sei abestiko lehen lana kaleratu zuten, eta berriki La Furia abeslari nafarrarekin batera biolentzia matxista salatzen duen *Orfidal* kantua grabatu dute.

Glaukoma Herriko Plazan, 22:30ean.

Irungo, Donostiako eta Tolosako kidez osatutako boskotea da, baina taldeak Tolosako Bonberenea gaztetxean du egoitza. Euskal Herrian arrakastatsu dabiren taldeetako bat da, eta horren adierazle garbia da Arrasatera egin zuten azken bisita. Aurtengo Kooltur Ostegunak zikloko lehenengo



Demode Quartet-ek ahots erakustaldia egingo du Monterronen. DEMODE QUARTET



Anita Parker taldea izango da txosnaguneko beste talde erakargarri bat. ANITA PARKER



DJ Lorok Iluntz taberna dantzan jarriko du ekainaren 25ean. MUSIKAZUZENEAN

kontzertuan, gaztetxea goraino betetzeaz gainera, 200 lagundik gora geratu ziren sarrerarik gabe. Euren hirugarren lana aurkeztuko dute, *Kalima* izeneko, eta Karlos Txap-ek ekoiztu duena. Bertako *Gure Kaiola* abestiarekin, ziur txosnagune osoa ze *guapa* zauden abesten jarriko dutela.

DJ Loro Iluntz tabernan, 00:00etan.

Glaukomaren kontzertua amaitzerakoan, reggae egarriarekin jarraitzen dutenek Iluntz tabernan izango dute hori asetzeko aukera. Kodigo Norte taldeko ekoizle eta DJ denak dancehall, reggae, hip hop eta jungle doinuak jarriko ditu gauerditik aurrera.

DJ Stepy Seletah Irati tabernan, 00:00etan.

Bad Sound System taldeko DJ tolosarrak reggae estiloko doinuak jarriko ditu Irati tabernan, DJ Loreoren ordu berean.

Izaro Andres Herriko Plazan, 20:00etan.

Raimundo Amadorren eta Gatillazoren testigua hartuz, San Juan jaiei agur esateko ohorea izango du Izarok. 2014an hasi zuen ibilbide musikala, *Om* izeneko lehen lanarekin. *Paradise* abestiari esker ezagun egiten hasi zen, eta horri esker bere ahotsaren izaera berezia entzuleen belarrietan iltzatzen hasi zen. Egun, Julen Barandiaran, Iker Lauroba eta Oriol Flores musikariak ditu bidelagun eta horiekin batera aurkeztuko du *Eason* azken diskoa.



San Juan jai zoriontsuak!



Zelan ospatuko dituzu sanjuanak?

JUAN ANTONIO BARRIOCANAL

"Duela 10 urtetik, herrian geratzen naiz beti. 26an, Eusko Label okelaren jaia antolatzen dugu Goikobaluko kideok, eta kale egin ezin dudana ekin-tza horietako bat da. Lehengo jaiekin alderatuz, jendea, orain, egun gehiagotan irteten da. Lehen, adibidez, jaietako hirugarren eguna oso garrantzitsua zen, sokamuturra eta zezenak zituen egun bakarra zelako".



PLACI GARCIA

"Niretzako, galdu ezinezko ekintza danborrada da, zalantza barik. Iaz, nire alabak zuzendari lanak egin zituen lehen aldiz, baina ni ospitalean ingratuta nengoen. Hala ere, medikuari baimena eskatu nion, eta udaletxeko balkoitik ikusi ahal izan nuen. Danborrada albo batera utzita, errementari dantza, su artifzialak eta San Juan sua ere asko gustatzen zaizkit".



JOSU HERRERO

"Gehien gustatzen zaidan eguna bezperakoa da, baina azken urteetan lan kontuengatik ezin izan dut gozatu. Aurtan, libre izango naiz; beraz, lagunekin ospatuko dut; afalostean errementari dantza eta danborrada ikusi, eta ondoren parranda apur bat. Gaueko giroa da gehien gustatzen zaidana. Lehen, zezen-plazaraino eusten nion, baina orain, goizago noa etxera".



MAIALEN AXPE

"23an bakarrik izango dut jaiez gozatzeko aukera. Hurrengo astean Mediterraneoko Jokoetan lehiatuko naiz, eta 18tik 23ra ere txapelketatan murgilduta izango naiz. Egun guztiak gustatzen zaizkit, baina, bat aukeratu beharko banu, 23a aukeratuko nuke. Errementari dantzan parte hartu izan dut, trikitilari, eta oso momentu hungigarria dela iruditzen zait".



GAZTEZULO

EDORTA AIASTUI

"Arrasate Musikaleko kide naizenez, jaietan lan egitea tokatzen zait: errementari dantza, sanjuanetako kontzertua, txaranga... Baina herrian giroa jartzea gauza atsegina da, eta gustura egiten dut. Nire ustez, 23an gauza gehiegi kontzentratzen dira. Danborrada, adibidez, beste egun batera aldatuz gero, herriko musikariekin egin ahal izango litzateke".



MAIDER ALCELAY

"Kale ikuskizunak gustatzen zaizkit: antzerkia, musika... Horrez gain, makalaren igoera asko gustatzen zait, gazteen indar hori ikustea. Aurtengo ekitaldiari dagokionez, Izaroren kontzertua eta Markeliñe taldearen antzerkia ditut begiz jota. Ipuin kontaketa bat daukat herritik kanpo 26an, baina espero dut Izaro hasi orduko Herriko Plazan egotea".



**OPEL GRANDLAND X SUV BERRIA
AZKEN TEKNOLOGIAREKIN SORTUA. ZATOZI!**

Ondo pasa sanjuanetan!!!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA

TAKOLO
AUTOAK

San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10



Urteurreneko ekitaldien antolaketa lagundu duten herritarrak eta udal ordezkariak, eguazten arratsaldeko aurkezpenean. IKER OÑATE

750 urte beteta, aurrera begira

Aurten Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete direla gogoratzeko ekitaldi garrantzitsuenen berri eman dute Udalak eta orain arte mahai ezberdinetan lanean aritu den herritarren ordezkariak; 'B750!' aldizkariaren lehen zenbakia banatu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarar gehienek dagoeneko etxean jasoko zuten *B750!* aldizkaria, Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete zituela gogora ekartzera datorren aldizkariaren lehen zenbakia. 16 orrialdetan barrena, hainbat atal interesgarri irakurri ahal izango ditu bergararrak, eta konturatuko da, besteak beste, herritarrek parte hartze zuzena izan dutela urteurren berezia

gogoratzeko ekitaldiak antolatzeko eta egituratzeko orduan. Eta azken orriko agenda ikusiz gero, begi bistakoa da abenduaren 13ra bitartean askotariko erakusketa, ibilbide, kontzertu, hitzaldi eta bestelako ekintzak antolatu direla.

Ekain amaieratik aurrerakoak izango dira ekitaldi esanguratsuenak, baina dagoeneko gauzatu dira hainbat ekimen: Bergarako historiaren bizkarrezu-

rraren sintesi liburuxka aurkeztu da –eta doan dago eskuragarri Udal Artxiboan, liburutegian zein www.bergara.eus atarian–, Mariaren Lagundiaren Ikastolak Erdi Aroko azoka antolatu zuen, Aratus-teetan Bedelkarko komertzioek Erdi Aroko *look*-a hartu zuten, Madura elkarteak irabazi zuen 750. urteurreneko pintxo lehiaketa *Trampantojoa* izeneko gutziarekin...

Herria balioan jartzeko aukera

Elena Lete alkateak eguazten arratsaldeko aurkezpenean azaldu zuenez, urteurrenaren harira antolatutako ekintzek balioko dute, besteak beste, Bergarako altxorrek balioan jartzeko: "Gurean dauden eta egunerokoan arretarik ematen ez diegun hainbat altxor balioan jartzeko balioko digu, gure bidelagunak direnei merezitako keinua egiteko, gure balioak berraztertze, alor guztietako sormena hauspotzeko, berdintasunean ekiten jarraitzeko eta Bergara hobea bermatzeko. Bide batez, bergarar izaera harrotasunez aldarrikatzeko".

Mahai historiko-zientifikoko kide Miguel Angel Elkoroberezibarrek nabarmendu zuen ekimenotatik asko dagoela ikasteko eta erakusteko: "Batzar, argitalpen, erakusketa eta hitzaldi hauek gure herria hobeto ezagutzeko eta ikertzen segitzeko aukera ezin hobea eskaintzen digute".

Aipatu gabe gera ezin daitekeen ekitaldi bat izango da, zalantzarik gabe, ekainaren 29an San Martin plazan ikusi ahal den "kontzertu errepikaezina" Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek aurreratu zuen emanaldi "berezi bezain hunkigarria" izango dela: "Ikuskizun erraldoi bat diseinatu dugu eta herriko musika elkarte gehienok murgilduta gaude ikuskizun berezi hori prestatzen".

ELENA LETE: "BERGARAR IZAERA HARROTASUNEZ ALDARRIKATZEKO BALIO IZANGO DIGU"



M. A. ELKOROBEREZIBAR
MAHAI HISTORIKO-ZIENTIFIKOA

"Pentsaera eta ibilbide ezberdinetako kideok, talde-lanean, gure herriaren historiaren ildo eta mugarrak nagusiak identifikatzen saiatu gara, Historiaurretik XX. mendeko azken laurdenera arte, Bergarako historiaren bizkarrezurra agerian utziz. Badugu zer ikasi eta zer erakutsi!".



MARIJE UGALDE
KULTURA-MAHAIA

"Lan handia izaten ari da, baina ilusio handiz gabilta. Ordu eta erdiko ikuskizun errepikaezinean, Bergarako arteak eman duena gogora ekarriko dugu, puntako musikaz disfrutatuko dugu eta gure herriaz, izan garenaz eta garenaz, gehiago ikasiko dugu. Errepikaezina izango da".



GOTZON ARZELUS
VERBERGARA EKIMENA

"Bergara edo Vergara abizena dutenekin eta gure herriarekin loturaren bat dutenekin komunitatea sortu nahi dugu. VerBergara marka baliatuta, Instagram, Facebook eta LinkedIn kontuak sortzen ari dira herriko hainbat gazte. Ikus gaitzate, ezagutu gaitzate, bisita gaitzate!".

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskoauri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Angiozar Bailarako Batzarra osatzen duten bizilagunetako batzuk, eskolaren kanpoaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Angiozarrerako proiektuaren zain

AHTaren Bergarako lotuneko lanak hastear direla, Angiozarren etorkizuna bermatuko duen proiektu bat eskatzen ari da bertako batzarra, eta azken urteotan jasandako obrak eta beste esku-hartze batzuk gogorarazi dituzte instituzioei kontraprestazioak eskatzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

"Modu naturalean egiten dugu berba Angiozarko bailararen gainean edo diogu gure herria Angiozar dela. Eta auzoen inguruan ari bagara, Angiozarko auzoez ari gara. Eskema horiek apur bat txokatu egiten dute...". Angiozarko alkate Jose Angel Mikeo hitz horiekin saiatu da azaltzen Angiozarrek duen izaera berezia. 1927ko desanexiora arte Elgetako lurretan izan zen ofizialki eta gaur egun Bergarako lurretan dago. Gaur egun, hamabost kilometro koadro inguruko azalera, 315 bat bizilagun bizi dira, auzo ezberdinetan banatuta -Goimendi, Zabaletamendi, Asentzio, Marindao, Partaitia, Azkuneta, Errekaldea eta kalea-.

Angiozarren jaio eta bertan "oso gustura" bizi den Ramon Loitiren arabera, 100 baserri inguru egongo dira egun baila-

ran. "Ondare naturala bakarrik ikusita, argi dago orain dela 2.000 urte baino gehiagotik Angiozar gizakiaren bizileku izan dela eta belaunaldi belaunaldi arbasoek ondo zainduta utzi digutela bailara, toki emankorra den seinale. Hau horrela izaten jarraitzeko, denon lana eta indarra behar ditugu".

Interes orokorrak, Angiozarri kalte Angiozar Bailarako Batzarren arabera, landa-eremuan bizitzek badakar zerbitzuen alde-tik herrigunean baino gabezia gehiago onartzea: "Prest gaude

100 BASERRI INGURU, 315 BAT BIZILAGUN ETA 15 KILOMETRO KOADRO HARTZEN DITU BAILARAK EGUN

onartzeko zerbitzu eta errepide sare apalagoak izatea edo azpiegituretan zein mantentze-lanetan beste leku batzuetan baino gutxiago inbertitzea. Angiozarren bizitzearen aldeko apustua egiten dugu, eta, orain arte frogatu den moduan, gure inguru naturala, kultura eta ohiturak zaintzen ahalegintzen gara edonoren gozamenerako".

Edozelan ere, industrializazioak eta ekonomiaren garapenak zein gizarte ereduaren aldaketak azpiegitura berriak egiteko erabakiak ekarri izan ditu Angiozarrera eta bizilagunen batzarrak salatzen du "den-denak" esleitu dizkietela: "Gizarte osoarentzat beharrezkoak erabaki diren azpiegitura askoren eragin negatiboa pairatu dugu, eta, bitartean, bertan bizi garenon beharrei ez zaie behar den moduan erantzun".



Eskola txikiko ikasleak eta irakasleak. AMAIA TXINTXURRETA

Eskola txikia, etorkizunerako hazia

Egun martxan dagoen Debagoieneko eskola txiki bakarra da Angiozarkoa. Hiru gelatan daude banatuta Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko 32 ikasleak eta proiektuz proiektu egiten dute lan, adin askotariko ikasleekin. Hurrengo ikasturterako hiru ikasle gehiago izango dituzte, eta hori "oso pozgarria" da, eskolako zuzendari Iñaki Artolaren ustez: "Norbanakoari oso begira dagoen heziketa jasotzen dute. Oso garrantzitsuak diren lehen urteak inguru abegikorrean pasatzen dituzte". Mikeok ere eskolaren garrantzia nabarmendu du: "Herri izaeraren adibide garbia da. Beti izan dugu argi eskola mantendu beharra zegoela; duela 250 urte ere eskola zegoen eta une okerrenetan ere mantendu egin da. Gainera, azken urteetan eskola bera familiak erakartzeko bidea izan da, eta esan behar da eskola txikian ikasi genuenok gura izan dugun lekura heldu gara".

"Harreman zuzena izango dugu obrek iraun bitartean, eraginak txikitzeko"

ELENA LETE BERGARAKO ALKATEA

Udalak zer egin du AHTak Angiozarren eragin ditzakeen kalteak ahalik eta gehien arintzeko?

Tratatze osoan Udalak Jaurilaritzarekin harreman zuzena izan du, azpiegitura ahalik eta ondoan uzartzeko gure lurraldean. Proiektu garaiaren harreman hori izan dugu eta asmo bera dugu obrara begira. Aurrerantzean harremana Adifekin eta enpresarekin izango dugu, baina espero dugu tarte horretan ere Jaurilaritza bidelagun izatea. Obrek iraun artean hainbat kalte sortzea posible da, eta enpresarekin harreman zuzena izango dugu, obraren mugimenduak eta eraginak ahalik eta txikiak izateko.

Bestalde, Udalak badu beste esku-hartzerik aurreikusita Angiozarren?

Udalak beti planteatu izan dio auzoari proiektu egingarriak



J.B.

martxan jartzea. Beheko kaleko urbanizazioa, eskolaren egoera aztertzea, baserri-bideren bat egoera eskasean badago hori hobetzea... Azken finean, auzoaren bizitza hobetuko duten esku-hartzeak.

Nolakoa da Udalaren eta Angiozarko alkatetzaren arteko harremana?

Harreman etengabea dugu, eta Angiozarren bertan birritan elkartu gara. Garrantzitsua da auzotarren beharrik zuzenean jasotzea, beste erakunde batzuetan kexa horiek defendatzeko.

Kontraprestazioak iritsiko zain

Batzarrak dokumentu bat bidali zion 2017ko azaroan Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailari, Legebiltzarreko talde politiko guztiei eta Diputazioko Lurralde Antolamendurako eta Azpiegituren sailei. "Lur zati honen erabilera baldintzatu eta gure osasunean eragina izan duten kalteak jasan izan ditugu", zehaztu dute. Horregatik, eta Angiozarrerako "etorkizun duin" bat bermatzea posible izan dadin, kontraprestazioak eskatu dituzte: bailarako auzoen arteko komunikazioa hobetzeko bide-loturak, AHTaren alboan eraiki nahi duten natura-bide edo bidegorria, Bergararako errepidean zenbait hobekuntza, urbanizazioaren hobekuntza Angiozarko kalean eta auzoetan, zerbitzu gehiago eta hobeak – medikuaren kontsulta, liburuetgia, gaztetxea-gaztelekua...–, kultura ondarea berreskuratzea, eskualde osorako izan daitezkeen kultur eta kirol azpiegiturek hobetzea eta Angiozarko inguru sozioekonomikoa berreskuratze-plan orokor bat garatzea.

Etorkizuna bermatzeko beharra

Angiozarren herri izaeraren beste adibide bat da populazioaren beherakadaren aurrean –1960ko hamarkadan 800 lagun-dik gora bizi izan ziren– neurri garrantzitsuak hartu izan dituztela. Duela 15 urte, esaterako, etxe berriak eraiki zituzten kalean. "Guk daukagu Angiozarrerako proiektua. Kanpotik ez digute Angiozarrerako proiekturik aurkeztu. Nahi dugun bakarra da bertako benetako beharrak eta bizitza baldintzak ziurtatzea", gaineratu du Mikeok.

Azpiegiturez gain, Mikeok dio ia ez dagoela telefono-estaldurarik, garraio publiko eraginkorrik ez dagoela eta bailara barruko kamino-sare egoki baten beharra "handia" dela: "Errepide sare egoki batek elkarren arteko harremanak erraztuko lituzke, baina egungo egoerak komunitate-bizitza galtzea dakar".

Hain justu, "etorkizun duina" bermatzeko batzarrak egindako oinarriko eskaerak gauzatzea ezinbestekoa izango da, dioenez: "Ez badugu ezer egiten, hurrengo belaunaldietan landa-eremua hustu egingo da. Angiozarren ere gerta dakiguke, horren ingurune ederrak eta erakargarriak zirenak betiko utziz".

"Hurbilen dauden erakundeek ez badute indarririk egiten, salduta gaude"

JOSE ANGEL MIKEO ANGIOZAR BAILARAKO ALKATEA

Laster hasiko da AHTaren lanen beste fase bat. Badago modurik etekin bat lortzeko Angiozarrentzat?

Trenbidea egiteko lanen barruan, hondakindegia eta trenbide ondotik obrak behar dituen zerbitzuendako beste bide batzuk egin beharko dira, eta hasieratik aukera moduan ikusi izan dugu hori bailararen etorkizunerako. Duela hamar bat urte bizilagunekin egindako hausnarketa prozesu baten ikusi genuen hortik ibilbide natural batzuk atera daitezkeela, eta bideragarri ikusten dugu. Horrez gain, adibidez, hondakindegia handi bat egingo da tunelen irteeretan, eta bide hori Goimendi auzoarendako lotune izan daiteke.



J.B.

Badago aukerarik aurrekontu osoaren %1 kulturala Angiozarrera bideratzeko?

%1 hori Sustapen Ministerioaren obra publiko guztien %1 da, eta, beraz, hainbat lekutatik hel daitezke eskaerak. Lan asko egin dugu gai horren bueltan, baita arlo juridikoan ere. Aurreko Udal Gobernuarekin Madrilera joan ginen eta hainbat kontsulta egin

genituen; oinarria da ondare kultural hori ondasun publikoa izan behar dela, eta hori Angiozarren ez dugu ziurtatuta. Udalari eskatu diogu %1 hori eskatzeko, baina ez dakigu ze estrategia garatuko den.

Bilboko Euskal Trenbide Sareko ordezkariekin bildu zineten, Bergarako Udaleko ordezkariekin batera. Zer moduz joan zen?

Lehen aldia izan zen Angiozarko egoeraz eta gure planteamenduez berba egin genuena. Bai kor irten ginen, AHTaren lanen onura posibleak bailaran garatzeko planteamenduetarekin bat egin zuelako. Ikusiko da; bilerak egin daitezke, aktak jaso, baina konpromisoak behar ditugu. Obra hau ona izan daiteke Espainiarentzat, baina gure egoera ez da hobetzen. Jaurlaritzan behin esan zidaten halakoak 100 urtean behin pasatzen direla; orduan, Angiozar salbuespena izango da... Ez badugu hurbilen ditugun instituzioen babes eta berotasunik, erakunde horiek ez badute indarririk egiten, salduta gaude.

Zein da gabeziarik nabarmenena?


RAMON LOITI ANGIOZAR BAILARAKO BIZILAGUNA

"Gabezia nagusia da, nire ustez, Angiozarko auzoen arteko lotura falta. Bizilagun batzuek ez dutenez Angiozarrera bide zuzenik, seme-alabak Elgetara edo Arrasatera joaten dira eskolara. Baso-pistak eginda daude eta inbertsio handirik gabe konpondu daitezke auto txikiak igaro daitezke".



JOSE MARI AROZENA ANGIOZAR BAILARAKO BIZILAGUNA

"Duela 21 urte etorri nintzen Angiozarrera eta ia hasieratik naiz batzarreko parte. Orduko eta egungo behar nagusiak ia berberak dira. Lan txiki batzuk egin dira, baina oso gutxi, beti ari gara kontu berekin bueltaka. Bergarako Udalari eskatuko nioke laguntasun eta babes handiagoa erakusteko".



AHTaren Bergara-Bergara zatia eta goi tentsioko linea. JOKIN BEREZIARTUA

Obraren eraginak prebenitu guran

Adif-ek 192,3 milioi euroko aurrekontuarekin esleitu ditu AHTaren Bergarako lotunerako lanak eta OHLk, Geotunelek, Construcciones Adolfo Sobrinok eta G&Ok osatutako aldi baterako enpresa elkarteak izango du lehen sektoreko lanak egiteko ardura. Uda aurretik dira hastekoak lanak, baina Angiozarren ez dute oraindik jakinarazpen ofizialik jaso. "Aurrekoan esleitu zirenean ere, uda aurretik hasiko zirela esan ziguten; orain, ofizialki, ez dakigu ezer", dio Jose Angel Mikeok. Obra horren eguneroko eragina ahalik eta gehien arintzeko Jaurlaritzarekin eta Udalarekin batera lantalde bat eratuko dela dio Mikeok: "Bergara-Bergara tartean ere hala funtzionatu genuen eta nahiko esperientzia ona izan zen guretzat; beste debate bat da esleitu den lan hori gure gustukoa den edo ez. Horrela egingo da eta ikusiko dugu lan-mahai horretatik zein etekin atera genezakeen".

Azpiegituren eragina azken urteotan

Angiozar Bailarako Batzarrak uste du "kalte natural, sozial eta ekonomiko handiak" eragin dituztela azken urteotako azpiegiturek.

- **Union Cerrajera** Labe Garrietako fabrikako zepa eta hauts gorri toxikoen joan-etorria nozitu zuten. Enpresak egindako zabortegian pilatzen zituzten hondakin horiek, eta Angiozar errekarren zati bat eta Osina eremu naturala estali zuten.
- **Epeleko zabortegia** Epelen, Angiozar bailarako eremuan, hondakin geldoen eskualdatze-zabortegia jarri zuten.
- **AP-1 autobidea** 2005ean, Bergara-Arrasate tarteko obrak amaitu zituzten eta Angiozarko bailara itxi egin zuten.
- **Goi tentsioko linea** 2010ean linea berri baten trazadura egin zen, bailara "alderik alde" zeharkatuz. Angiozarren dagoen goi tentsioko bigarren linea da hori eta Bizkaia-Bergara linea bailarako mendien iparraldeko gailurretik pasatzen da.
- **Bartzelona-Bilbo gasbidea** Angiozarko hegoaldeko eta mendebaldeko gailurretatik igarotzen da, Hirutontorreta, Lasartegain eta Intxorta mendien barrena –Goimendi eta Zabaletamendi auzoak–, "lur horien erabilera hipotekatuz".
- **Beasain-Durango** Korridorean Epelen zehar egiten du bidea, Angiozar hegoaldeko mugan. Oraindik beste fase bat falta da; kilometro bat azalean eta Bizkairako tunela, Kanpanzar azpitik.
- **Garbigunea** Labe Garaien zabortegi zaharren ganean, AP-1 autobiderako euskarrirako hormaren barrenean, Bergaraldeko azpi-eskualderako Garbigunea dago.
- **Konpost lantegia** Goimendi auzoan, konposta egiteko eta hondakinen transferentziarako lantegia jarri da, eta ondoan Mankomunitatearen kamioien garajea eta edukiontzien biltegia.
- **AHT** Bergara-Bergara tramua bukatuta, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako adarren aldagunearen zati bat Angiozarren eraikiko da.

Familia mahoneroaren jaia, herri osoari zabalik

Denboraldia borobiltzeko, BKEko futbol sailak Mahonero Asteburua antolatu du hilaren 22rako eta 23rako eta diote herri osoari zabalik antolatu dutela; seminarioan izango dira ekintzak eta musika eskolako taldeen kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainaren 22rako eta 23rako antolatu du Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak Mahonero Asteburua, denboraldi bukarako jaialdia. "Aste bukaera atsegina pasa gura dugu klubeko jokalariekin, entrenatzaileekin eta zaleekin batera. Argi utzi gura dugu ekitaldiak irekiak direla herritar guztiendako. Futbol familiaz harago doan ospakizuna da", esan zuen martitzenean egindako aurkezpenean BKEko futbol saileko presidente Iosu Elorzak. Bi egunerako egitarau zabala antolatu dute eta aurtengo berrikuntzak izango dira Musika Eskolak egingo dituen emanaldiak eta ekainaren 25etik 29ra izango den Ander Capa futbol jokalaria profesionalak gidatutako campusa.

Bazkarirako txartelak salgai

Mahonero Asteburuko ekintzak seminarioko patioan izango dira eta karpa egubakoitzean, hilak 22, irekiko bada ere, egun handia hilaren 23koa izango da. Egun horretan egingo dute herri bazkaria -txartelak Bule eta Depor tabernetan daude salgai; helduek 20 euro ordaindu beharko dute eta umeek, hamabost euro. Bazkalostean helduko da asteburuko unerik berezietakoa, orduan banatuko dituzte-eta eta denboraldiko jokalaria onenak saritzen dituen Mahonero sariak. Gainera, Aspanogi elkartearen aldeko zozketa egingo dute; minbiziaren ikerketarako 10.000 euro lortzea da erronka.

Caparen campusak, arrakasta

Bestalde, Athleticeko jokalaria Ander Caparen futbol campusak aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Izen-ematea ireki eta ordu gutxira plazak agortu zirenez, BKEk eta Udalak adostu zuten campusa Ipintzako zelaira ere zabaltzea. Edozelan ere, plaza guztiak beteta daude.



Mahonero Asteburua martitzenean aurkeztu zuten, Seminarioko patioan. MIREIA BIKUÑA

Agorrosin Berria sendotu gura dute

Ekainaren 7ko ezohiko batzarrean, BKEko futbol saileko zuzendaritzak adostu zuen hauteskunde prozesu bat martxan jartzea. Duela hiru urte sartu zen taldeak, orain arteko lana berrestez gain, Agorrosin Berriaren proiektua sendotu gura du. "Presidente izateko nire hautagaitza berriro aurkeztuko dut gaur egungo taldearekin eta bertan jarraitzeko arrazoi nagusietako bat da Agorrosin Berriaren proiektua burutzearena", adierazi du egungo presidente Iosu Elorzak. Oraingoz ez da beste inor aurkeztu, eta, azken orduko ezustekorik ezean, Elorzaren taldeak zuzenduko du datozen urteotan BKEko futbol saila.

Mahonero Asteburua seminarioan

Ekainak 22, egubakoitza

- 20:00 BMEko Big Band taldearen kontzertua.
- 21:00 Afarria: parrilada.
- 21:00 BMEko Konbo taldeen kontzertuak.
- 23:00 Wave taldearen kontzertua.

Ekainak 23, zapatua

- 10:00 Karparen irekiera. Goiz osoan: puzgarriak, jolasak, futbol ginkana, aurpegi margotzea eta penalti txapelketa.
- 13:00 Triki-poteoa buruhandiekin batera, Seminariotik abiatuta.
- 14:30 Bazkaria. Txartelak salgai Bule eta Depor tabernetan. Ondoren, Mahonero sariak eta Aspanogi zozketa.
- 17:00 Mus txapelketa.
- 18:00 eta 22:00 DJ Julen.
- 21:00 Afarria: parrilada.

GORA ETA BEHERA



MONIKA BELASTEGI

Apurketak kalistenia parke egin berrian



Gorputzaren pisuarekin eta orekarekin jokatzeko kalistenia parke bat jarri zuen Udalak -15.000 euroko aurrekontuarekin-, gazte batzuek eskatuta; egur zati batzuk apurtuta agertu dira dagoeneko.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Dantzaz eta zuzeneko musikaz osatutako ikuskizuna Espoloian

Bergarako Musika Eskolak, Udalaren laguntzarekin, dantzaz eta zuzeneko musikaz osatutako ikuskizuna eskainiko du gaur, ekainak 15, Espoloian (22:00). "Ikasturtean zehar herriko hainbat jai eta ekitalditan egon gara. Urtean zehar dantza tradizionalak egin arren, sormen lana ere jorratzen dugu", adierazi dute Musika Eskolako ordezkariak.

Eta sormen lan horren adibide izango da, hain justu, gaurko emanaldia; guztira, 60 dantzari eta hogeit hamar musikari izango dira oholtza gainean. Dantzarien artean, haur zein helduak egongo dira eta musikarien artean, berriak, eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak osatutako taldea igoko da agertokira. Hamalau abestiz eta dantzaz gozatzeko aukera egongo da, eta, Xabier Solanoren, Ken Zazpiren edota Kalakanen doinuekin, askotariko koreografiak ikusteko aukera egongo da.

Katiuskaren 'Zorion hutsa' antzezlan gaur gaztetxean (22:15)

Katiuska antzerki taldeak *Zorion hutsa* ikuskizun berria antzeztuko du gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean (22:15), Idoia Gereñuk zuzenduta. Ikuskizun horrekin, ikusleek harridurarekin eta ezustekoarekin jolasu nahi du Tolosako konpainia gazteak. Antzezlanak taldekideen gaurkotatasunarekin lotutako gaiak landu ondoren, ikusleek hausnarketa eragiteko helburua du. Fikzioaren eta dramaren arteko nahasketa eta jolasa agertokian jartzen duen antzezlan gauzatzeko, antzerki taldeak goitik behera gauzatu du ikuskizunaren ekoizpena: obra idatzi, eszenografia sortu, jantziak diseinatu, eta abar.

Txakur kaken "arazoa" gainditzeko DNA probak eskatu ditu Irabazik

Txakur kakena "arazoa" bat dela sinistuta eta "hainbat eta hainbat" herritarren kexak jaso dituztela argudiatuta, Irabazik txakurren DNA errolda bat egiteko eskatu dio Udalari, mozio bidez: "Jabeek maskoten profil genetikoak lortu beharko dute eta euren txakurraren datu guztiak Udaleko DNA erroldan erregistratuta izan; hori egiaztatzen duten txapa jartzera ere behartuta egongo lirateke". Izan ere, diotenez, herritarren haserrea eragiteaz gain, gaixotasun eta infekzio arrisku ere badira txakur kakak. Ekimen hori bideragarria izateko, egungo animalien ordenantza aldatzea ezinbestekotzat ikusten dute.

Errefusaren erdia bestelako hondakina da

Aste Berdearen barruan, herrian sortutako 53,8 kilo errefus aztertu dituzte, eta %53,9 material birziklagarria zen. "Elgetarrak zoriondu behar ditugu, datu orokorrak onak direlako, baina badugu hobetzeko tarte", adierazi du Iraitz Lazkano alkateak

Larraitz Zeberio ELGETA

Errefusaren edukiontzietatik hartutako lagin bat aztertu du Udalak, eta neurketaren ondorio nagusia da badagoela zer hobetu. Udal ordezkariak emandako datuen arabera, 53,8 kilo hondakin aztertu dituzte eta horietatik %53,9 —erditik gora— birziklagarria zen. Errefusari zegokion kopurua —ondo sailkatutakoa— 24,8 kilokoa zen; hau da, errefusaren edukiontzian aurkitutakoaren %46,1. Organikoaren edukiontzi marroira bota beharrekoak ziren 17,59 kilo, %32,7. Papererako den edukiontzi urdinera bota beharrekoak ziren 4,07 kilo, %7,57.

Ontzi arinak ziren 2,01 kilo, %3,74; eta beira zen 0,66 kilo, %1,23. Bestelakoak ere baziren: 4,67 kilo, %8,68.

Ondorio nagusiak

"Aspaldi diogu hondakinekin nahiko arduratuta gabiltzala. Datu orokorrak oso onak dira eta elgetarrak zoriondu behar ditugu; izan ere, %80 inguru ari gara bereizten, baina uste dugu tarte handia dugula hobetzeko. Neurketaren arabera, errefusako materialaren erdia baino gehiago birziklagarria zen. Zati handi bat organikoa zen: konpost egitekoa edo edukiontzi marroi-



Elgetako errefusaren lagin baten karakterizazioa egiten. ELGETAKO UDALA

HOBETO BEREIZTEAK URTEKO 7.439 EUROTIK GORAKO AURREZKIA EKAR DEZAKE

ra botatzekoa. Gainerakoa beirak, paperak, ehunkiak... ziren", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Ingurumen ikuspuntutik zein ikuspuntu ekonomikotik hobeto bereizteko saiakeran sakondu beharra dagoela azaldu

du alkateak. "Hondakinen tratamenduan garestiena errefusaren kudeaketa da. Paperarengatik eta plastikorengatik kobratu egiten da. Errefusarengatik, ordea, ordaindu egiten da. Sekulako aldea dago plastikoa errefusera bota edo plastikora bota. Elgetan urteko eta biztanleko 75 kilo errefus inguru sortzen ditugu. Antzuolan, 50 kilokoa daude. Neurketa honekin ikusi dugu elgetarrak erdira jaitsi gaitzkeela". Horrek urtean 7.439 eurotik gorako aurrezkiak ekar dezakeela esan du Lazkanok.

Bisita Epeleko konpost-plantara

Udalak egindako Aste Berdearen barruan, eguaztenean, Epeleko konpost-plantaren funtzionamendua ezagutzeko bisita egin zuten. Konpostak hainbat erabilera ditu eta Debagoieneko plantaren konpostatze ahalmena eta tratamendu zein kontrol sistemak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.



Elgetarrak, eguaztenean, Epeleko konpost-plantan. ELGETAKO UDALA

Bosgarren urteurrena ospatzeko bi eguneko jaiak Torrealdean

Atzoko ekitaldien ostean, bizikleta lasterketa, auzo afaria eta erromeria dituzte gaur Beheko kaleko jaietan

Larraitz Zeberio ELGETA

Atzo ezkerro, jaiak dituzte Torrealdea auzoan, eta gaurko ekintzak 17:00etan hasiko dira, neska-mutikoendako bizikleta lasterketarekin. Arrakasta izan ohi du probak. "Zirkuitua iazkoaren antzerakoa izango da eta bi maila egoten dira", adierazi du jai batzordeak. Sari banaketaren ostean etorriko dira buruhandiak, Amaia DJren saioa, auzo afaria, Gauargi taldearen erromeria eta mojito jaiak. "Bosgarren urteurrena dugu eta horregatik erabaki dugu egue-

nean ere hainbat gauza egitea", esan dute antolatzaileek.

Dozena bat auzokideren laguntzarekin egiten dira jaiak. "Aurten lau saski zozketatu ditugu eta aste honetan beste bi ipiniko ditugu; bata El Rincon de Lola tabernan eta bestea auzoko barran. Saskiak eta taberna dira gure diru sarrera nagusiak. Udalak 240 euroekin laguntzen digu", esan dute. "Aurten ere auzoko jaiak pasa ostean elkartuko gara erabakitzeko ea hurrengo urtean festekin aurrera jarraitu edo ez".

200 lagunetik gora izango dira biharko Zurigorri Egunean

Intxortako Lehoiak lagunarteko kideek gertu dute biharko ospakizuna. Jakinarazi dute 207 lagun daudela bazkaltzeko izena emanda. Athletic taldeak zuzendaritzako kide bat bidaliko du eta Elgetan izango dira baita ere Jose Angel Iribar, Carmelo Cedrun eta Koikili Lertxundi jokalaririk ohiak. "Hogeita hamar lagunarteko ordezkariak izango

dira gurekin. Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik eta Segoviatik etorriko dira. Herritarrak ere gonbidatuta daude. 13:00etan kalejira egingo dugu, 13:30ean aurrezkiak, 17:30ean hasiko gara omenaldiekin, 18:00etan elektrotxaranga izango dugu eta 20:00etan DJ Txasio gaztetxean", esan du Javier Gamarra presidentek. Uxue Gamarra *Hemen Debagoiena* saioan izango da martitzenean, egunak emandakoa eta Elgetako lagunartean hamar urteotako ibilbidea erreparatzeko.

Martitzenean aurkeztuko dugu Elgetako hamaikakoa

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

"Prest dugu Elgetako hamaikakoa eta pozgarria da; izan ere, hamaika elgetarrek baino gehiagok eman diote baiezkoa Euskaraldiaren enbaxadore izateari. Martitzenean, hilak 19, egingo dugu hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia, 20:00etan. Gerturatu zu ere! *Ahobizi* eta *belarriprest* panpinak ere bertan izango dira eta ahalik eta talde argazki jendetsuena atera nahi dugu lehen ekitaldi honetan. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia eta dagoeneko Euskal Herri osoko 400 herritik gora daude izena emanda Euskaraldian".

OHARRAK

Udalekuak 2018

Gaur, barikua, da izena emateko azken eguna. Argibideak, udaletxean.

Eskolako jaiak

Gaur, 15:30ean, ikasturte amaierako jaialdia, eskolan. Jokoak eta bizpahiru dantza izango dira aurten.

Puntaik Punta

Bi irteera aste bukaeran, Elgetan. Ikus 56-57 orriak.

Kantsatzekek irteera

Elgetako mendi taldeak antolatuta, Kristinoen koba eta Artea basoa ezagutzeko aukera, etzi, domeka. Taldea 08:00etan abiatuko da, autoetan, Urbasa aldera.

Ardurak eta kezkak presente daude oraindik

Euri-jasen ondorioak oraindik ere ageri-agerikoak dira Antzuolan. Herritarrek kalteak zenbatu dituzte, baina askok ez dute pasatako sustoa ahaztu. Baserri-bideak hondatuta daude eta herrian martxan dagoen errota bakarra geldi dago, esaterako

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ekainaren 3ko euri-jasak eta uholdeak gogoan dituzte antzuolarrek. Nagusiki, euren etxe inguruan, lokaletan, ortuetan... kalteak jasan zituzten herritarrek. Lekuberri baserriko Rakel Azkargortak sustoa oraindik gorputzean daramala azaldu du: "Beldur eta kezka handia bizi izan genuen. Gure baserria obraz inguratua dago. Obrako hoditik ura irteten hasi zen; ur asko, eta ezin izan zuen hodi txikiak ur-jasa hori xurgatu. Ur guztia errepidera eta herrira jaitsi zen". Minutu gutxian denak gainezka nola egiten zuen ikusi zuten bertatik bertara.

Zorionez, baina, ura ez zen baserri barrura iritsi. Hala ere, gaua etxetik kanpo igarotzeko erabakia hartu zutela kontatu du: "Suhiltzaileek bilera egin ostean, ingurua aztertu eta arrisurik ez zegoela esan ziguten. Hala ere, beldurra geneukan eta gaua etxetik kanpo igaro genuen".

Baina zapatuan, hilaren 9an, euria gogor bota zuen berriro eta herrira euri-errekak jaisten hasi ziren: "Antzuolako alkatea etorri zen guregana egoeraren berri emateko. Gaua bigarren ez etxetik kanpo pasatzea erabaki genuen. Baina kezka eta ardura handiz; izan ere, baserria bakarrik geratu zen eta kalteak jasan zitzaizkien".

Lekuberri baserriko bizilagunek neurriak hartu dituzte eta euria etxe barrura sar ez dadin egurrez eginiko babesgarria jarri dute atarian. "Nire aitak lehen ere jarrita izaten zuen eta babes hori berriro jarri dugu atarian. Diputazioan ere izan ginen, ur guztia irensteko hodi-

ANTIGUAKO ERROTA DA EGUN MARTXAN DAGOEN BAKARRA, ETA IRTENBIDEA BILATZEN DABILTZA

teria handiagoa jar dezaten eskatzeko. Hodiak ondo jartzeko eskaera egitera joan ginen. Kasu egin izan baligute, ez zen gertatuko gertatu dena. Diputazioak ez digu irtenbiderik eman; euren deiaren zain gaude. Herritarrei eskertu gura diet laguntzera etorri izana".

Lekuberri azpian dagoen ortua ere galdutzat eman du Miguel Angel Bargielak. "Lur guztia eraman dute uholdeek eta uzta galdu egin da; lur emankorra ekarri beharko da berriro".

Antiguako errota ere kalteak

Errotako presa apurtu egin zuten euri-jasek. Ondorioz, urmaela ur gabe geratu da eta errota ere ezin da martxan jarri. "Hau berriro jarri behar da martxan, eskolako ume mordoia etortzen da errota ikustera gainera. Zisneek ere ez dakit biziraungo duten. Gipuzkoako Urak enpresa badabil irtenbide bila", kontatu du Florentino Lamarianok.



Florentino Lamariano, Antiguako errota. AMAIA TXINTXURRETA



Rakel Azkarkorta, Lekuberri baserriaren aurrean. AMAIA TXINTXURRETA



Miguel Angel Bargielaren ortua txikituta. MIKEL BARGIELA



IMANOL SORIANO

Giro ederrean kirolzaleak

Antzuolako kirol elkartearen *fiesta gorriak* pilotalekua bete du aurten ere. "Dena oso ondo atera da; goizeko pilota partidua ere giro politean egin dira: bai beteranoen partidua eta baita gaztetxoena ere", azaldu du AKEko presidente Ibon Gezalagak.

Bazkaria izan zuten 360 lagunek pilotalekuan, eta giro bikaina izan zen bertan. Gainera, arratsaldeko zaparradak ez zuen antzuolarren giroa eta umorea zapuzterik lortu, eta musikak giroa jarraitu zuen festak.

'Antzuolaeitten': fase erabakigarrian murgilduta dago

Azken txanpan murgilduta dago *Antzuolaeitten* parte hartze prozesua. Hilaren 29ra bitartean, antzuolarrek prozesuan zehar lehenetsitako ekintzen artean hautaketa egiteko aukera dute. Hala, gaur, ekainak 15, zalantzak argitzeko eta azalpenak emateko, goiz (11:00-13:00) eta arratsalde (18:00-20:00) herriko plazan postu bat jarriko dute. "Bertan, nahi duen guztiak bere aukeraketa egiteko aukera izango du. Parte hartze prozesuan jasotako 100 proposamenak bost ildotan banatuta daude, eta ildo bakoitzetik herritar bakoitzak bost aukeratu beharko ditu. Guztira, 25 ekintza lehenetsiz", azaldu du Aztiker enpresak.

OHARRAK

Andartora irteera

Arrolak domekan Oñatiko Araotz-Andarto ingurura irteera egingo du. 08:00etan autoetan Olarandik irtengo dira. Izena emateko, bidali mezua: arrolamt@gmail.com.

Elkartasun festa

Anelkarrek hilaren 22an, egubakoitza, elkartasun festa ospatuko du Kalebarrean, 19:30ean hasita.

Kantu-jira herrian

Zarauzko erretiratuen eta Antzuolako erretiratuen abesbatzekin kantu-jira egingo da zapatuan herrian zehar. Kantu emanaldiaren hasiera, Antiguako autobus geltokitik, 12:30ean.

"Herriko gazte jendearen inplikazioa behar dugu"

LANDER DOMINGUEZ MAIRUAREN ALARDEKO BURUZAGIA

Uztailaren 14an izango da Mairuaren Alardea. Hala, Alardearen Elkartea murgilduta dago antolakuntza lanetan dagoeneko. Berrikuntzak izango dira, gainera, aurten

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mairuaren Alardea gertutik ezagutzen du Lander Dominguez antzuolarrak. Urteetan, fusilari parte hartu izan du eta Alardeak izandako berrikuntzak eta aldaketak barrutik bizi izan ditu. Oraingoan, baina, zaldi gainean buruzagi lanak egingo ditu lehengoz.

Joseba Iparragirrek 18 urteren ostean buruzagiaren testigua pasa dizu. Nola daude animoak?

Iaztik egutegian markatuta daukat uztailaren 14a, oso garrantzitsua izango delako niretzako. Diskurtsoa ere ikasita; orain, perfektionatzeko lanean nabil. Oraingoan, ez nago urduri, jendearekin hitz egiten hasten naizenean azaleratuko zaizkit urduritasunak.

Ardura handiko lana da buruzagiarena, ezta?

Bai. Bereziki, berba gehien egiten duena delako eta zaldi gainean doalako. Bakarrrik doa, ez doa taldean. Gainera, bost minutu inguruko diskurtsoa eman beharra dauka buruzagiak, eta mezua helarazten jakin.

Ilusioz hartu zenuen testigua?

Bai, baina baita ere ardura handiarekin. Eguna gerturatzen ari den heinean eta plazatik pasatzen naizen bakoitzean, eguna iristeko gogo handiagoa daukat.

Nola prestatu duzu diskurtsoa?

Gomendiorik eman dizu Iparragirrek?

Aste Santu ostean hasi nintzen testua barneratzen. Grabatu ere egin dut eta neure ahotsa entzuten joaten naiz autoan: geldiuneak, tonua... dena lantzeko eta kontrolatzeko. Josebak aholkatu dit lasai egoteko eta nire kutsua emateko. Diskurtsoan denborak, suspenseak... ondo zaintzeko esan dit.

Ahotsa ere zaindu beharko duzu festetan.

Bai. Gainera, ahots gabe erraz geratzen naizen horietakoa naiz. Aurten, jaietan zaindu egingo naiz; kar-kar.



Lander Dominguez, Goiena telebistako platoon. MAIDAR ARREGI

"HERRI SENTIMENDUA INDARTU EGITEN DU ANTZUOLAKO ALARDEAK; BARRUA MUGIARAZTEN DIGU"

Zaldi gainean nola moldatzen zara?

Txikitan zaldian ibilitakoa naiz. Orain, Elosura joango naiz, Alardean ibiliko dudana zaldia eza gutzera. Josebak esan zidan garrantzitsua zela lasai egotea, zaldiari norberaren urduritasuna transmititzen zaio eta.

Belaunaldi berriak garrantzitsuak dira Alardearen jarraikortasunerako. Kezkarik badago?

Kezka beti dago. Atzetik ibili behar izaten dugu talde handiak osatzeko. Herriko gazte jendearen inplikazioa behar dugu. Egia da badagoela jende gaztea, baina sumatzen dugu adin batetik aurrera parte hartzeari uzten diotela eta gero berriro bueltatzen direla Alardean parte hartzera. Baina guri gustatuko litzaike etenaldirik ez egotea eta jarraikortasuna izatea. Beraz, aprobeztatu gura dut esateko gazteak animatu daitezela.

Mairuaren Alardean 180 lagun inguruk hartzen du parte.

Bai, eta denen beharra dago. Edozein postutan parte hartu gura duena lasai jar dadila gurekin harremanetan.

Berdintasuna aldarrikatu duzue.

Aurten, Alardea berri zela hamar urte beteko dira. Bilatu ziren helburuak finkatu dira, baina emakumeen presentzia areagotu egin gura dugu edozein postutara. Dantzariak dantza mistoak egiten dituzte orain dela lau bat urtetik. Alardean parte hartzen duten emakumeen eta gizonen kopurua oso orekatua da.

Herri sentimendua indartu egiten du Alardeak.

Bai. Diskurtsoan, herri sentimendua eta independentzia berba ere egiten da. Une garrantzitsua da eta antzuolarrak garenoin barrua mugiarazten digu.

Berritasunik bada aurten?

Buruzagi berriak gain, nire jantzia ere izango da nobedadea. Pixkanaka joango gara berrikuntzekin.

Entseguak laster hasiko dituzue.

Ekain bukaeran edo uztail hasieran hasiko ditugu. Informazioa: Antzuolakoalardea.com.



Olalde elkarteko jokalaria finalerdia jokatzen. ENEKO AZURMENDI

Pilota txapelketako finalak jokatuko dira gaur arratsaldean

52 neska-mutikok parte hartu du Antzuolako pilota txapelketan; gaur, finalak izango dira, 18:00etan hasita

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aste Santu ostean abiatu zen Antzuolako pilota txapelketa. Eta gaur arratsaldean finalak jokatuko dira pilotalekuan. Balorazio positiboa egin du Olalde elkarteko Patxi Olabarriak: "Mailak orekatzea eta taldeak antolatzea ez da erraza izan, baina pozik gaude. Izan ere, helburua eurek ondo pasatzea izan da, eta lortu dugula uste dugu. 52 neska-mutikok parte hartu dute txapelketan". Entrenatzaile lanetan ere ibili da Olabarria eta borondatezko lana ezinbestekoa dela azpimarratu

du: "Felix Agirrek eta Olaldeko beste sortzaile batzuek entrenatzen gintuzten gu; orain, errelebo beharra zegoela eta, gurasook hartu dugu gaztetxoak entrenatzeko ardura hori. Borondatezko lan handia dago atzean; beharrezkoa da".

Herri pilotazalea

"Mendizabal, Berraondo... Elkorro ere Antzuolan bizi da. Herri pilotazalea da. Erreferenteak ere baditugu eta zaletasuna badago. Azken hiru urteetan neska pilotarien kopurua ere hazi egin da", argitu du Olabarriak.



IMANOL SORIANO

Txirrindularien trebezia, bistara

Ondarren, Aia tui txirrindulari taldeak antolatuta, makina bat gaztetxo txirrindularik euren abilezia erakutsi zuten. Guztira, 36 neska-mutiko antzuolarrak ginkanako oztopoak trebezia gaintu zituzten. Bihar, zapatua, aldiz, Uzarragara igoera antolatu du txirrindulari talde antzuolarrak. 12:00etan Herriko Plazatik abiatuko da proba.



San Migel kooperatibako egungo langileak, eguen goizean, dendako atarian. IKER OÑATE



Kooperatibako lehen zuzendaritza batzordeko kideak. SAN MIGEL KOOPERATIBA



1965eko apirilaren 24an, dendaren inaugurazioa. Orduko langileak eta Felix Arrazola apaiza lokala bedeinkatzen. JESUS MARI ARZUAGA FUNTSA // OÑATIKO UDAL ARTXIBOA



Oihana Elortza OÑATI

Erdigunean, Kale Barrian, dago San Migel kooperatiba. Hortxe eta Kale Zaharrean –Alzaa kalea orduan– izan ditu egoitzak. Behekoa zabaldu zuten lehenengo, eta handik gora pasa zuten gero. Beheko denda hartan kirol arropak ere egon ziren sasoi batean, baina supermerkatua izan da, ezer baino gehiago, San Migel kooperatiba. Bai lehen, baita orain ere. Azaroaren 20an bete-ko dira 100 urte zabaldu zutela.

Bazkideak

Oñatiko langile katolikoan San Migel kooperatiba ongilea. Horixe zen San Migel kooperatibaren hasierako izena. Sei gizonen sortu zuten: Balbino Luzarrek, Jose Victor Balzategik, Leandro Ortiz de Zaratek, Jose Ignacio Biainek, Angel Arrazolak eta Bernabe Mugarzak. Duela mende bateko aktak jasotzen duen moduan, "gizarteak eros ditzakeen kontsumorako produktuak herritarrek prezio eskuragarrian eskaintzeko" helburuarekin sortu zen. Horrez gain, kooperatibaren helburua bazkideen arteko harremana eta erlijio sentimendua mantentzea ere bazela jasotzen dute aktak, baita bizitzaren kalitate maila hobetzea ere "aurreztearen birtatez".

Iñaxio Aranburu oñatiarrak gogora ekarri du nolakoa izan zen kooperatibaren sorrera. "Gure aitari entzun izan nion garai hartan oso toki gutxi zeu-

Mendea beteko du kooperatibak

Azaroan beteko ditu 100 urte San Migel kooperatibak. Sei lagunek sortu zuten, herritarrei beharrezko produktuak modu eskuragarrian eskaintzeko. Erosleak bazkide izateko bidea jarri zuten martxan orduan; 2.000tik gora ditu egun

dela beharrezko produktuak saltzen zituztenak eta prezioak oso altuak izaten zirela. Hortaz, produktu horiek herritarren eskura jartzeko sortu zutela kooperatiba". Aranburu bizitza osoan izan da bertako bazkide.

Zuzendaritzako kide izatea ere egokitu zitzaion eta lau urtez egon zen kargu horretan. "Beti izan da gertukoa eta produktu onak izan ditu. Inoiz ez dugu kezarik izan. Egun, baina, ezin da ondoan aparkatu eta tarteka

joaten gara, baina ez lehen beste", adierazi du Aranburuk.

Erosleak bazkide izateko sistemarekin jarri zuten martxan negozioa kooperatibaren fun-datzaileek. Eta egun ere horrela da, nahiz eta bazkide ez di-

renek ere aukera duten enkar-guak han egiteko. "Bazkideek kuota bat ordaintzen dute eta gero deskontua izaten dute egiten dituzten erosketetan. Beti izan da horrela, eta egun ere bai. 2.000 bazkide baino gehiago ditu kooperatibak, herrikoak denak, baina zaila da kalkulatzeko erabiltzaileak zenbat diren. Izan ere, bazkide asko gutxitan etortzen dira eta bazkide ez diren beste asko, berriz, sarritan", dio egungo arduradunak, Olatz Ariztik.

Okela eta arraina

Lekaleak, kontserbak, xaboiak, lixiba, olioak, esnea... eta produktu freskoak ere saldu izan dituzte kooperatiban; adibidez, okela eta arraina. Hala ere, janariez, edariez eta garbitasun produktuez gain, beste gauza batzuk ere izan ditu salgai. "Lehen, esaterako, sukaldeko tresneria ere saltzen zuten, eta, sasoi batean, mertzeriako produktuak ere bai; umeendako, batez ere", dio urte askoan lanean ibilitako Maixabel Biainek.

Amaia Moiuak oraindik gogoan du amak enkar-guak egitera kooperatibara bidaltzen zuen garaia. "Kartilla batekin joaten nintzen eta han idatzi egiten zuten zer-bait hango langileek. Kale Barriko lehenengo dendara joaten ginen. Iluna zen, txikia, eta zaku mordo bat egoten ziren sarreran, lekalez betetakoak". Hango bezero da oraindik Moiu eta zuzendaritza batzordean egotea

Herritarren beharren zerbitzura

Duela 21 urte sortu zen Txanda. Egun, herriko 61 negozio daude. Sorreratik, herritarren beharrak asetzen saiatu da, "gertuko, konfiantzazko eta kalitatezko zerbitzua, arreta eta produktuak eskaintzen". Hilero bezeroei zuzendutako kanpainak jartzen du martxan eta sariak banatzen ditu. Formakuntzari garrantzia ematen dio eta "etengabe" jasotzen dute kideak.



Txanda elkarteko egungo zuzendaritza taldea. O.E

ere egokitu zitzaion. Ezkondu eta gero sartu zen batzordean. "Okelaren gaiarekin liskarra izan genuen. Kooperatibak ganadutegi bat zuen Nafarroan, Lizarra ondoan, eta handik ekartzen genuen okela, merkeago. Baina sasoi hartan Oñatiko bertako okela saltzen ez genuela leporatu ziguten. Herrian ez zegoen eskaera beste okelarik eta batzordean erabaki genuen astein herriko buru bat hiltzea", du gogoan Moiuak.

Behoko dendako bezero izan ziren herritarrek ere gogoan dituzte urte haiek. "Kale Zaharreko denda ezagutu genuen guk. Zer gura zenuen esan eta paperezko poltsetan sartuta eramaten genuen etxera; kilo bat, erdi edo dena delakoa. Okela ere beti egon da han, bai. Arrandegia, baina, berriagoa da. Kale Zaharreko lokalean, esaterako, ez zuten arrainik saltzen", dute gogoan Eugenio Lazkanoiturburu eta Maria Anjeles Zabaleta senar-emazteek. "Lehen, garai batean, denda mordo bat zegoen Kale Zaharrean: janaria, oinetakoak, bizikletak, barruko arropa... saltzen zituzten dendak

zeuden. Egun, baina, plazatik gora joan behar dugu ia edozer gauza erosteko. Pena da", dio Lazkanoiturburuk. Eta gaineratu du Zabaletak: "Duela gutxitik hona etxera ekartzen dizkigute erosketak kooperatibatik, baina ni sarri joaten naiz oraindik erosketa-karroa hartuta. Egunean eguneko erosketak egitea dut gogoko nik". Bittori Anduagak ere gogoan du Kale Zaharreko denda: "Umetan, ahizpa eta biok joaten ginen enkarguak egitera hara, kartilla hartuta. Etxean errekaduak utzi eta jolasera joaten ginen berriro korrika. Zenbat jolas egiten genuen guk San Anton plazatzxoan dagoen iturri ondoan".

Topalekua

Maixabel Biainek dioen moduan, hiru aldiz egin dituzte obrak Kale Barriko dendan. Arrandegia, esaterako, 1977an egin zituzten obren ostean jarri zuten. Bixente Elgero zen orduan zuzendaritza batzordeko presidentea. "Bost urte egin nituen batzordean eta ondoko lokala hartu eta denda berrantolatuta egin genuen. Lanerako tresna

berriak sartu genituen, eta arrandegia jarri. Egun jogurtak dauden tokian zegoen lehen arrandegia". Begoña Galdos izan zen kooperatibako lehen arrain saltzailea; 24 urtez aritu zen. "Hamahiru lagun ginen orduan lanean kooperatiban eta Anjel Agirre *Karretero* zen arduraduna; onegia zen. Arrandegian lanik ez nuenean baldak betetzen edo beste edozein lan egiten laguntzen nien lankideei. Errespetua egon zen beti langileon artean. Lan asko egiten genuen. Sasoi hartan ez zegoen inguruan fruta dendarik, eta fruta saltzen lan handia egin genuen, adibidez. Baina kooperatiba enkarguak egiteko tokia ez ezik, beste herritar batzuekin topo egin eta berrikerian egiteko tokia ere bazen", dio Galdosek.

Ospakizunak

Azaroaren 20an beteko du mendea San Migel kooperatibak eta hala edo nola ospatuko dutela aurreratu du Olatz Ariztik. "Uda ostean, irailean hasiko gara pentsatzen zer egin edo nola ospatu urteurren borobil hau", dio Ariztik.

Selma Huxley beka

Oñatiko emakumeak errekadutan: XX. mendeko etnografia feminista lana ari dira egiten Jone Arrazola eta Irati Garai oñatiarrak, Udalak emandako Selma Huxley Barkham bekarekin. "Komertzio txikiak emakume dendariak eta bezeroak hartu ditugu kontuan eta euren arteko harremana ari gara ikertzen", dio Irati Garaik.



Arrazola eta Garai. O.E.

Bi zati nagusi izango ditu ikerketa lanak. "Bat kuantitatiboa izango da. Inventario bat egingo dugu, XX. mendean herriko kale ezberdinetan egon diren dendena", dio Arrazolak. Garaik gaineratu du tabernak eta ostatuak ere jasoko dituztela: "Gizonezkoendako esparrua ziren lehen tabernak, baina lanean emakume asko ibili ziren. Taberna askok, gainera, ostatu eta denda zerbitzuak ere betetzen zituzten. Artxibo historikoko eta hirigintzako dokumentuekin ari gara osatzen, herritarrek emandako datuez aparte". Bigarren zatia kualitatiboa da. 50 bat elkarrizketa egingo dituzte. "Belaunaldi ezberdinetako emakumeekin ari gara berba egiten. Jabeak edo langileak ziren eta herriko zein tokitan zuten negozioa ere hartzen dugu kontuan, baita emakume horiek Oñatin jaiok edo kanpotik etorritakoak ziren", zehaztu du Arrazolak.

Orain arte batutako datuek erakutsi diete dendek herriari egindako ekarpena ez dela bakarrik ekonomikoa izan, soziala eta espaziala ere izan dela.

Kooperatibaz gain, erdigunean dauden denda historiko gehiagoren bost adibide



Erdikoa da Ana Uribeetxeberria.

Eskolatxo okindegia

Egun 92 urte dituen Ana Uribeetxeberria 11 urte zituela hasi zen lanean euren osaba Andres Aristegiren okindegiko dendan. Antzuolatik Oñatira etorritako Juan Jose Aristegik zabaldu zuen okindegi hori. Eskolastika zuen izena emazteak, eta handik datorkio izena. Dendan egoteaz gain, saskia hartu eta etxerik etxe banatzen zuen ogia Uribeetxeberriak; Zubillagara bizikletan eramaten zituen. Hiru ogi klase eta pistolak saltzen zituzten orduan, gehienbat.



Susana eta Kristina.

Olalde oinetakoak

Ehun urte pasa dira Kristina Bikuñaren eta Susana Elortzaren aitajauna, Gabino Olalde, sillak egiten hasi zela Mugarza etxepean. Hori da *Sillero* hitzaren jatorria. Baserriako tresnak, segak, aitzurrak, janaria eta lixiba saltzen zituen. Euren izeba Anjelesek alpagatak egiten ikasi zuen gero. Gerra sasoiari, dendan zuen janaria takoi handiko eta punta luzeko zapatekin trukatu zuen Bilbon. Azkar saldu zituen herrian, eta erabaki zuen zapata denda jartzea.



Nieves, Arrate eta Maixabel.

Juanitosa dekorazioa

Josefa Antonia Garitano, Juanitoren alarguna, izan zen Oñatiko Juanitosa denda ireki zuena. Gutxi gorabehera, 1880an. Hasiera batean, gaur egun existitzen ez den Urrutxu etxean zegoen denda, baina, duela 107 urte, gaur egun ezagutzen dugun tokira eraman zuten. 1911ko Errege bezperan zabaldu zuten, eta orduan jostailuak saltzen zituzten. Hala ere, denborak eta modak aldatzen joan diren heinean, beraiek ere gizartearen joera berrietara egokitu behar izan dute.



Ixiar.

Altuna estankoa

1924ko otsailaren 20an lortu zuen Pedro Altunak estankoa jartzeko baimena. Dendako pareta batean dute, eskegita, tabakoa eta zigiluak saltzeko agiri ofiziala. Oñatiko hirugarren estankoa zen ordurako: lehenengo baimena Zubillagako Urzelaik lortu zuen eta bigarrena, Foruen plazan egon zen estankoa zaharrak. Zabaldu zenetik, toki berean egon da. Lehen, gizonezkoak ziren bezero guztiak; zigarroak solte saltzen hasi aurretik, "pikatua" saltzen zuten.



Kontxi eta Tere.

Urtaza mertzeria

Tere eta Kontxi Urtaza ahizpen aitajaunak, Reyes Urtazak, harategia zuen egun lenteria dagoen tokian, eta ondoan brodatuak egin eta barruko arropak josten zuen lokala zuen haren ahizpa Tiburrek. 1929ean, Tibur, Maritxu eta Antoni ahizpek ziharduten dendan. Atzeko aldean Paulitona taberna zuen laugarren ahizpak, Franciscak. 1976an erretiroa hartu zuen Reyesek eta erabaki zuten lokal hori mertzeria dendari ematea, lokala handituz.

"Eguneroko lana izan behar da helburua"

ENDIKA RUIZ ERREGIONAL PREFERENTEKO ENTRENATZAILEA Ilusioarekin eta indarrarekin hartu du Endika Ruizek futbol saileko talde nagusia entrenatzeko ardura. Harrobia ondo ezagutzen du, eta baita Aloñaren filosofia ere

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Futbol entrenatzaile izateko hiru tituluak atera berri ditu Endika Ruizek (Oñati, 1990). Titulua bakarrik ez, "indarra" ere baduela erronkari aurre egiteko azaldu du. Uztailean taldea osatu, eta abuztuaren erdialdean hasiko dute denboraldi-aurrea. **Nola hartu duzu Erregional Preferente ko entrenatzaile izatea?** Hasiara batean, ilusio eta gogo handiarekin hartu dut, baina, era berean, errespetua ere ematen du. Erantzukizun handia da kirol saileko talde indartsu eta baten ardura hartzea. Erronka potoloa dela esango nuke, eta indarrarekin nago.

Maila txikiagoetan entrenatzaile izandakoa zara. Nolako alde egongo da?

Maila guztiek dute alde ona eta txarra. Umeekin zabiltzanean, horien ilusioa dago, baina zailtasunak ere badituzte. Talde nagusiaren entrenatzaile izateak hiru entrenamendu indartsu izatea ekarriko du, taktika ere entrenatu beharra... Nire estiloa jartzen saiatuko naiz.

Aloña Mendi ezagutzen duzu. Hori alde izango duzu?

Bai, baina horrekin ez dut ezer irabazita izango. Elkarteak ezagutzeko oranzkoa hartzeko orduan lagunduko dit. Erabaki asko hartu beharko ditut, urte osoa kontuan hartuta, milaka erabaki...

Emaitzek nolako pisua izango dute eguneroko lanean?

Garbi daukat aldaketa nagusia hor egongo dela. Maila txikiagoetan, lehiaketak berak badu garrantzia, baina beste gauza batzuei ematen diegu garrantzi handiagoa. Niri, irabaztea garrantzitsua zait. Irabazi esaten dudanean, esan nahi dut entrenamenduetan ere irabaztea; hau da, talde moduan eta norbanako moduan borroka egitea, eta irabaztea. Hori egiten badugu, emaitzak ere alde izango ditugu.



Endika Ruiz, Aloña Mendiko kamisetarekin. E.R.

"AZKOAGAIN BEREZIA DA, FUTBOL USAINA, BELAR USAINA DAGO. ZALEEN BABESA ERABATEKOA DA"

Azkeneko bi denboraldiak Erregional Preferente mailan egin ondoren, helburua mailaz igotzea izango da?

Inori ez zaio gustatzen beheko mailan egotea, baina helburua izan behar da eguneroko lana. Igoerari beste izen bat jarriko diot: ilusioa. Eguneroko lana ondo eginez gero, etorriko dira emaitzak. Gainera, oso zaila da sailkapenean lehenengo geratzea: 18 taldeetatik bakarra geratuko da lehenengo. Horretarako, pertseberantzia eta gogo handia eduki behar da.

Zeintzuk izango dira ligako talde indartsuenak?

Oraindik guztiz erabaki barik dago taldea nortzuk osatuko dugun. Urola da mailaz jaitsi den talde bat, eta aukari gogorra izango da. Bestalde, Mondrak, Aretxabaletak... filialak dituzte gure ligan. Ez dira partidu samurrak izango.

Nortzuk izango dituzu laguntzaile lanetan?

Bigarren entrenatzaile nor izango den zehaztu barik dugu. Profil zehatz bat zehaztu dugu, eta horren bila gabilta. Bestalde, prestatzaile fisikoa Aimar Lizarra izango da.

Esan duzu kirol saileko talde indartsuena bat entrenatuko duzula. Era berean, mailaz jaitsita dago taldea. Nola erantzuten dute zaleek?

Azkoagain berezia da. Futbol usaina dago, belar usaina nabari da. Zaleak etortzen dira, esango nuke ez diotela etortzeari utzi. Zaleen babesa erabatekoa izaten da. Entrenatzaileak izango naizela zabaldu denetik, dei eta mezu mordoa jaso ditut. Zale gehiago izatea lortzen baldin badugu, zerbait ondo egin dugun seinale izango da.

Zer da Aloña Mendi zuretzat?

Familia bat da, lagun taldea. Beti ibili izan naiz Aloñan, ez dut beste talderik ezagutzen; beraz, pasioarekin bizi dut. Giro ona dugu, laguntasuna nabari da. Esan daiteke Aloñarekiko pasioa barruan dudana zerbait dela. Une onak eta txarrak bizi arren, zoriontsu izan naiz.



Murgiondo, eskuman, Mujikarekin eta Azparren irabazlearekin. ANDER GARITANO

Murgiondok ezin izan du erlojupeko txapela berretsi

23 urtez azpikoetan bigarren sailkatu da Murgiondo; Garazi Erostarbe hirugarrena izan da, gazte mailan

A.E.G. OÑATI

Xabier Murgiondo Gipuzkoako Banakako Erlojupeko Txapelketan txapeldunordea izan da, 23 urtez azpikoen mailan. Martitzenean jokatu zuten erlojupekoa, Aizarnazabalen –Gervais memoriale–. Modu horretan, Ampoko txirrindulariak ezin izan du iaz lortutako txapela berretsi. Iaz, 23 urtez azpikoen mailan lehenengo urtea zuen Murgiondok, eta txapela jantzi zuen. Aurten, Azparren irabazleak baino 23 segundo gehiago behar izan ditu ibilbideak zituen 21 kilometroak egiteko.

Emakumezkoetan ere podiuma

Emakumezkoetan, gazte mailan, Garazi Erostarbe oñatiarra podiumera igo zen. Hirugarren sailkatu zen, Arantxa Garikano eta Amaia Imazen atzetik.

23 urtez azpikoen podiuma

Gizonezkoen 23 urtez azpikoen podiumean protagonista izan ziren Ampo Goierriko ziklistak. Xabier Mikel Azparrenek ez zuen kontrariorik izan (27.35); bigarren oñatiarra izan zen (27.58); eta, hirugarren sailkatu zen Mikel Mujika (Eibar Energia Hiria) taldekoa.



ALOÑA MENDI

Igerilariak 'Artza' omendu dute

Hiru hamarkadatan egindako lana eskertu eta aitortu zioten Aloña Mendiko igerilariak Xabier Infante *Artza*-ri, zapatuan. Zubikoan jokatu zuten Txantxiku Saria igeriketa txapelketan izan zen hori. Igerilariak lore sorta eman zioten euren entrenatzaileari. Aste bukaeran, Gipuzkoako igeriketa txapelketa jokatu dute Bergaran; eta han ere izango du omenaldia.



Aitor Biain, Basajaun, Oihana Diaz eta Nerea Zubia, Kirrukuako zelaietan. ENEKO AZURMENDI

Euskal mitologia oinarri, ikuskizuna hilaren 29an

Egitasmo berria aurkeztu du asteon Ganbara Faktoriak: 'Euskal mitologia, gure historia' ikuskizuna. Eta ekainaren 29an eskainiko dute. Zehatz esanda, Kirrukuako zelaiak izango dituzte agertoki –Garay etxeko zelaiak–, 22:30ean hasita

Iker Oñate OÑATI

Egitasmo berriarekin dihardu Ganbara Faktoriak. Eta, bi urteren ostean, egindakoa erakusteko garaia iritsi zaie kideei. Hori horrela, finkaturik dute *Euskal mitologia, gure historia* ikuskizunarendako hitzordua: ekainaren 29an egongo da ikusgai, 22:30etik aurrera, Kirrukuako zelaietan –Garay etxeko ze-

laiak–. Ez da edozelako emanaldia, gainera: zuzeneko musikaren, proiektzioen, argiztapen zein soinu zainduen eta mitologiaren uztarketaren emaitza da. Eta 125 pertsonako lantaldeak dihardu horretan. Hain zuzen ere, Udalak bultzaturiko *Kalean* programazioko ekintza sorten artean dago *Euskal mitologia, gure historia* ikuskizuna.

Esan moduan, bi urteko aurrelanketa daroa ikuskizunak. Eta, besteak beste, egitasmoaren neurria eta edukira egindako musika –eta testua– ditu bereizgarri. Hala, herriko eta inguruetako bertsolarien, idazleen, musikarien... laguntza izan dute horretarako. Tartean, Josu Zubia, Andoni Salamerok, Andoni Goitiak, Amaia Aranzetak

eta Josune Lopezek izan dute letrak egitearen ardura. Eta hamar konpositorek jarri dizkiete doinuak horiei –hor dira Jabi Busto, Eva Ugalde, Josu Elberdin eta Junkal Guerrero–.

Bestetik, Ganbara Faktoriakoen ikuskizunak gogoan du Joxe Miel Barandiaran euskaltzalea. "Ikuskizunean, Barandiaran irudikatuko duen pertsonaia egongo da zuzendari lanak egiten, hark eramango du istorioaren haria", azaldu du Oihana Diazek, Ganbara Faktoriako kideak. Beraz, omenaldi kutsua ere badu egitasmoak.

Euskal historia ezagutarazten

Besteak beste, euskal historia ezagutarazteko bitarteko izan gura du proiektuak. Eta horren garrantzia azpimarratu du Ganbara Faktoriako kide Aitor Biainek –transmisio nahiak eragina izan du gaia aukeratzean–: "Euskal Herrian pisu handia eduki izan dute pertsonaia mitologikoen –Oñatin ere bai–. Beraz, ikuskizunean presente dira herri mailako istorioak eta kondairak. Dokumentazio lana egin dugu horretarako. Eta hori aberasgarri da emanaldiarendako".

125 pertsonako lantaldea sortu dute horretarako: 40 abeslari, bost musikari, hogeitak hiru aktore eta produktzioa hiru kide izango dira, besteak beste. Eta hamabi pertsonaia eraikiko dute kontakizuna; horien artean dira Tartalo, Sorgina, Basajaun eta Basandre. Hain zuzen ere, azken horiek biek herriko kaleetan jardungo dute ikuskizunaren aurretik.

Ezohiko agertokia

Bestetik, berrikuntzen artean dute ikuskizunarendako aukuratutako agertokia: Kirrukuako

zelaiak. "Ikuskizunak XIX. mendeko baserri giroan murgilduko du ikuslea. Eta pertsonaia mitologiko ezberdinak arituko dira inguruetan", argitu dute Ganbara Faktoriakoek. Zehatz esanda, bertako zelaietan egongo dira ikus-entzuleak eta handik eta hemendik agertuko zaizkie pertsonaia.

Horri dagokionez, Ganbara Faktoriakoak jakitun dira ikuskizunaren egunean egiten duen eguraldiak duen garrantzia. Eta horrek emanaldiaren eguna baldintza dezake –aurreikuspenen arabera, ekainaren 29an egongo dute–. Hori horrela, jakinarazi dute posible dela ikuskizunaren eguna ekainaren 30era edo uztailaren 1era atzeratzea.

Sarrerak salgai

Salgai jarri dituzte ikuskizuneko sarrerak. Bi bide daude horiek erosteko: www.ganbara.sacatuentrada.es webgunea eta Txokolateixia. Bada, aurrez erosiz gero, 15 euro ordaindu behar dute nagusiek –12 euro, haurrek–. Eta egunean bertan, ostera, sarrera 18 eurotan egongo da eskuragai –15 eurotan, haurrendako–.

Bukatzeko, Oñatiko Udala eta lursailaren jabeak eskertu ditu Ganbara Faktoriak, "eskainitako konfiantzarengatik". Eta, era berean, esker hitzak itzuli dizkio Nerea Zubia, Kultura zinegotziak: "Plazer handia da *Kalean* egitaraua herriko kultur eragileekin osatu ahal izatea".

125 PERTSONAKO LANTALDEAK DIHARDU 'EUSKAL MITOLOGIA, GURE HISTORIA' IKUSKIZUNAREKIN

"Argazki liburuak ez lirateke argazkilaritzara mugatu behar"

MIREN PASTOR ARGAZKILARIA

'Bidean'-en hirugarren argazki liburua aurkeztuko du

I.O. OÑATI

Argazki liburuen munduan murgildurik da Miren Pastor argazkilaria eta kultura dinamizatzailea. Hainbat egitasmorekin dihardu –tartean da *Bidean*–. Eta horren baitako hirugarren


liburua kaleratu du berriki. Bada, horixe aurkeztuko du gaur, 18:30ean, herriko liburutegian. **Hirugarren fruitua emana du *Bidean* egitasmoak.**

Hala da. 2011n ekin nion proiektuari, aldaketa prozesuak aza-

larazi guran. Horretan, bi nituen oinarriak: natura eta nerabezaroa. Bietan baitaude ziklo eze-gonkor eta kontrolaezinak. Eta nire anaiaren ingurunean oinarritu naiz ordutik hona. Jada 24 urte ditu –ziklo baten bukaera–. Hori bera dakar liburuak.

Beraz, ez du ohiko formatua...

Ez. Liburuak argazkiak ditu erdigunean –horien bidez kontaktzen da istorioa–. Eta, bestetik, hasiera eta bukaera bakoa da. Gainera, koaderno deseginez gero, paraje bat sor daiteke iru-



Miren Pastor, inprentan. MIREN PASTOR

diekin. Jolas moduko bat dakar horrek.

Eta argazki liburuen mundua ezagutarazi guran diharduzu, ezta?

Bai. Asko eman dit argazki liburuen munduak. Eta, beraz, uste dut esparru zabalago batera hedatu beharra legokeela –argazkilaritzaren alorrera mugatu barik–. Hainbat proiektu ditut martxan jarriak horretarako. Era berean, nire liburuak udal liburutegietan eskuragarri egotea lagungarri izan dakidake argazki liburuen hedapenerako.



Nekane Arzallus (GBC), Elena Lete alkatea, Marian Mellado (BKE), Juanjo Lusa, Carmen Muguruza (IDK) eta Livia Lopez (Araski). X.U.

"Babesleak gurera erakarri behar ditugu"

SASKIBALOIA 'Emakumea eta saskibaloia' izenburupean, elite mailako taldeetako emakumezko presidentek batu zituen Bergara Kirol Elkarteak eguaztenean. Baliabide gutxirekin lehiakorrak izateko egin beharrekoak nabarmendu zituzten

Xabier Urzelai BERGARA

Mahai inguru emankorra izan zen eguaztenean BKEk antolatutakoa, GBCko presidente Nekane Arzallusek, IDKko Carmen Muguruzak eta Araskiko Livia Lopezek gai mordoan izan zituzten esku artean. Lehenengoa, generoaren gainekoa. "ACBko taldeetako presidente eta presidenteordeak batu izan garenean,

35 gizonzkoen artean egon izan naiz; eta bai, hasieran, errespetua ematen du. Baina poliki-poliki joaten zara burua ateratzen", adierazi zuen Nekane Arzallusek (GBC).

Bada, Livia Lopezek gaineratu zuen genero berdintasunaren gaia gehiago ikusten duela marketin aldetik errealitatetik baino: "Zarata handia sumatzen

dudalako, baina aurrerapausoak ez dira horren handiak".

Hankak lurrean izatea

Hiru presidente horiek kategoriaz ezberdinetan dauden klubengainean egin zuten berba, nor bere errealitatetik, baina denek dute zerbait batera: baliabide gutxi dituzte. "Babesleendako erakargarri izan behar dugu,

ezin dugu egun osoan negarrez ibili. Gasteizen Baskoniak ate asko jotzen ditu babesleak bilatzeko, komertzial taldea dute, eta eskaintza erakargarria, eta guk hor lehiatu behar dugu. Ez da batere erraza, baina komunikabideek azken bi urte hauetan jarrera aldatu dute eta kasu egiten hasi dira. Eta, aldea izugarria da, jendeak kalean taldearen gainean galdetzen digu, eta lehen hori pentsaezina zen".

Bada, IDK eta Araski taldeek badakite Europan jokatzeari ezezkoa ematea zer den, aurrekontu faltagatik. "Eta kontua ez da txapelketari aurre egiteko dirua izatea. Kontua da Europan joateko jokalariek profesionalak izan behar dituztela, gure jokalariek ezin dituztelako euren lanpostuak alde batera utzi, edo ikasten dabiltzanak ikasketak alboratu. Horregatik, baina, ezin zara zoratu", adierazi zuen Lopezek.

Eta Muguruzak gaineratu: "Akaso, Europan ez zara lehenengo urtean joango, ezta bigarren ere. Baina ahalegin bakoitzarekin lurra lantzen ari zara, hazia jartzen. Eta hor, aurrera egiteko babesleak pribatua behar dugu, ezin gara-eta laguntza publikoetatik soilik bizi". Bide beretik mintzatu zen Arzallus: "Beti diot gauden lekuan gaudela, ez nahiko genukeen lekuan, eta gure egunerokoan ditugun baliabideekin egin behar dugula lan, horri ahalik eta etekinik handiena aterata".

GBCren erronka

Livia Lopezek eta Carmen Muguruzak emakumezkoen taldeak kudeatzen dituzte. Nekane Arzallusek, berriz, gizonzkoena: "Gureak beste erronka batzuk dira. ACBn aurrekontu txikie-

netakoa dugun taldea gara, eta aurrean oso denboraldi txukuna egin dugu, ia ez gara jaitsiera postuetan egon eta lasaitasunez egin diogu aurre denboraldiari. Gertatzen dena da emakumezkoen saskibaloia ez duela dirurik ematen, baina gureak, gizonzkoenak, ere ez. Hor, futbolarekin lehiatu behar dugu, ACB kategorian galerak izaten ditugulako. Gure partiduak ordainpeko telebista bidez ikusteak behar dira ekarri du, jendeak ez duelako saskibaloia lehen moduan jarraitzen. Pentsa, ACBko finaleran murgilduta gaude, eta Julen Lopetegiren izena da gaur entzun dudana gauza bakarra".

Porfi Fisac, eta Gipuzkoa

GBC Gipuzkoako presidenteari Porfi Fisacen gainean ere galdetu zion Juanjo Lusa kazetariak: "Bai, pena ematen digu joan izana, gauza asko bizi izan ditugulako batera. Oso entrenatzaile ona da, halako taldeei etekin handia ateratzen die. Jokalariei sinistu arazten die munduko jokalariek onenak direla. Orain entrenatzaile berria fitxatzeko lanetan gabilta, baina oraingoz ezin dut ezer aurreratu". Eta, berbalde amaieran, GOIENAK taldearen erronken gainean ere galdetu zion Arzallusi: "Kluba egonkortu behar dugu, eta ahalegin berezia egin GBC Gipuzkoa osora zabaltzen, ez hiriburura bakarrik".

"GURE EGUNEROKOAN DITUGUN BALIABIDEekin EGIN BEHAR DUGU LAN, ITSUTU BARIK"

Izar Bedia eta Patxi Gorosabel saritu dituzte Arrasaten

KIROL SARIAK Araskiko saskibaloia jokalaria aukeratu zuten herritarrek urteko kirolaririk onena

X.U. ARRASATE

Joan den eguaztenean banatu zituzten Arrasateko Kirol Sariak, eta Izar Bedia saskibaloia jokalaria -jokalaririk onenaren saria- eta Patxi Gorosabel errugbi jokalaria -kirol ibilbidearen

saria- izan ziren arratsaldeko protagonistak.

Izar Bediak debuta egin du aurrean Estatuko emakumezkoen liga gorenean, Gasteizeko Lacturale Araski taldearekin. Eskeriaz hasi zen saskibaloian

jokatzen, eta Gasteizera joan zen ondoren. Bada, bigarren taldeko jokalaririk bada ere, talde nagusiarekin debuta egin ahal izan du aurrean.

Kirol ibilbidearen saria, bestalde, Patxi Gorosabelendako izan zen. Errugbiko jokalaririk, entrenatzaile eta taldeko zuzendaritzan ibilitakoa, Arrasaten errugbian erreferente izan da Gorosabel. Aurtengo berritasun nagusia izan da herritarrek aukeratu dituztela irabazleak, boto bidez.



Sari banaketa ekitaldiaren osteko talde erretratua. JOSU BILBAO

San Martzialgo malda gogorak dituzte zain

TXIRRINDULARITZA Bergara Hiria Emakumeen Txapelketako bigarren edizioa egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita. Ziklistek 1.600 metroko erlojuaren kontrako proba izango dute aurrean; motza, baina oso gogorra

Xabier Urzelai BERGARA

Euskaldun Txapelketarako puntuagarria izango da gaur, egubakoitza (18:30), Bergaran egingo duten emakumezkoen erlojuaren kontrako lasterketa. San Martzialgo Igoeraren bigarren edizioa izango da, eta tropeleko igotzaile onenek dagoeneko badakite zer izango duten zain: bost minutu pasatxoko muturreko sufrimendua, halakoak izaten dira-eta erlojupeko motzak.

Hain zuzen ere, denbora hori da iaz elite mailako lehenengo sailkatuek 1.600 metro dituen igoera gogorra egiteko erabili zutena –Eider Merino irabazleak 5.20an geratu zuen erlojua–, baina gazte eta kadete mailakoek minutu bat gehiago behar izan zuten –6.01 Sara Martinek eta 6.23 Amaia Lartitegik–.

San Martzialgo igoerak batez beste ia %12ko malda du, eta tarte batzuetan %25era iristen da.

Deialdia bizikletan joateko

Hala, gaurko lasterketara begira motorrak berotzen joateko, Lokatzako ordezkariak deialdia egin diete herritarrei: "Herritarrei dei egiten diegu neskak animatzera joan daitezten eta horretarako Lokatzako laguntzaile diren emakume talde ba-



Eider Merino, iaz, kronoigoera aurretik arrabola egiten. GOIENA

LASTERKETA AURRETIK HERRIAN BIZIKLETAN IBILTZEKO DEIALDIA EGIN DU LOKATZAK

tek 17:30ean bizikleta martxa antolatuko du herritik zehar lasterketaren irteera puntura joateko". Izan ere, herrigunetik, oinez, 10-15 minututan kirol ikuskizun ederraz gozatu ahal izango dute herritarrek.

lazko onenak:

Kadete mailan	Denbora
1- Amaia Lartitegi	6.23.
2- Garazi Estevez	+1 seg
3- Nahia Eraña	+40 seg
Gazte mailan	
1- Sara Martin	6.01
2- Maialen Aramendia	+34 seg
3- Arantxa Garikano	+1 min
Elite mailan	
1- Eider Merino	5.20
2- Lourdes Oiarbide	+13 seg
3- Alba Teruel	+25 seg

ITURRIA: GOIENA

Letamendi eta Alonso, Espainiako txapeldun, taldeka

MENDI LASTERKETAK Euskal Selektzioko ordezkariak gailendu ziren gizonetako eta emakumezkoetako

X.U BERGARA

Asteburu ezin borobilagoa izan da Euskal Herriko Mendiko Selektzioko ordezkariendako, Castelloko Mabo Borriol maratoian –Espainiako Txapelketa– protagonistak izan dira-eta, taldeka, bai gizonetako eta baita emakumezkoen kategorian ere. Emaizta "historikoa" izan da, selektzioko ordezkarien esanetan, eta tartean egon dira bi oñatiar: Iban Letamendi eta Axier Alonso, hain zuzen.

Lasterketako irabazleak Aritz Egea eta Sandra Sevillano izan ziren, eta ezin da ahaztu juniorren kategorian Irati Zubizarreta izan zela onena.

'Doblete' ikusgarria

Gizonetako kategorian txarto ohituta zeuden Euskal Selektzioko ordezkariak, ez da-eta izan



Txapeldunak podiumean. GOIENA

lehenengo aldia txapelketa irabazten dutena.

Emakumezkoen partetik, berriz, Euskal Selektzioa lehenengoz igo da podiumaren lehen postura, aipatu moduan, *doblete* historikoa lortuta.

IGERIKETA Gipuzkoako txapelketa dago jokoan Agorrosinen

Gipuzkoako klubetako igerilari mordo batuko da asteburuan Agorrosinen, Gipuzkoako Udako Txapelketan. Hain zuzen, infantil, gazte eta senior mailako igerilariak batuko dira. Zapatuan 10:00etatik 12:00etara egingo dute txapelketa, eta arratsaldean 16:30etik 18:30era. Eta, domekan ere igerilariak ordu-tegi berean jardungo dute.

FUTBOLA LEKeko Arizmendi taldea, txapeldun

Leintz eskola kiroleko Arizmendi Ikastolako taldeak Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen joan den domekan. Eskolarteko zortziko futboleko, Santo Tomas Lizeoari irabazi zion penaltietan; izan ere, hiruko berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka. Xabier Antxia atezainak penalti erabakigarria gelditu zuen, eta txapelketa poltsikoratu zuten.

FUTBOLA Elene Guridi oñatiarra fitxatu du Realak

Eibarren jokatzeko ibili den Elene Guridi Mesonero jokalaria oñatiarra fitxatu du Realak. Gaztea bada ere (16 urte), dagoeneko Eibarko talde nagusiarrekin debuta egin du, eta 16 urtez azpiko Euskal Selektzioarekin ere estreinatu da. Oñatikoa Aloña Mendin hasi zen futboleko, eta kadete mailan fitxatu zuen Eibarrek.

FUTBOLA Aitor Fernandezi urrundu egin zaio Lehen Maila

Zaragozaren kontra *playoff*-etako lehen kanporaketa gaitzuta, Aitor Fernandezek Numantziak kolpe gogorra jaso du aste barruan, Valladoliden kontra 0-3 galduta. Itzulerako partidua bihar, zapatua (20:30), jokatuko dute. Egin duen denboraldi onaren adierazle, dagoeneko hasi dira Arrasatekoaren etorkizunaren gaineko zurrumurruak.

Kadete mailakoek, erlojupekoa

Lokatza Ziklismo Eskolakoek *dobletea* egingo dute asteburuan: gaurko kronoigoerarekin batera, domekarako kadete mailako bakarkako Gipuzkoako Erlojupekoa antolatuko dute.

Zirkuitua herri barruan egongo da, eta sei kilometro izango ditu –17:00etan hasita–. Guztira, 80 ziklista batuko dira irteera puntuan.



2015ean Bergaran egindako erlojupekoan ziklista esprintean. GOIENA



Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailaren postua izazko jaialdian. IMANOL SORIANO

Aste bukaeran, Puntaik Punta

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, Puntaik Punta bidezidorren jaialdia egingo da gaur hasi eta domekara bitartean Aretxabaletan; natura eta kultura ardatz hartuta, publiko zabalarentzako askotariko ekitaldiak izango dira, doan, eta kalean

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Leintz Gatzagari eta Bergarari lekukoa hartuta naturarekin eta kulturarekin lotutako ekitaldi askoren erdigune izango da asteburuan Aretxabaleta hirugarren Puntaik Punta bidezidorren jaialdiarekin. "Helburu berarekin hasi zen Mankomunitatea Mundumira jaialdia antolatzen, baina hainbat arrazoirengatik bertan behera geratu zen; orain dela hiru urte, formatua aldatu genuen, eta guk hartu genuen aurtengoa prestatzeko erronka", dio Aretxabaletako alkate Unai Elkorok.

Kalean eta doan

Ekitaldi gehienak Aretxabaletan izango diren arren, Debagoieneko beste herri batzuetan ere bisita gidatuak daude (ikus taula). Publiko zabalarentzako ekitaldiak dira guztiak, kalean eta

doan -etziko mendi ibilaldia eta dantza afrogarraikide ikastaroa izan ezik-. Senderismo Azoka, tailerrak, kontzertuak eta bestelako ikuskizunak eta ibilaldiak proposatu dituzte: "Maila askotariko ibilaldiak daude: familian egitekoak, zailtxoagoak, eta domekakoa, saiatuagoak joatekoa. Derrigorrezkoa da aurrez izena ematea, plaza mugatuak dituzte askok. Tailerretan ere aukera zabala dago: naturarekin lotutakoak, dantza, argazkia...".

Musikan ere denentzako aukerak eskaini nahi dituztela dio Elkorok, eta "horregatik, aurre-

**EKITALDI IA GEHIENAK
DOAN DIRA HALA ERE
DERRIGORREZKOA DA
HORIETAKO ASKOTAN
AURREZ IZENA EMATEA**

kontuaren zati handi bat" arlo horretara bideratu dutela: "Gaur izango diren Pirritx, Porrotx eta Kepa Junkera & Sorginak, beste batzuetarako, sarrera onak dira jaialdian murgiltzeko". Horiez gainera, Nogen, Skakeitan, Beriba batukada, Kiki, Koko eta Moko pailazoak gonbidatu dituzte, baina herriko musikariei ere tokia eginez: "Bihar, eurek proposatu ziguten moduan, eguerdian, Screammers & Sinners izango da Mitarte kalean, eta toki berean, arratsaldean, Krisis".

Eguaztenean, saio berezia

Jaialdiak iraun bitartean, jarraipena egingo dio Goienak sarean; eta astelehenean, *Hemen Debagoiena* saioan erreportajea eskainiko dute; eguaztenean, berriz, saio berezia izango da telebistan, 21:00etan eta 23:00etan.

"Jaialdia egonkortzea da gure helburu nagusietako bat aurten"

UNAI ELKOROK ARETXABALETAKO ALKATEA

Pozik aurtengo jaialdia antolatzeko egindako lanarekin, emaitza ikusteko gogoz dagoela dio Aretxabaletako alkate Unai Elkorok.

Etxean txoko ezezagun asko ditugu, ezta?

Bai, horixe; sarritan gertatzen da kanpora joaten garenean hortxe ibiltzen garela txoko guztietara heldu guran, baina gero, bertakoak zenbat ezagutzen ditugun...

Zein da aurten duzuen erronka edo helburua?

Lehenengoan, Leintz Gatzagan, jende askorik ez zen hurbildu; iaz, Bergaran, hobeto joan zen; aurten, jaialdia egonkortzea gura dugu.

Eta zein da jaialdiak aurten izan duen aurrekontua?

45.000 euro ditugu, eta zati handi bat kontzertuetara bideratu dugu, jendea erakartzeko interesgarria iruditzen zaigulako. Programa polita osatu dugula esango nuke, aurrekontua ondo doituta. **Eguraldiarentzako B planik?** Aldaketa txikiren bat izango da, akaso, baina iragarritako tokian izango dira ekintzak.



MIRARI ALTUBE

Askotariko ekintzak daude; adibidez, Senderismo Azoka.

Hamar postu inguru izango dira Durana kalean aukera ezberdinak ezagutzeko: bertakoak eta kanpokoak. Adibidez, Val d'Arandik (Lleida) lagun batzuk datoz, horrelako jaialdi bat egin gura dute eurek han, eta, informazioa ekartzeaz gainera, ibilaldi guztiak egiteko asmoa dute hemen ikusi eta ikasitakoak hara eramateko.

Autobusa erabiltzeko gomendioa egin duzue.

Garraio zerbitzua indartu egin dugu; *Pesa.net*-en dago ordutegia. Autoz etorri gero, erdiguneko sarreratik sartzeari aholkatzen dugu industrialdean aparkatzeko.

Betebeharrek utziz gero, zein ekitalditara joango zinateke?

Kepa Junkera & Sorginak ikusteko asmoa dut gaur, eta Screammers & Sinners taldea ere gustura entzungo nuke bihar, baina ibilaldirik egiteko aukerarik ez dut izango.

Bestelako bisita gidatuak

Jaialdiaren erdigunea aurten Aretxabaleta bada ere, Debagoieneko beste herrietan ere badago zer ikusi.

- **Bergara Monumentala** Bergarako erdigunean bisita gidatua. (943 76 90 03)
- **Laboratorium museoa** Bergaran (943 76 90 03).
- **Ibarraundi museoa** Eskoriatzako museoa (943 71 54 53).
- **Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia** Oñatin (943 78 34 53).
- **Arrikruz kobak** Oñatin (943 08 20 00).
- **Arantzazu** Debagoieneko Informazio eta Interpretazio Zentroa (943 79 64 63).
- **Arantzazu Parketxea** Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Interpretazio Zentroa (943 78 28 94).
- **Txokolateixia** Txokolateari buruzko Interpretazio Zentroa, Oñatin (630 431 549).
- **Gatz Museoa** Leintz Gatzagan (943 71 47 92).

Oharra: Parte hartzeko, alde zuzenetik izena eman behar da.

Egitaraua

Ekainak 15, egubakoitza

- **09:30** Mendi ibilaldia: Aretxabaleta-Larrino elizatea-Urkulu urtegia-Aretxabaleta.
- **10:00** Mendi ibilaldia: Arrasate-Murugain-Aretxabaleta (ingelesez).
- **16:00** Ibilaldia eta tailerra, Mojetan: *Sendabelarrak ezagutzen*.
- **17:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldia, Herriko Plazan.
- **19:30** Beriba batukadaren emanaldia, Durana eta Mitarte kaleetan.
- **22:30** Kepa Junkera & Sorginak taldearen kontzertua, Herriko Plazan.
- **00:00** Izarrak ikustera joateko irteera, Herriko Plazatik abiatuta.

Ekainak 16, zapatua

- **08:30** Mendi ibilaldia: Degurixara, Arantzazuko Parketxearen eskutik.
- **09:30** Espeleoabentura Oñatiko Arrikruz kobetan.
- **09:30** Ibilaldia familian: *Uretsen bidea*, Zaria Mendi taldearen eskutik.
- **09:30** *Nordic walking* irteera: Urkulu urtegiari bira.
- **10:00** Mendi ibilaldia: Elgeta-Azkonabitza-Karabietza-Egoarbitza-Elgeta, Elgetako Kantsatzeke mendi taldearen eskutik.

- **10:00** Dantza afrogarakide ikastaroa Arkupen, Jaki Elkartean eskutik.
- **10:00** Kartografia eta orientazio tailerra, Arkupen.
- **10:00** *Naturatik ikasten* Argazki tailerra, Arkupen.
- **12:00** Hamaietako osasuntsua, Durana kalean.
- **12:00** Haurrentzako emanaldia: Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Herriko Plazan.
- **13:00** *Screamers & Sinners* taldearen kontzertua, Mitarte kalean.
- **16:00** Ibilaldia eta tailerra, Mojetan: *Sendabelarrak ezagutzen*.
- **16:30** Ibilaldia: *Gatz Bidie, Leintz lotzen*, Gatzbide Ekimenaren eskutik.
- **17:00** Bisita gidatua: *Oñati, muino ugariko tokia*.
- **17:00** Bisita gidatua: *Aretxabaleta ezagutu: bainuetxeen herria*.
- **18:00** Krisis taldearen kontzertua, Mitarte kalean.
- **20:00** Nogen taldearen kontzertua, Herriko Plazan.
- **22:30** Skakeitan taldearen kontzertua, Herriko Plazan.

Ekainak 17, domeka

- **07:00** Aretxabaletako X. Mendi Martxa, Herriko Plazatik abiatuta, Murruxiko taldearen eskutik.

- **09:00** Mendi ibilaldia: Eskoriatza-Apotzaga-Galartza-Aretxabaleta.
- **09:30** Mendi ibilaldia: *Aitzulo-Debagoieneko lehioa*.
- **09:30** Mendi ibilaldia: Arrasate-Murugain-Aretxabaleta.
- **10:00** *Elgeta 1936-1937: Intxortako ibilbide gidatua*.
- **11:00** Haurrentzako tailerra: *Etorkizuna ereiten*, Cristina Enea Fundazioaren eskutik, Herriko Plazan.
